



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2008 URTEA • BIK - 7. Idazlan Koaderno • DBH eta Batxilergoa

GERNIKA-LUMO 2008

7IK

7. IDAZLAN KOADERNOA
DBH eta batxilergoa

GERNIKA-LUMO
2008 urtea

7. IDAZLAN
KOADERNOA

DBH eta Batxilergoa

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua
- Gernika-Lumoko Institutua
- Mertzede Ikastetxea
- San Fidel Ikastola
- Seber Altube Ikastola
- HHI Gernika-Lumo

Portadaren egilea:

- Unai Martin Torrontegi (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- BEREKINTZA.

2008ko edizioa.

HITZAURREA

Ehun urte barru liburu hau eskuetan hartzen dauanak, jakingo dau Gernika-Lumon baegozala 2008. urtean ipuinak idazten ebezan ikasleak, polito idatzi be. Eta hareen belarrietara zuzenketak xuxurlatzen eutsiezan irakasleak ere baegozala. Eta guztiak herriko ikastetxeetan aritzen zirala.

Ehun urte barru horrelako ekintzak oroitzapen bat baino izan ez daitezkan aurkezten deuntsugu bilduma hau. Irakurtzeak arrastoa izten daualako irakurlearengan. Baita idazlearengan be. Zuk gehiago irakurri nahiko dozu eta idazleak gehiago emon beharko deuntsu.

Hauxe, irakurle, Zazpigarren Idazlan Koaderno dozu: herri honetako ikasleek sortua, irakasleek zuzendutakoa, eta guztiontzat zabaldua. Bagoaz guztion artean osatutako katea luzatzen. Ea amaigabe bihurtzen dogun. Izan zaitex, zu be, katebegi.

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia



AURKIBIDEA

“AITORREN TRISTURAK”	Maialen Basterretxea	DBH 1. maila	6
“MAIDERREN AMETSA”	Ainhoa Arrien	DBH 1. maila	10
“DENBORA BEZALA MAIATASUNA BADOA”	Izaskun Montero	DBH 1. maila	13
“HERRI HEGALARIA”	Irati Oriá Ikarán	DBH 1. maila	16
“JOXEME ALFERRA”	Garazi Gabaldón	DBH 1. maila	19
“MOHAMED”	Mikel Elgezabal	DBH 2. maila	22
“NOR NAIZ NI?”	Iñaki Mendieta	DBH 2. maila	26
“NIRE AITONA MARIANO”	Beñat Zabaljauregui	DBH 2. maila	29
“SURF ARRATSALDEA”	Ainhoa Goitia	DBH 2. maila	33
“ZORIONTASUNAREN ETA OSASUNAREN XARABEA”	Amaia Naberan	DBH 2. maila	36
“BARKAMENAREN MUGA PASAEZINAK”	Maitane Erleaga Aranas	DBH 3. maila	43
“JUSTIZIAREN IZENEAN”	Roke Ribate	DBH 3. maila	48
“ZENTZUMENAK”	Gorka Larruzea	DBH 3. maila	52
“GURE AMETSA”	Ioana Olea	DBH 3. maila	55
“AMESGAIZTO BAT AL DA?”	Lexuri Gabiola	DBH 3. maila	58
“BIZITZAREN GERTAERAK”	Alejandra Guerendiain Soler	DBH 4. maila	61

“OLATU IZUGARRIA”	Sirats Beaskoetxea	DBH 4. maila	65
“ZORITXARRA”	Irene Aberasturi	DBH 3. maila	68
“MAITASUNAREN GAZI GOZOTAN MURGILTZEAN...”	Nahia San Miguel	DBH 4. maila	71
“BIZITZAKO AITORMENAK”	Irati Malaxetxebarria	DBH 4. maila	75
“OPARI MAKABROA “BRUTUS””	Urko Armaolea	BT 1. maila	80
“AMETS GAIZTOA”	Iñaki Eskibel	BT 1. maila	83
“BESTE ATZERRITAR BAT”	Diego Borchers	BT 2. maila	88
“LASAI ASKO”	Iera Uriona	BT 2. maila	92
“ASTROEK EZ NAUTE MAITE”	Aroa Basterretxea	BT 2. maila	96
“PSIKOANALISTA”	Alejandra Loizaga	BT 2. maila	101
“EZEZAGUNAREN MINA”	Nora Urkiza	BT 2. maila	107
“GAUJAZ MAITEMINDU NINTZEN ”	Garoa Caminos	BT 2. maila	111
“BAKEA AZKENEAN”	Sadek Ahemdanek Garalde	HHI	114
“IRATXEREN LEGATUA”	Iratxe Álvarez Azueta	HHI	117



Maialen Basterretxea - DBH 1. maila

*“Nik animaliak oso gustuko ditut,
baita saski baloia eta lagunekin egotea ere”*

AITORREN TRISTURAK

Munduan, beste askori bezala aiton-amonek izeko-osabek ipuinak kontatzen dizkirate sutondoaren ondoan eserita. Egun hotz batean nire osaba arrantzaleak kontatu zidan bat sutondoaren ondoan, gehien gustatu zitzaidana izan zen dene-tatik. Aitor izeneko arrantzale baten istorioa kontatu zidan eta honela zioen:

“Bazen behin herritxo bat Bermeo ize-nekoa. Nahiko handia zen eta portu bat zeukan. Bertan itsasontzi asko zeuden lotu-ta; beste asko itsasoan arrantzan; eta arran-tzaleak, zegoen hotzarekin arrantzan hotzak hiltzen familia aurrera ateratzeko. Itsasontzi batetan bazegoen arrantzale bat oso gaztea,



20 urte zituena gutxi gorabehera. Berak ile beltza zuen eta begi urdinak, ez zeukan lagunik. Arrantzan eta arrantzan gelditu gabe egon behar izaten zuen bizitza aurrera ateratzeko. Emazterik ez zeukan, eta Aitor zuen izena.

Egun batean esan zioten arrantzara joan behar zuela urruti urrutira urte berterako. Aitor, pozik zegoen bizitza berria aurkituko zuelakoan bertan pentsatuz: emakume eder batekin ezkondu, umeak izan, lan hobea bat aurkitu...

Bidaia luzea zuten leku hartaraino, baina Aitorri ez zion axola horrek, bere munduan zebilen bere pentsamenduekin batera.

Iritsi zen egun handia, Aitorrek Bermeo utzi behar zuen eguna urte betez behintzat. Egia esan pena pixka bat ematen zion Bermeo uzteak, baina iraganean pentsatzearekin batera ahaztu egiten zitzaion dena. Maletak egin eta itsasontzira igo zen irribarrea ezin ezkutaturik zuela, pozez zorutzen. Halako baten zera esan zion nagusiak:

–Aitor, zer dela eta zaude gaur hain pozik arrantzan egitera joateko? Gainera, urte betez egon behar gara beste herri batzuetako portuera arraina eramaten eta itsasoan arrantza egiten.

–Ba... ez dakit handik, goazen lekutik, Bermeora itzuliko naizen beste bizitza bat hasi nahi dut emazte lirain bat, umeak... –erantzun zion Aitorrek urduri.

–Aholku bat emango dizut, Aitor, eta entzun arretaz –esan zion nagusiak serio jarriz–. Nik, zu banintz, ez nuke ametsik egingo.

–Zergatik nagusi? –erantzun zuen Aitorrek tristura aurpegia jarriz.

–Zu bezala han geratzeko joan den jende asko ez da itzuli bizirik eta beste batzuk itzuli dira Bermeora urte batzuk beranduago eta bizitza guztia triste pasa izan ohi dute.

Aitorrek ez zion sinistu eta aurrera egin zuen bere pentsamenduekin, baina nagusiak kontatu ziona egia zen bene-benetako egia. Pozik zebilen negu hartan Aitor arrantzan bere lanean gogotsu saiatuz. Bidaia luzea egin ondoren herri bat aurkitu zuen bere gustokoa, bera bezala joandako jende guztia geratzen zen herrian. Lankideei eta nagusiari agur esan eta bertan geratu zen. Nagusia kezkatu geratu zen, baita penaz beterik ere bere arrantzale onenatariko bat baitzen Aitor. Berak seme bat bezala maite zuen eta negar malkoak irteten zitzaizkion ez zela Bermeora itzuliko pentsatzearekin batera edota itzultzen bazen triste biziko zela betiko pentsatuz.

Lankideak itsasontzian sartu eta bidaiari ekin zioten ezer gertatu ez balitz bezala. Aitorrek, berriz, ez zuen penarik sentitu. Herri polita zen, Bermeoren antzekoa bere portuarekin, itsasontziekin... Segituan hasi zen Aitor bizileku bila eta hotel bat aurkitu zuen. Ez izan arren oso dotorea merketxoa zen, horrela bertan gelditu zen.

Egunak joan egunak etorri, azkenean Aitorrek lan bat aurkitu zuen. Lan egoki bat, bere gustokoa eta nahiko ordaintzen zioten. Bere lana supermerkatuetatik herriko etxeetara jendeak eskatutako produktuak eramatea zen. Goizean 8etan hasi eta arratsaldeko 3etara arte ez zen gelditzen. Aitorrek gustura egiten zuen

lana, batez ere, bazegoelako neska polit eta atsegin bat. Berak eramaten zizkion produktuak etxera. Emakumeak gutxi gora-behera Aitorren adina zeukan. Begi urdin-berdeak zituen eta ile luze horia, bere izena Elene zen. Aitor, neska honekin zeharo maitemindu zen. Neska ere Aitorrekin maitemindu zen eta Aitor egunero-egunero joaten zen produktuak eramatera bere bihotzeko Eleneri.



Urteak joan ahala ezkondu egin ziren eta 2 haur izan zituzten: Miren eta Dani bikiak. Aitorrek bere lanean jarraitzen zuen, aldatu zen gauza bakarra Aitor Eleneren etxean bizi zela orain.

Mutila pozik bizi zen, bere emaztea hil egin zuten arte. Gizon maltzur batek hil zuen, bertakoa zen. Gizon hori Elenerekin maitemindurik zegoen. Elenek ez zuenez ezer jakin nahi, gizonak Elene laban batekin hil egin zuen. Hiltzaile horrek ezetz esaten zioten emakume guztiak hiltzen zituen, eta txarrena zen poliziak ez zuela inoiz kartzelara eramaten ez zuelako probarik bera izan zenik. Aitorrek umetxoak hartu eta herri hartatik aldegin zuen itsasontzi baten beste herri batera. Han astebete igaro zuen. Gau baten gizon hura agertu zitzaion eta Aitor eta bere seme alabak hiltzen saiatu zen. Honek ez zekien zer egin, larri zebilen. Une hartan aizto bat bat hartu zuen mehatxu eginez:

–Nire seme alabei zerbait egiten ausartzen bazara hil egingo zaitut, zuk uste baino lehen!

–Lasaitu zaitetz, ez diet ezer egingo zure seme alabei –erantzun zuen gizon gaiztoak eskuan zuen pistola lurrera botaz.

Aitor pixka bat lasaitu zen, baina ez asko. Seme-alabak lepoan hartu eta korrika ihes egin zuen poliziaren bila. Gizona lotuta utzi zuen bertan. Aitor poliziarrekin itzuli zen toki hartara, baina zoritxarrez gizona ez zegoen, bere laguntzaileek askatu egin zuten eta eraman. Poliziak hortik aurrera ez zion sinistu inoiz eta herrian gezurti bat bezala ezagutzen zen, horren ondorioz lanetik ere bota egin zuten herri hartan. Aitor, oso triste zegoen nola aterako zituen bere txikitxoak aurrera? nola ordainduko hauen eskola?... Behintzat etxolatxo bat eraiki zuen egur batzuekin, etxolatxo txiki bat bertan bizi ahal izateko. Hau basoan egin zuen. Han bizi ziren Aitor, Miren eta Dani ahal zuten moduan beldurrez, gizon maltzurra agertuko ote zen edo. Gabonak iritsi ziren eta ez zuten dirurik, zer egingo ote? Umetxoak pozik zeuden, Aitor ostera ez. Aitorren Gabonetako oparia umetxo gabe gelditzea izan zen: gizon hark eraman baitzituen. Ez zekien zer egin, ezin zen polziarengana joan. Orduan umeak bilatzea beste erremediorik ez zuen. Esan eta egin, motxila batean gauzak hartu eta oinez bidaiari ekin zion, bere umetxoengatik edozer egiteko prest zegoen triste egon arren.

Leku asko bisitatu zituen, baina ez zituen inon aurkitu, hala ere jarraitu egin zuen aurrera noski.

Urte bete geroago ez zituen oraindik aurkitu eta bilatzeari utzi zion asko maite zituen arren. Aitorrek orain ulertzen zuen nagusiak esandakoa eta jendeari galdetu

zion ezagutzen bazuten gizon maltzur hura. Jendeak baietz esan eta dena kontatu zion bereziki bera bezala joandako gizon batek:

–Gizon horrek, zu bezala eta ni bezala etorritakoen bizitzak izorratzen ditu eta bizitza bizitzen ez dio uzten herritik joan arte edo gaizki-gaizki gaixorik egon arte, horrez aparte emakume lirainak ere hiltzen ditu.

Hori entzundakoan konturatu zen ez zela joan behar izan Bermeotik eta nagusiak esandakoa egin behar zuela. Negarrez hasi zen. Bermeora itzuli nahi zuen, baina han ere triste biziko zen eta bera bezala beste jende asko joango zen ametsekin eta triste itzuliko zen. Hau gelditu behar zuen, amaiera jarri gizon horri, kartzelara eramanean beitzirako. Baina nola? Pentsatu eta pentsatu bururatu zitzaion azkenean ideia bat: dena kontatu zion gizon hura eramanean bazuen poliziarengana eta gizon hark dena kontatuko bazuen, sinistuko zioten ziurrenik. Gainera, gizon hark lagunak bazituen defenditzeko hobe. Esan eta egin, gizona bere lagunak eta Aitor poliziarengana joan ziren eta dena kontatu zuten. Poliziak hauen larritasuna ikusirik kasu egin eta gizon maltzurra bilatzen hasi ziren, baina ez zuten aurkitzen.

Egunak joan egunak etorri oraindik ez zen azaldu, baina ezin zuten bilatzeari utzi beraien lana baitzen. Halako egun batean azaldu zen gizon maltzurra Aitorren bila eta honek harrapatu eta poliziarengana eramanean zuen. Kartzelan sartu zuten 20 urterako, ea ikasten zuen jendeari minik ez egiten. Aitorren seme-alabak ere aurkitu zituzten, baina Aitor triste zegoen inork ezin ziolako bere emaztea bueltatu. Hori ezinezko zela bazekien.

Bermeora itzuli zen, triste-triste alde batetik, baina pozik beste alde batetik. Pozik zegoen gizon maltzurak ez ziolako inori gehiago minik egingo eta triste bere emaztea ez zuelako ondoan. Bermeon pozik hartu zuten Aitor, batez ere nagusiak bizirik zegoela ikustean, eta zera esan zion:

–Ulertzen duzu orain zergaitik esan nizun ez egiteko ametsik?

–Bai ulertzen dut eta barkatu eskatu nahiko nizuke kasu ez egiteagatik
–erantzun zion Aitorrek.

Nagusiak hori entzun ondoren lana eskeini zion eta bere etxea ere bai, beste etxe bat bilatzen zuen arte.

Umeak eskolara joan ziren eta Aitor bere lanera, gainera herrian lagun asko egin zituen eta emazte berri bat aurkitu zuen. Honek esan nahi du pozik bizi izan zela hortik aurrera eta oraindik bizitza luzea zeukan gainera oraindik pozago bizitzeko.

Ez dakit egia ala gezurra den edota nire osabak asmatuta dagoen, baina niri asko gustatu zitzaidalako kontatu zidan horixe bai badakit.



Ainhoa Arrien - DBH 1. maila

“Lagunekin ibiltzea gustatzen zait”

MAIDERREN AMETSA

Kaixo lagunak!!! Beno, Gaur oso istorio polita kontatuko dizuet neskatxa bati buruz. Neskatzak, Maider du izena eta edo zer egingo zuen bere ama berpizteko. Beno hasiko naiz.

Bazen behin Maider deitzen zen neska gazte eta polita, 13 urte zituen, eta bere ama Mainerrek urte bat zuenean hil egin zen. Mainerrek ez zuen bere ama ezagutu eta edozer egingo luke ama ezagutzeko.

Egun batean, ikastolara zihoala andre zahar bat ikusi zuen sorgin itxurarekin, andrea mutil batekin zegoen hitz egiten. Orduan Maider horma baten atzean ezkutatatu zen, andre zaharrak esaten zuena entzuteko. Sorginarekin zegoen mutilak, sorginari esan zion, bere ametsa, auto polit bat edukitzea zela. Maider harrituta

gelditu zen, ez zuen ezer ere ulertzen eta oso harrিতuta ikastolarantz abiatu zen. Ikastolara iritsi zenean, bere lagun Aneri kontatu zion:

–Ane!!!! Etorri, oso gauza harrigarria gertatu zait!!!!

–Baina, ondo zaude???? Zer gertatu da??? Lotería tokatu al zaizu???
–erantzun zion Anek harrিতuta.

–Ez, ez horixe, ba ikastolarantz nentorrela, andre zahar bat ikusi dut sorgin itxurarekin mutil batekin hizketan. Orduan, andreak galdetu dio zein den bere ametsa eta mutilak erantzun dio kotxe polit bat edukitzea.

–Aaaaa..., joe oso interesgarria da –erantzun zion Anek aurpegi arraro batekin.

–Bai??? Benetan???

–Ez!!! Mesedez, horretarako esan didazu gauza harrigarria gertatu zaizula??? Maider benetan a zer nolako tontakeria!!!

–Tontakeria??? Tontakeria hau?? Baina ez duzu ulertzen horrela nire ama berpiztuko dudala???

–Zer??? Zure ama berpiztuko duzula??? Maider zer hartu duzu Gaur goizean?? Whisky taza bat hala???

–Ez!!! Eta Ane zure laguntza behar dut mesedez, nire lagun onena zara eta txikitatik egin dugu dena batera.

–Ongi da, lagunduko dizut...

Hurrengo eguna heldu zenean, Maider eta Ane andre zaharra egon zen tokitik joan ziren ikastolara ea ikusten zuten, baina ezer, eta hurrengo egunean ere ez, eta hurrengoan bez, 4, 5, 6, 7... egun igarotu ziren eta ez zuten egun baten ere ikusi andrea.

Aste berri bat hasi zen eta Maider eta Ane ikastolara abiatu ziren, bat batean Maiderrek mutila ikusi zuen izugarritzko autoarekin. Berehala mutilarengana abiatu zen:

–Barkatu, nola lortu duzu auto polit hau???

–Beno, andre zahar batek esan zidan zein zen gustuko nuen gauza eta autoa eman zidan –erantzun zion mutilak.

–Eta non aurkitu dezaket andre hori??? –galdetu zion Maiderrek.

–Mendi tontorrean dagoen txabola zahar batean bizi da. Baina kontuz ibili behar da, andre hori oso arriskutsua da eta.

–Eskerrik asko.

Zapatua heldu zenean Maider eta Ane motxila hartu eta mendirantz abiatu ziren. Anek ez zuen ezer ere ulertzen baina Maider bere laguna zenez lagundu egin zion.



Mendirantz abiatu ziren eta ordu betean bila ibili ondoren txabola aurkitu zuten eta hurbildu egin ziren. Leihotik begiratu zuten eta barruan andrea aurkitu zuten, eltze handi batean bere pozioak egiten. Argi zegoen sorgin bat zela. Maider eta Ane beldurtu egin ziren baina Maider oso ausarta zen, ez zen koldartu eta atea jo zuen. Atsoak atea ireki zuen eta barrura gonbidatu zituen. Ane oso oso beldurtuta zegoen baina Maider ez, eta sorginarekin hitz egiten hasi zen:



–Maider dut izena eta zuri mesede bat eskatzera nator. Urte bat bakarrik nuenean ama hil zitzaidan eta ez nuen ia ezagutu ere egin. Orain hamahiru urte ditut eta ama ezagutzea gustatuko litzaidake.–esan zion Maiderrek oso triste.



Sorginak; hura entzutean tristetu egin zen, eta Maiderri laguntzea erabaki zuen. Anek hori ikustean ohartu zen sorgina ez zela hain txarra eta Maiderren ondora hurbildu zen. Sorgina pentsatzen eta bere liburuetan bilatzen hasi zen pozioaren errezeta aurkitu zuen arte. Berehala hau prestatzen hasi zen:

–la honek funtzionatzen duen, honentzako daukadan bakarra baita. Ordu erdian prest egongo da.

Ordu erdi ondoren sorginak bere pozioa eman zion Maiderri eta nola egin behar zuten azaldu zion:

–Maider zure ama berpizteko aukera bat bakarrik daukazu eta hau da: etxera iristen zarenean zure amaren zerbait aurkitu behar duzu, hau gainean bota eta paper zati honetan daukazuna bi aldiz esan. Zortearekin zure ama zure ondoan egongo da baina zuk bakarrik ikusiko duzu ez ahaztu hori.

Maider etxera joan eta berehala egin zuen sorginak esandako guztia eta sorginak esan zuten bezala bere ama ondoan eduki zuen bere bizitza osorako.



Izaskun Montero - DBH 1. maila

“Saski baloian jolastea gustatzen zait”

DENBORA BEZALA MAIATASUNA BADOA

Udako egun eguzkitsu hartan guztiak bezala Laida 13 urteko neska lagunekin geratzen zen, San Juan Ibarako gozokian, arratsaldeko 17:30etan. Mutil talde handi bat ikusu zuen handik pasatzen eta mutil zehatz baten fijatu zen. Bere laguna Jone altxatu, berarengana hurbildu eta esan zion mahi al zuen gelditu beraren lagunekin arratsaldea pasatzen eta berak baietz erantzun zuen. Lagunengana hurbiltzean, Jonek mutila aurkeztu zion Laidari, mutilak Mikel zuen izena. Arratsaldea pasatu eta gero, Laidak uste zuen Mikel bere ametsetako mutila zela.

Hainbeste egun batera pasatu eta gero, neska-mutil lagunak bihurtu ziren.

Bi urte igaro zuten batera. Baina egun batean, Mikelen aitak eta amak erabaki gogor bat hartu zuten, Londresera zihoazen bizi berri bat egiten. Baina ez

zekiten Mikeli nola esan. Azakenean esan zioten; berak oso txartu hartu zuen eta momentuan etxetik alde egin zuen ezertan pentsatu gabe. Kaleetatik korrika eta negarrez eman zuen arratsalde osoa. Bere lagunekin topatu zen eta esan zioten bere aita eta ama bere bila zenbiltzatela eta bueltatzeko etxera. Hark esan zien herritik joan beharko zela Londresera eta horregatik ezin zela etxera bueltatu. Bere lagunek esan zioten orain etxera bueltatzeko bere aita eta ama gehiago ez kezkatzeko. Eta etxeratu egin zen. Hurrengo egunean, bere neskalagunarekin geratu eta dena kontatu zion. Laidak apur bat txarto hartu zuen eta hurrengo bost egun haietan ez zion hitzik esan. Seigarren egunean, mutilak azaldu zion ezin zuela ezer egin eta berak esko maite zuela esan zion. Azkenean, Laidak ulertu egin zuen.

Egun bat beranduago, mutilak Londreserako bidea hartu zuen, bere neskalaguna eta lagun guztiak agurtuta.

Bakoitzak bere bizitza egin zuen eta aurrera segitu zuen.

Sei urte beranduago, 19 urte zeuzkatenean, mutila bueltan etorri zen herrira, lehengo urteak gogoratzeko.

Bere lagunak deitu zituen berriz eurekin elkartzeko hainbeste urte ikusi gabe egon baitziren, eurekin gelditu zen. Bera joan zenetik gertatu ziren berriak kontatzeko eskatu zien eta gutxi batzuk kontatu zizkieten. Bere lagun Gorkaren ama hil egin zela orain dela urte bat, bere laguna Jone ospitalean zegoela eta, azkenengoa eta ;ikelentzat harrigarriena, bere lehengo neskalaguna Laida bere lagunik onenarekin Beñatekin zegoela irteten, neska-mutil lagunak zirela. Mikel ez zen oraindik Laidataz ahaztu, maiteminduta jarraitzen zuen. Momentu hartan, Laida agertu zen, eurengana hurbildu eta agurtu egin zituen. Baina beste mutil bat ikusi zuen, Mikel, eta galdetu zuen nor zen. Eurek erantzun zioten Mikel zela, bere lehengo mutil laguna. Bera harriturik gelditu eta agurtu zuen oso lotsaturik. Biak elkar begiratzen geratu ziren, maitasunezko begiradarekin... Geroago, Beñat eta Laida joan ziren batera buelta bat ematera.

Hurrengo egunean, Mikel Jone bisitatzera joan zen. Ez zekien hain txarto zegoenik, koman eta hiltzeko zorian.

Mikelek bere lagunik onenari aitortu zion oraindik Laidaz maiteminduta zegoela eta inoiz ez zuela ahaztuta izan. Bere lagunak esan zion onartu egin behar zuela orain berarekin zebilela, berak ez zuen onartu eta denbora baten ez ziren hitz bat ere esan elkarri. Baina ez zuten asko igaro lagunik onenak izanda... Hitz egin zuten eta azkenean konpondu zuten euren artekoa. Egun batean, Laida eta Mikel bakarrik gelditu ziren eta hitz egiten hasi ziren, nola zebiltzan, nolakoa zen euren bizitza berria, zer karrera egiten ari ziren...

Laidak pentsatu zuen Mikel mutil ona segitzen zuela izaten eta ez zela askorik aldatu.

Hurrengo egun haietan, Laidak uste zuen berriz maitemintzen ari zela. Eta maitemindu egin zen.

Baina, ikusi zuenean bere mutil laguna eta Mikel burrukan zebiltzatela, biekin haserretu zen. Beñat utzi zuen eta Mikeli ez zion hitzik esan.

Egun batzuk beranduago, Beñatek ba zuen neskalagun berria eta Mikel bar-kamena eskatzera joan zitzaion. Baina ez zuen funtzionatu.

Arratsalde hartan Laidaren lagun batek esan zion Mikelek kontaktu zion guztia, hau esan zion: berak iraindik maite zuela, bere bizitza osoa emango zuela bera-rekin beharrezkoa bazen eta orain berak ez diola barkatzen. Bera ohartu zen eta azkenean barkatu zion.

Urte askotan zehar lagun onak izan ziren. Eta egun batean, berriz elkartu ziren.

Maitasun handia zioten elkarri. Unibertsiteateko ikasketak amaitu ostean, la-nean hasi ziren, Laida irakasle eta Mikel mediku.

Egun batean, Laidak laguntza eskatu zion, bere lagunik onena Jone koman baitzegoen eta era batera edo bestera lagundu ahal bazion. Mikelek baietz eran-tzun zion eta ahalegintzen hasi zen.

Azkenean, lortu zuen. Berak ere ez zuen jakin nola baina asmatu zuen likido bat hilabete pare batzuetan sendatzeko gai zena. Momentu hartan oso famatu bihurtu zen.

Geroago, bost ume izan zituen eta Laidarekin eman zuen bere bizi osoa.



Irati Oria Ikarán - DBH 1. maila

“Niri fantasiatzko mundu batean bizitzea gustatuko litzaidake”

HERRI HEGALARIA

Orain dela urte asko, beharbada mende asko pasatuko zirela uste dut, mendian bizi ziren senar-emazte batzuk, herri bat sortzea pentsatu zuten. Diru asko izan arren, mendiko paisaia gustukoa zutenez, mendian bizitzea gustatzen zitzairen eta, kobazulo batean bizi ziren.

Hori pentsatu eta aste bete pasatu ondoren, material guztia erosita zeukaten, baina inork ez zekien herri bat egingo zutenik. Euren sei lagun minei gonbidatu zieten laguntzera etortzeko, eta gero, nahi bazuten, bertan gelditzeko. Egunero jo eta ke ibiliz gero, lau etxe egin zituzten, lau bikote ziren eta.

Tarteka-marteka, umeak ere eduki zituzten. Egunak joan eta egunak etorri, zortzi pertsona bizi ziren leku hartan, ehun eta hirurogei pertsona bizitzera pasatu ziren.

Apurka-apurka, komunikabideetan aurrerapenak ikusten ziren. Hala nola, bi-deak, dendak, parkeak, ikastetxeak, industria txikiak eta polikiroldegiak eraikitzen

hasi ziren. Jende gutxi joaten zen bertara, inork ez zekielako herri hura zegoenik. Familiakoak eta lagunak joaten ziren bakoitzean, bertan geratzen ziren bizitzen, oraindik kutsatu gabe zegoelako.

–Hura bai garbitasuna!

Gainera ez zioten inori esaten herri berri hura zegoenik, sekretuan zeukaten.

Egun euritsu batean, gizon zahar eta bizardun bat heldu zen herriko plazara. Inork ez zuen ulertzen nola hel zitekeen, bertara heltzea oso zaila, neketsua baitzen. Euria barra-barra izan arren, hantxe zegoen geldi-geldirik, tinko-tinko euripean blai-blai eginda, zirkinik egin gabe.

Bat-batean, kri-kra egin ondoren, leihoa zabaldu zuen emakumea ahoa zabalik geratu zen hura ikustean.

–Hura gaixoa! –esan zion bere buruari.

Ondoren, tipi-tapa heldu zenean, gizonak liburu bat zuen eskuan, eta hitz arraroak esaten zituen. Emakumeak, aldiz, etxera gonbidatu zion eta gizonak eskuarekin keinuak eginez itxaroteko eskatu zion. Bere mugimendu, keinu arraroak amaitu zituenean, ea zer gertatzen zitzaien galdetu zion gizonak, eta andreak zera esan zion:

–Zatoz gure etxera, euria botaka da eta!

–Eskerrik asko! Barkatu lehen kasurik ez egiteagatik.

–Berdin da gizona! Zatoz gure etxera, eta kafetxo bero-beroa prestatuko dizut.

Etxera heldu, eta mahaian, kafea edaten zuten bitartean, txutxu-mutxuka zeuden. Gizonak magoa zela esan zion, eta galduta zegoela. Beraz, ezin zuela etxera bueltatu, makilatxo magikoa blai-blai eginda zuelako.

Amaitu zutenean jada, ez zen euri tantarik, ateri zegoenez, elkar agurtu ondoren, kalerantz abiatu zen.

Bat-batean, bere hitz magikoak esan eta segidan, herri osoa bueltaka hasi zen. Bost minutu inguru egon zen herri osoa bueltaka, eta jendea, ikaraturik, herriko plaza erdi-erdian bildu zen. Magoak orduan, lasaitasunez azaldu zien gertaturikoa. Lehenengo bere aurkezpena egin ondoren, den-dena honela esan zuen:

–Lagunok! Orain esango dizuedana, ez zaizue gustatuko. Makilatxo magikoa siku zegoelakoan nengoen, eta etxera bueltan joateko hitz magikoak esan ditudanean, ba... beno... Zuen herria sorgindu dut.

–Bai sorgindu! Ez zaizue ezer gertatuko, baina herria... Leku batetik bestera aldatuko da!

–Zer? Eta egunero aldatuko al gara?

–Ez, ez. Urtean behin bakarrik! Gaurko egunean, hain zuzen ere.

–Beno, ez da hain larria.

Batzuei oso txarto iruditu zitzairen, baina gehienei ondo. Magoa bertan gelditu zen bizitzen, eta hurrengo urtea heldu zenean, denak batu ziren plazan berriz.

Ordu berean gertatu zen, bueltaka hasi zen herria beste urtean bezala, eta herria gelditu zenean, beste leku batean zeudela ikusi zuten. Hura bai zela miragarria!

Esaten dute, orain ere bueltaka dabilela Euskal Herriko mendietatik.



Garazi Gabaldón - DBH 1. maila

*“Lagunekin egotea eta kirola ditut gogoko.
Leku berriak ezagutzea ere asko gustatzen zait”*

JOXEME ALFERRA

Bazen behin Joxeme izeneko mutil argal, luze, ixil eta oso alfer bat. Bere benetako izena Joxemi zen, baina hain argala eta mehea izanik, erdi txantxetan Joxeme deitzen hasi zitzaizkion, eta eskolan beste Joxemi bat bazegoenez lodi-lodia..., hari berriz Joxe pottolo.

Joxeme zen imagina daitekeen umerik alferrena, bere alferkeriak ez zuen mugarik. Egunero Joxemeren amari piloa kostatzen zitzaion Joxeme ohetik altzaztea eta eskolatik itzuli bezain laster ohean sartzen zen berriz ere. Sarritan, ohean gelditu ahal izateko, gaixo plantak egiten zituen eta hala esaten zion amari:

“Ama, buruko mina” edo “ama, tripako mina” edo “ama, belarriko mina”.


Baina amak behin baino gehiagotan medikua etxera etorrarazi eta semeak ezer ez zuela entzun ondoren ez zion hitzik ere sinesten, handik aurrera ezer

gutxirako balioko zioten Joxemeri aitzakia horiek, ipurdiko ederrak hartuta joan nahi ez bazuen. Asteburuan berriz, jaikitze eta jaikitze eta Joxeme jaikitze ez zen iñor etxe hartan. Ezer jango bazuen gosaria ohera eraman behar, bazkalteko altxatzen zen, bai, bakean uzten ez zutelako, baina bukatu orduko siestaren aitzakiarekin, besapean txiste batzuk hartu eta ohera bidean zen berehalaxe.

Oporretan, Joxemerentzat ez zegoen mendirik, ez hondartzarik, ezta igerilekurik ere, hark ohean gelditu nahi izaten zuen, goxo-goxo, bere txoko epelean sartuta. Alfer alferrik eramaten zuten gurasoek leku turistikoetara; eta behin beste neska mutil batzuen artean ohean egoten lotsatuko zelakoan, udalekuetara bidali zutenean, ohar honekin etorri zen gure Joxeme handik bi egunetara: ez du ez jolasten, ez ekintzetan parte hartzen. Egun osoan ohean egon nahi du, eta horretarako hobe du etxean geratu.

–Hau lotsa! –esan zuen amak, eta semea berriro udalekuetara bidaltzeko gogoak joan egin zitzaizkion.

Baina oporrek bazuten beste gauza berezi bat. Oso berezia Joxemerentzat: Ameriketako osaba etortzen zen, osaba Kepa, hamabost egunetarako, hamabost egun horietan bizkortzen zen pixka bat Joxeme, osaba artzain eta mekanikoa zen eta beti ari zitzaion kontatzen Ameriketako asmakizunen berri, eta Joxemek adi-adi entzuten zion, gainera osabak beti ekartzen zion opariren bat, urte baten telebista txiki bat, hurrengoko urtean mekano bat...



Joxemeren gurasoak oso kezkatuta zebiltzan, hasiera batean hezurretako gaitzen bat izango zuela ahuldurik uzten zuena, gero lo eragiten zion gaixotasunen bat zuela, baina medikuak behin eta berriz ezetz erantzuten zuen.

Azkenean psikologoarengana jo zuten:

–Sistema afektiboko gabeziaren bat du ume honek –esan zuten psikologoak.

Gurasoek ezer ulertzen ez zuten arren, arrazoia eman eta berak konpontzea utzi zuen.

–“Joxeme gaur patinatzerara joango gara”, “Joxeme datorren astean txotxongiloak ikustera joan behar dugu”.

Horrela beti egunez egun, astez aste eta Joxemek gorroto zion ideia horri, lehenengo amore eman zuen baina gero hasi zen gogor jartzen.

–Ez, ez eta ez; aspertu nauzue eta ez naiz gehiago aterako.

Baina gurasoek eta psikologoak ez zuten amore eman, bien bitartean ikasturtea bukatzen ari zen.

Urtero bezala, hilabete barru etorriko zela osaba Kepa eta Joxemek eskutitz luze bat idatzi zion osabari, urte osoko pasadizo eta gertaeren berri kontatuz. Joxeme ez zen gutunzalea baina urte hura berezia zenez, gustura egin zuen. Urte hartan inoiz baino luzeago atera zitzaion. Hantxe kontatu zizkion bere miseria guztiak.

Osaba Kepa laster zetorrenez, Joxeme espabilatzen hasi eta inbentu batzuk hasi zen egiten baina noski inbentuak ere ohean egiten zituen eta amak ez zekien larritu edo lasaitu eta berriro jo zuten psikologoarengana, oraingoan ere, Joxemek txarto pasa zuen baina...

Egun ugari pasa ziren horretarako, eta osaba kepa jadanik hor zegoen eta psikologoa ipurdian ostiko galanta emanda bota zuten etxetik. Osabak gurasei azalpen bat eskatu zien eta gurasoek erdipurdika erantzunda azkenean ulertu zuten. Oraingo urtean ere, osabak opari bat ekarri zion, moto bat, Joxemeri asko gustatu zitzaion oparia, urte guztietan bezala. hamabost egun horietan, osabak Amerikari buruz gauza asko erakutsi zizkion. Baina heldu zen osaba Kepa joateko ordua eta denak negar batean joan ziren, osaba aireportura agurtzera.

Azken egunetan, Joxemek inbentu bat asmatzeko asmoarekin logelan zituen traste guztiak desmuntatu eta DIN!!! Azkenean bukatu zuten, asko kostatu zitzaion baina lortu zuten. Ez zekien tramankulua nondik atera, baina zertxobait bururatu zitzaion. Etxean bakarrik geratu arte itxaron zuten, momentua heldu zen eta, gelako horma apurtzen hasi zen, jende guztia begira zegoen, baina berdin zitzaion, azkenean apurtu zuten eta han irten zen Joxeme bere ohetrasportatzailearen gainean. Joxeme bere ohetrasportatzailearekin Ameriketara heldu zen, arraroa zen baina osaba Kepa ere topatu zuten eta gero osaba hartu eta biak berriro Euskal Herrira bueltatu ziren, oso bidai polita izan zen, baina noski, Joxeme beti alfer bizi izan zen, baina hori bai ZORIONTSU!!!



Mikel Elgezabal - DBH 2. maila

“Jende askok, euskeraz, euskaraz zein akuaraz mintzatzen, berbetan, jolasen edo hitz egiten duela esaten du. Hala izan bedi”

MOHAMED

1915eko gau haizetsu batetan gertatu zen. Mohamed lo zegoen bere familia guztiarekin batera. Marokoko 11 urteko ume honek, begi urdinak zituen. Ez zen oso altua, nahiz eta beso luzeak izan. Azal marroi eta lehorra zuen, inguruko basamortuaren antzekoa. Olo alai eta adoretua zen. Pentsaeraz, nagusi bat zirudien. Mohamedek, beste sei neba-arreba zituen, denak bera baino gazteagoak. Berak bere arreba Shanmahi-ekin jolasten zuen gehien. Honek 9 urte zituen. Hau ere txikia zen, eta zoritxarrez gaixorik zegoen. Egun bero eta lehorretan (toki horretan 365 egunetik 300 egunetan) eskuineko hanka handitu egiten zitzaion, min ikaragarria emanez. Guztira zazpi zirenez, ez zuten dirurik botikak erosteko. Azkenengo botika amonari erosi zioten, hau 35 urteko minak jasan eta gero, bi egunetan sendatu zelarik. Hala ere Shanmahi oso alai zen, ez zuen esperantza galtzen. Sukarrarekin zegoenean, bere azal lehorra izerdiarekin

bustitzean, bere ametsetako hondartza freskoa agertzen zen. Mohameden aita hil egin zen, beraz ez zuten inolako diru laguntzarik. Gainera, bertan garestiena zapatak erostea zen, baita beharrezkoena ere, bertan arantza ugari egoten zirelako lurrian, kaktusen zein bertako intsektuena. Beraz, Mohamed, familiako zapataria zen. Bere zapatak ondorengoei uzten zizkien, eta txiki geratzen zirenak, egurra eta intsektu batzuen oskola erabiliz handitu egiten zituen. Bere ama oso pozik zegoen berarekin.

–Lagundu, lagundu!!!!!! Bonbardaketa, bonbarda... –esaten zuen oihuka andre batek. Bat-batean isildu egin zen.

Denak haien etxeetatik atera ziren. Bi hegazkin zebiltzan goian hegan, hiru ondoren, eta lau gero. Halako batean bonbak jaurtitzen hasi ziren. Denak korrika zebiltzan, norabiderik gabe. Mohamedek bere arreba eskuetan hartu, eta ihes egi-
tea lortu zuen. Hogei minutura edo, dena isildu eta hegazkinak joatean, Mohamed herrira itzuli zen. Familia eta lagun guztiak hil ziren. Zentzu gabeko bonbardaketa-
taren ostean, Shanmahiri zera esan zion:

–Entzun ondo. Amak eta besteek alde egin dute. Gu beste herri batera joango gara, botika bat erostera.

–Baina ez duzu dirurik –esan zion arrebak.

–Lan egin beharko dut, zu trankil –lasaitu zuen Mohamedek.

Besarkada luze baten ostean, lo pixka bat egin zuten, hurrengo egunean beste leku batera abiatzeko. Mohamedek ez zion esan bere familia hilda zegoenik. Txikiegia zen. Ez zuen hori jasaterik nahi. Alaia izan zedila beti.

Mohamed eta bere arreba, oso goiz altxatu ziren. Bidea jarraituz, mendia pasatu zuten eta Maroko eta Algeria arteko mugara iritsi ziren. Muga pasatzeko, paperak behar zituzten, baina haiek, ez zuten ezer. Shanmahiri hanka handitzen hasi zitzaion, beraz muga asko ibili barik zeharkatzeko plan bat asmatu behar izan zuten. Erreka alboan zutenez, oso erraza izan zen. Sasitza batzuen atzean ezkutatu ziren. Harri bat bota zuten bestaldera, soldaduak distraitzeko. Jarraian errekan sartu eta Irak eramanda, muga pasatu zuten. Hantxe, kostarantz zihoan bidea hartu zuten, ura aurkitzeko. Ibili eta ibili, bidea jarraituz, eta inguruko arboletako fruituak janez elikatzen ziren. Aste baten ondoren, kostako herrirka batera iritsi ziren. Hantxe bizi zen haien izeba bat. Segituan aurkitu zuten. Mohameden amak zioenez, zoroa zen. Mohamedi ez zion axola. Ohe batean lo egiteko gogoa zuen. Gosea zuen. Beraz bere etxera abiatu zen. Halako batean amona zahar batek atea ireki zien. Bere izeba zen. Ile zuria eta begi marroiak zituen. Azal lehorra zuen, baina oso atsegina zirudien. Eskuetan gailera gozoz beteriko platertxo bat zeraman. Mohamedek, haien istorio osoa kontatu zion.

–Sartu, sartu. Haurtxo gaixoak... –zioen amonak.

Jarraian, gailetatxoak jan zituzten. Shanmahik hanka urez beteriko ontzian sartu zuen. Oso ondo sentitu zen. Oina tamaina normalera bueltatu zitzaion. Pozik

zegoen. Aste batera, Mohamed zapatari moduan hasi zen lanean. 10 ordu luzetan egiten zuen lan. Jabeak egun batean hauxe esan zion:

–Zuen izeba horretatik urrundu behar zarete. Hasieran oso atsegina izaten da denekin, baina senarra hil zitzaionetik, paranoia asko izaten ditu. Labana eskuan baduzu, bera hiltzeko dela pentsatuko du, eta ez du zuk eskainitako ura edango, pozoituta egon daitekeelako. Eta okerre... –Mohamed izutzen hasia zen– gau batean lo zaudetela atea itxiko dizue, baita leihoa ere, eta bertan hilko zarete, gosez hilko zarete.

–Eta nora joan gaitzke bizitzera ? –galdetu zion Mohamedek zapatariari.

–Zuen izeba horrek beste neba bat du. Alboko etxean bizi da. Zoaz orain zure osabarengana eta azaldu iezaiozu gertatzen zaizuna. Seguru aski ulertuko du.

–Eta nire arreba?

–Gero joango zara bila. Zure izebari ez esan zure osabaren etxera zoaztela, ez baitira lagun onak.

Mohamed bere osabaren etxera joan zen. Osaba isila baina atsegina zen. Gero izebaren etxera joan zen korrikan. Orduan Shanmahi etxeko atarian negarrez ikusi zuen.

–Zer gertatzen zaizu? –galdetu zion Mohamedek kezkatuta.

–Izeba haserre bizian jarri da, eta hil egingo diodalakoan, etxetik bota nau. Zer gertatzen zaio? –galdetu zion negar– zotinka.

Mohamedek dena azaldu zion. Shanmahi asko poztu zen osaba bat zutela jakitean.

Osabaren etxean igaro zituzten hainbat urte. Mohamedek 18 urte izan zitue-nean, zuen diruarekin Shanmahiri botika erosi zion, eta bere zapata-denda jarri zuen.

Honek arrakasta handia izan zuen, eta lortutako diruarekin, arrebaren gaitza kentzeko operaziorako dirua lortu zuen. Oso pozik zegoen, izan ere, bere arreba guztiz sendatuta egoteaz gain, oso idazle ona zen, eta hainbat sari jaso ostean, bere lehenengo liburua idatzi zuen, “Bonba hotsak” izenekoa.

Arrakasta handia izan zuten bi anai-arrebek. Halako egun batean, haien izeba hil zela entzun zuten. Ez zuten pena handirik sentitu. Hori jakitean Shanmahik Mohamedi zera galdetu zion:

–Aizu! Nora joan ziren ama, amona eta anai-arrebak?

Egia esateko unea iritsi zela pentsatu zuen Mohamedek.

–Gauza bat esan behar dizut, hasi zen esaten, poliki-poliki gau hartan, herrira bueltatu nintzenean, zera... eee... baaba... bueno, gauza da, ba...

–Ama eta denak bertan hil zirela, ezta? –esan zuen bat-batean bere arrebak pixka bat tristetuta.

–Bai. Nola jakin duzu? –galdetu zion harrিতuta Mohamedek.

–Nagusia naizelako, eta inoiz horri buruz hitz egin ez dugulako.

Mohamed eta Shanmahi besarkatu egin ziren. Hortik urte batera Mohamed ezkondu egin zen, eta bere andrearekin eta Shanmahirekin Marokora abiatu zen. Ordurako bizartsua zen.

Bertan, egun batetan, haien herrira itzultzea pentsatu zuten. Herri berri bat zen. Jendez beteta zegoen, eta nahiz eta etxe zaharrak kontserbatu, berri-berri zegoen dena. Denen ezusterako, alkatea ezagun-ezaguna egin zitzaien. Mahit zen. Haien anaia gazteena. Ile marroia, begi marroiak eta azal lehorra zuen, besteen antzera. Hiru atzamar eta bi behatz falta zitzaizkion, bonbardaketaren ondorioz. Honek bi alaba zituen, alai eta politak, lau eta sei urtekoak.

Antza denez, eta Mahitek zioenez, mareatuta sentitu zen, baina dena isiltzean, alboko herrira joateko gai izan zen, 2 urterekin edo. Hantxe, amonatxo batekin bizi zen, hamasei urte arte, amona hura hil zen arte. Ondoren alkatetzara aurkeztu zen, eta bere gaztetasuna oztupo ez zela, alkate izendatu zuten. Bost urte zeramatzan jada.

Oso pozik zeuden hirurak. Berriro elkartu ziren. Familia batu zen. Hortik aurrera denak pozik bizi ziren. Shanmahik ez zuen osasun arazorik izan, Mohamed zapatari aparta izan zen, eta Mahit pozik bizi zen, bere familiarekin zegoen.



Iñaki Mendieta - DBH 2. maila

“Munduan ez dago ezer hobirik bakoitza den modukoa izatea baino”

NOR NAIZ NI?

Bazen behin Penssylvaniako herrixka txiki batean Jag izeneko mutiko bat. Mutiko hura umezurtza zen baina bere gurasoak oso azkarrak izan behar ziren bere ere baitzen.

Esan dudanez mutiko hau umezurtza zen eta bere barruan hutsune oso handia sentitzen zuen; bere bizia ez zen espezialki dibertigarria. Jagek 11 urte zituen, ilea eguzkia bezalakoa zeukan eta begiak oso ederrak, itsaso garbi eta urdinaren modukoak; egia esan, mutiko ederra zen eta gainera oso zintzoa. Hala ere, beti barrezka bazebilen ere, nik badakit poztasun hori gutxitu egiten zela bere lagunak gurasoak agertzen zirenean. Bera, bere gurasotzakoekin bizi zen. Oso maitatua izan eta inoiz ezer faltatzen ez zitzaion arren, bazekien bere guraso biologikoak ez zirela eta horrek sarritan eramaten zuen imajinatzerara, amets egitera, ea zer ziren edo biologo edo abeslari edo kirolariak edo agian behartsuak, langabezian ito beharrean bizi zirenak.

Jag ez zen beste umezurtzak bezalakoa, ez. Bera eskolara joaten zen, bere bitxikeriak zituen. Oso ondo bizi zen baina egun batean Jagen zoritxarra heldu zen; anaiordea jaio zitzaion.

Hasieran ez zirudien gustura ez zegoenik baina negarrak geroago heldu ziren. Jagek alde batera uzten zutela nabarmentzen zuen eta aurreko opari eta atentzio guztiak desagertzen zihoazela.

Hala igaro zituen bi urte, bere gurasoen maitasuna desagertzen zihoala sentitzen zuelarik eta anaiordeak dena eskuratzen zuela ikusirik. Egoera horretan zegoela galdera hau pasatu zitzaion burutik:

–“Hau al da nik nahi dudan edo merezi dudan bizitza?”. Eta motxila hartuz etxetik alde egin zuen.

Kaleko mundua ez zen filmetakoa, ezta Jagek inoiz irudikatu zuena ere. Ez horixe, mundu hura gupidagabea, errukigabea, benetan gogorra zen, batez ere hamahiru urteko mutiko batentzat.

Bi hilabete pasatu ziren eta Jag indartsu egin zen, eta ez fisikoki soilik, baita mentalki ere. Bai, eguerdi euritsu eta hotz batean, kaletik zihoala erreflexionatzen hasi eta, “zer maite dut nik?” galdera egin zion bere buruari. Eta berekiko jarraitu zuen:

–“Niri inork ez dit ezer agintzen. Eta oraindik gehiago, badakit zerbait maite duzunean jo eta ke ekin behar diozula lortu arte”.

Une hartan andre nagusi bat ikusi zuen, berrogeita hamaika urte bat izango zituena. Bere aurrean geratu eta elkarri begira egon ziren une labur batez. Inoiz sentitu gabeko sentsazioek inguratzen zuten, alaitasunak, tristurak, jakin nahiak, zalantzak... Emakumeari begiratzen zion eta inoiz ikusi ez bazuen ere betidanik ezagutzen zuela sentitzen zuen. Ama izango ote zuen? Hori ezin jakin.

Emakumeak bere aldetik honakoa pentsatu zuen:

–“Gizajoa, nor izango ote da?, lastima ematen dit, zer egingo dut, zerbait erosi zuretzat ala etxera gonbidatu?, edo zergatik ez zurekin geratu eta egun on bat pasatu bion artean? Baina hori ez da bidezkoa. Etxera gonbidatuko dut”.

Etxera gonbidatu, baiezkoa jaso eta bien arteko elkarriketa zabaldu zen:

–“Lasai egon zaitezke nirekin. Afaria prestatuko dizut eta nahi izanez gero nire etxean gera zaitezke egun batzuetan. Bakarrik bizi naiz eta ez dut ez familia ez animaliarik. Zoritxarrez bakarrik bizitzea tokatu zait”.

Jagek honakoa pentsatu zuen berekiko:

–“Etxe ederra da hau, bai. Baina nor izango ote da andre hau? Nire ama aurkitu ote dut behingoz? Ez dakit baina bihotz oneko pertsona dela dirudi”.

Marianek, (honela deitzen zen emakumea), afaria prestatu zion. Jag hasieran egun batzuetarako geratzekoa bazen ere, amaieran egun haiek asteak bihurtu ziren eta asteak hilabeteak. Lotura estua sortu zen bien artean eta urteak igaro zituzten elkarrekin. Baina egun batean Jagek eskutitz misteriozua jaso zuen. Bidaltzaileak

ezkutuan mantendu nahi zuen bere izena baina mezua argia zen; ama bizirik zuela jakinaraztea eta semearen berri bazuela.

Jagek barruko estutasuna askatu ezinik Marianekin hitz egitea pentsatu zuen, bere kezkek azaltzea eta bere nortasuna argitzeko zuen beharrizan horretan laguntzeko eskatzea. Marianek erantzuna zuzena izan zen. Lotsatua baina poza gorde ezinik, ama bera zela argitu zion. Horren berri azken urtean izan zuela bere jatorriari buruz ikertzen hasi zenean hain zuzen ere. Aitak kendu omen zion familiaren izen ona ez zikintzearren herriaren aurrean eta adopzioan eman. Baina munduak mila buelta ematen dituenenez... ustekabeak edonon aurki daitezke, ala ez?



Beñat Zabaljauregui - DBH 2. maila

“Lagunekin gaztetxera joatea gustatzen zait eta euskara bihotzean dut”

NIRE AITONA MARIANO

1955eko Maiatzaren 4an nire aitona Mariano, egunero bezala, bere lantegira joan zen. Egia esan, ez dakit zertan egiten zuen lan, baina kontua da, bere nagusiari zerbait eskatzera zihoanean, jaitsi beharreko burdinazko eskaileretan oina trabatu eta buruarekin eta gorputzeko beste hainbat atalekin eskaileraren aurka kolpe hartuta hil egin zela. Edo behintzat hori esan didate.

Lehengo urtean, amonaren etxera, edo hobeto esanda, baserrira joan nintzen gurasoekin. Izeba Belenek, oso gutxitan joaten garenez, saloian, argazki bat ateratzea erabaki zuen. Nire gurasoak eta ni saloiko leihoaren aurrean jarri ginen. Nik nire betiko irribarrea jarri nuen, baina ez nekien norantz begiratu, begiak gelditu edukitzeko, orduan nik hainbeste miresten nuen hildako aitona-ren koadro handia ikusi nuen, nire aitona hantxe zegoen serio-serio, txapela buruan zuela.

Argazkia ateratzen zigun bitartean, koadroari begira egon nintzen eta denbora askoan bere ezpainei erreparatuz, konturatu nintzen zerbait esaten ari zela. Argazkia atera ondoren eta saloian ni bakarrik geratu nintzenean koadrorantz hurbildu nintzen. Aitonaren ezpainen ondoan nire belarria ipini eta hau ulertu nuen gutxi gora-behera:

–Etorri niregana nire heriotzako 47. urteurrenean (gertuen dagoena) eta jar itzazu zure eskuak nire txapelaren gainean *fuerte-fuerte* –esan zidan *aitonak*.

Nik, hasieran, ez nekien gertatzen ari zena sinistu edo ez, baina azkenean, bi aldiz pentsatu gabe, korrika hasi eta gurasoengana joan nintzen baina beraiek ez zidaten ezer ere sinestu eta uste zuten aitonaren hilketak zortutako irudiak zirela.

Zortzirak aldera, afaria bukatu eta etxera joan ginen. Nik ez nien gurasoei ezer esan eta ez nuen esateko asmorik ere. Handik bi hilabetetara, berriro ere, baserrira joan ginen eta “aitonak” lehengoan esandako guztia errepikatu zidan. Nik bere heriotzako 47. urteurrena iritsi baino lehen, egin beharreko galdera guztiak gurasoei egin nizkien, adibidez, ea aitonaren heriotzako 47. urteurrenean baserrira joango ginen amona bisitatzerara eta meza entzuterara. Beraiek, hasiera batean, ezezkoa eman zidaten, baina nik horretan tematu nintzenez, baietz esan zidaten. Hilabeteak pasatzen ziren, nire ustez gero eta mantsoago eta ezin nion nire aitonaz pentsatzeari utzi, ikastolan justu samar nenbilen baina nahiz eta hobetzen saiatu, ezin nuen, aitonaz pentsatzen ari nintzelako.



Maiatzaren 4a iritsi zen eta baserrira joateko ordua ere bai. Ni nire urduritasuna ezkutatzen saiatzen nintzen baina ez dakit lortu nuen. Gurasoek behin eta berriz galdetzen zidaten:

–Ondo al zaude, maitea? –Zer gertatzen zaizu?

Nik beti berdina erantzuten nien:

–Bai, ama, ondo nago. –Bai, aita, ondo nago.

Baina ez dakit sinisten zidaten. Bi orduko bidaia bukatu ondoren eta baserrira heldutakoan, amona eta izeba hantxe zeuden ate aurrean, gure zain, mukizapi zuri-zuriak zeuzkaten mezara eramateko. Ni gero eta urduriago nengoen, eskuak eta hankak dardarka neuzkan. Bazkaltzeko ordua iritsi zen, amonak makarroiak eta piper beteak prestatu zituen, oso onak zeuden, baina bazkaria nahiko isila izan zen, nik hau esan nuen arte:

–Amona, dagoeneko nire programa gogokoena hasita egongo da, utziko al zenidake saloira joaten? –Bai, noski, zoaz maitea.

Ni, korrika bizian saloira joan, atea itxi eta beldurak hartu aurretik aitona esandakoa egin nuen. Koadroa, hasieran, normal-normal zegoen, baina denbora pasa ahala haren erdian uhintxo batzuk agertu ziren. Nik beldurra nuen baina itxoiteko beharra sentitu nuen. Segundo batzuk pasatu ondoren nire aitona saloian zegoen eta koadroa berriz huts-hutsik. Momentu hartan, ez nekien zer esan eta bera izan zen hitz egin zuen lehenengoa.

–Nola deitzen zara, laztana? –Ni Amaia, eta zu aitona Mariano, ezta? –Bai, aitatxok esan dizu, ez al da hala? –Bai.

Nik ez nekien zer gehiago esan, oso lotsatuta bai nengoen. Berari, bat-batean, begiak, malkoz busti eta ni besarkatzera etorri zen. Ni, momentu hartan munduko biloba zoriontsuena sentitu nintzen eta nire besoekin ere inguratu nuen.

Momentu hartan amona, izeba eta gurasoen pausoak entzun genituen baina ezer egiteko denborarik gabe, hantxe geratu ginen batak bestea besarkatuz. Besteek atea ireki eta kafe eta pasta batzuekin sartu ziren, amonari eta izebari, kafeak erori eta nire gurasoei berriz pastak. Amonak momentu batean ematen zuen konortea galdu behar zuela, baina atzera erori zen, izebaren besoetara, guztiak ahoa erabat zabalik zuten. Aitonak eta nik besarkatzeari utzi genion eta besteei aukietan esertzeko esan genien. Hantxe hasi ginen gertatutakoa poliki-poliki eta modu ulergarrian kontaktzen. Beraiek, logikoa den bezala, ahoa zabalik zuten oraindik eta saiatzen ziren Mariano ahalik eta gutxien ukitzen.

Nik esaten nien aitona, orain, hezur eta haragizkoa zela, baina beraiek beldurturik jarraitzen zuten. Nik ez nekien zer egin, iruditzen zitzaidan aitona oso urduri zegoela baina ez nekien nola lasaitu. Aitonak, ahoa zabalduta eta hauxe esan zuen:

–Emazte maitea, ez al nauzu ezagutzen? Ez al duzu ikusten, ni, zure Mariano naizela?

Nire amona ez zegoen erabat konbentziturik, baina aitona arengana hurbiltzen hasi zen. Bazirudien besarkatzera zihoala, halaxe zen!! Segundo batzuk, horrela iraun zuten eta besarkada amaitzean eta amonaren aurpegia ikustean, antzeman nuen oso alai zegoela, baina bere begietan ulertezina nabaritu nuen, momentu hartan erabaki nuen, guztiak esertzeko eskatzeko eta dena argitzea. Oso zaila

egin zitzaidan egia esatea baina azkenean, halaxe egin nuen. Guztiak isilik geratu ziren, nire amona izan ezik, noski. Nire amonak guztia lehenengoan sinetsi zuen, gurasoek eta izebak ordea, oraindik ez zuten ahoa ezertarako ireki. Amonak hauxe esan zuen:

–Hau ospatzeko, zerbait egin behar dugu!! –esan zuen. –Konforme! –esan nuen nik.

Amona eta ni, sukaldera joan ginen pastak, kafea eta niretzat kola-kafo bat prestatzera. Biak saloira gindoazela, amonaren baserria eta hango ingurunea galdu egin nuen begi bistatik, orain ikastolan nago eta andereñoa deika ari zitzaidan, hauxe galdetzen:

–Zenbat da bi gehi zortzi hamabiren? –Eeeee...? –Galdera errepikatzea nahi al duzu? –Ez, ez lasai... hogeita hamabi hamabiren eta sinplifikatuta zortzi hiruren, ezta? –Ba... bai, oso ondo!

Ni, erabat harriturik nengoen eduki nuen ametsarengatik. Arratsaldeko 17:00etan puntu-puntu ikastolatik etxera joan eta larunbatean amonaren baserrira joan nahi nuela esan nien gurasoei. Beraiek harriturik geratu ziren, ez bainien inoiz halakorik eskatu, baina bi aldiz pentsatu gabe, baietz esan zidaten. Tira ba, iritsi zen larunbata eta baserrirako bidea hartu genuen, iristean han bazkaldu, oraingoan lekak eta arrautza frijitua txorizo eta patatekin. Han betiko pertsonak geunden: amona, izeba, gurasoak eta ni. Aitona ordea ez zegoen. Niri beraren koadroa ikusteko gogoia sartu zitzaidan, saloira joan eta bere koadroaren parean jarri nintzen eta ametsean esandakoa egin nuen, aitona ordea ez zen irten koadrotik. Minutu batzuk bere ezpainak begiratzen egon nintzen, ez dakit zergatik baina orain, bere aurpegia edo hobeto esanda ahoko espresioa, alaiagoa zela ematen zuen. Egia esan, oso harriturik geratu nintzen. Gurasoak deika ari zitzaizkidan eta azkenik nire aitonari begietara begiratu eta eskuineko begiarekin keinu egin zidan eta malko bat erori zitzaion, nik orduan musu bat eman nion eta malkoa lehortu nion, eskuarekin agurtu eta bisita gehiago egingo nizkiola esan nion. Azkenik sarrerako atera joan, amona eta izeba besarkatu eta baserria begi bistatik galdua nuenean, aurrera begiratu, ondo eseri eta autoan lo hartu nuen.

Gaur egun askotan edo behintzat gehiagotan joaten gara baserrira eta nik aulki bat hartu, aitonaren koadro parean eseri eta nire kontuak kontatzen dizkiot.

Orain eskolan hobeto nabil eta ni neu ere, lasaiago sentitzen naiz.



Ainhoa Goitia - DBH 2. maila

SURF ARRATSALDEA

Urriko egun eder baten, Lagako hondartzan, lekuko surflari gazte bat lagunekin surfean ari zen. Laga, Ogoño behean dagoen Ibarrangeluko hondartza da; hondartza benetan ederra, surfean aritzeko olatu aproposaldukin, bai ezker olatuak eta baita eskuin olatuak ere. Surflariak, Beñat zuen izena; hamasei urteko mutil alaia zen. Ilehoraila eta begi marroiduna bera. Elantxobetarra zen eta naturarekin harremanean egotea gustatzen zitzaion; baina munduan gustukoaren zuen gauza, surfa zen dudarik gabe.

Arratsaldeko bostak inguru ziren lagunekin surfean ari zen egun hartan; olatu nahiko handiak eta oso indartsuak zeuden, laupabost metrokoak. Ura hamalau gradutan zegoen, beraz, danak zeuden neoprenoz jantziak. Giro oso ona zuten lagunaren artean; lau lagun ziren guztira, baina beraien ondean beste hirukote bat zebilen surfean. Dena oso ondo zihoan; barre batzuk egin, olatuak hartu... baina bapatean, Beñat korronte batean harrapatuta zegoela konturatu zen. Berak bazekien zer egin behar zuen horrelakoetan; korrontea jarraitu eta albo baterantza joan,

olatu batekin hondartzara irteteko. Askotan egina zuen hura, baina korronea oso gogorra zen. Azkenean lortu zuen albo batera irtetea, olaturen bati itxaroten gelditu zen uretatik irtetzeko. Halako batean, olatu oso handi bat suertatu zen, Beñatek ez zuen ikusi eta izugarrizko iraulaldia eman zion. Bere taulak indar handiaz, burua kolpatu zion. Beñat zorabiatuta sentitzen hasia zen eta konortea galdu zuen.

Esnatu zenean, arroka multzo baten gainean botata zegoen. Taula alboan zeukan, oraindik hankara lotuta baina punta hautsita. Aurrera begiratu eta irla bat ikusi zuen bera zegoen harkaitzetik lau metrotara. Irlak seirehun-zazpirehun metro inguru zituela luzeeran kalkulatu zuen. Beñati ezaguna egiten citación ingurua; bere bueltan begiratu eta hara non ikusi zituen Ogoño, Laga, Laida, Matxitxako, Mundaka... hau da, kostaldeko hondartza, herri eta guztia. Orduan jakin zuen non zegoen; Izaroko irlan. Bi aldiz pentsatu gabe, taula gainean jarri eta arraunean itsasertzera heldu zen. Taula albo batean utzi eta irlara zailtasun gabe igo zen. Bere aitona txikitan hitz egin zion Izarori buruz. Antzina, fraileen konbentu bat zegoen eta marinela bertatik pasatzean, jatekoa etb. ematen zieten bizitzeko. Baina Francis Drake jaunak konbentu hura erre egin zuen. Beñat, uhartetik pasatzen hasi zen ikertzeko, eta gunerik altu eta zabalenean konbentu errearen hondarrak ikusi zituen.

Hondarretara gerturatu zen, ortu antzeko gune berde eta txiki bat ikusi zuen. Untxiak zebiltzan handik korrikan alde batetik bestera. Harri kontrako kolpeen zarata ere entzuten zuen. Urduritzen hasia zen, giro arraroa zegoen bere inguruan. Egari eta gose zenez, ortura hurbildu eta bertatik barazki batzuk hartu zituen; eskuaz igurtziz, zikinkeria apur bat kendu zien eta gustura jan zituen.

Harri tartera joan eta zulo bat zegoela iruditu zitzaion; ez zen ohikoa baina zerbait handia ikusi zuen mugimenduan zulo hartan. Harritxoak botatzen hasi zen zerbait irtetzen ikusteko esperantzaz; baina ezer irtetzen ez zenez, barrura sartu zen. Zulo hura pasabide bat zen, eta hamar metro karratu inguruko gela batean amaitzen zen. Gela hartan, untxien larruak, hildako untxiak, hezurak, harriz eginiko tresnak eta halako gauzak zeuden. Kobazulo hark, troglodita baten etxea zirudien. Susto ederra hartu zuen Beñatek harri handi baten atzean gizaki bat ikustean. Gizaki hura, mutila zen, untxien larruarekin jantzia zihoan, azala lokatzaz zikindua zuen, ile luze eta zaindu gabea, begi marroi ilunak eta Beñati arraroa iruditu zitzaiona; urrezko gurutze bat zeraman lepotik zintzilik.

Mutilarengana hurbildu, bere alboan eseri, eta hizketan hasi zitzaion. Beñatek bere burua aurkeztu zuen eta gertatu zitzaiona azaldu zion. Ordu bete inguru pasa ondoren, mutilak izenik ez zuela esan zion, eta irakurtzen eta idazten ez zekiela. Mutilak, lurreko harea eskuez nahastu, liburu bat atera eta Beñati eman zion. Latinez idatzia zegoen; zortez, Beñat institutuan Latina ikasten hasia zen. Ez zuen dena ulertzen baina zertxobait bai. Liburu hura, ez zen arrunta, fraileen egunerokoa zen. Bertan kontatzen zuen mutila nola heldu zen Izaro irlara eta nor zen. Emakume gazte, ez kondugabe eta aberats baten semea zen eta Julian zuen izena. Emakume hark bere semea fraileen esku utzi zuen bere izena ez zikintzea-

rren. Mutilari bere izena zein zen eta nondik zetorren azaldu zion Beñatek. Hau, asko poztu zen hori jakitean.

Zerbait gehiago erakutsi nahi zionean, zarata arraroak entzuten hasi ziren, sabaietik harriak erortzen ziren, lurra mugitzen zen, dena ilunpean gelditu zen eta Beñatek bere izena entzuten zuen alde guztietatik ahots ezagunekin. Juliani begiratu zion baina ez zuen topatzen, itotzen ari balitz bezala sentitzen zen ezin zuen arnasik hartu eta dena ilun zegoen.

Orduan izan zen ahora ura etorri zitzaionean, bulkada batekin kanporatu zuen ura eta eztulka hasi zen. Begiak ireki eta handik une batera bere lagunak ikusi zituen inguruan. Ez zekien oso ondo non zegoen, baina ingurura begiratu eta laster jakin zuen Lagako itsasertzean zegoela. Apur batean pentsatzen gelditu, eta jakin zuen Izarokoa ez zela benetan gertatu eta olatuagatik galdu zuela konortea. Lagunak kezkatu zituen bere onera bueltatzen ikusi zuten arte. Arratsalde hartakoa susto galanta izan zen baina Beñatek ez zuen inondik inora surfa utzi.



Amaia Naberan - DBH 2. maila

ZORIONTASUNAREN ETA OSASUNAREN XARABEA

Orain dela urte asko, nire familia kinka larrietan bizi zenean gertatu zitzaidan istorioa kontatuko dizuet, gaur egun 41 urte ditudanean gogoratzen dudana.

Nire eskua, bere bekokiaren gainean jarri nuen, eta eskua infernuan egongo balitz bezala sentitu nuen. Han zegoen Borja, nire neba, etzanda, mundua gainera erori balitzaio bezala. Neba horrela ikustean oso sentsazio arraroa izan nuen nire gorputz barnean, nola esan... "Titanic" pelikula famatuan mutila itotzen denean sentitzen duzun sentsazio penagarri, latz eta estua sentitu nuen.

Ama negarrez ikusi nuen, desesperatuta, eta aita azokan porru eta tomate batzuk saltzen neba sendatzeko xarabea erosi ahal izateko. Oso momentu latzak ziren haiek gure familiarentzat, ez geneukan dirurik, amona ospitalean zegoen eta

neba gaixorik... Zerbait egin beharrean nengoen, ez nuen nire familia itsasoan ondoratzen den itsasontzi bihurtzerik nahi.

Amak zerbait sumatu zuen nigan, nolabait esateko nire ardura, nire urduritazuna, eta honela esan zidan:

–Laztana, ez kezkatu, aurrera aterako gara, suerte txarra itsasargiaren modukoa da, bai –entzuten jarraitu nuen, hobeto ulertzeko–, begira, batzuetan argiak gu argitzen gaitu eta beste batzuetan besteak argitzen ditu... ba orain, zoritxarrez argi horrek gu argitu gaitu eta itsasargiak horrela jarraituko du bueltaka eta bueltaka. Baina argi horrek, zoriona ere ekartzen du, eta ikusiko duzu, nola zorionaren argiak laster argituko gaituen–. Hitz haiek oso politak eta era berean tristek iruditu zitzaizkidan, baina amari besarkada itzela eman eta buruaz baietz egin nion.

Lehen ez naiz aurkeztu, hain arduratuta nengoen nire nebarekin ze, ahaztu egin zait. Ni Lierni naiz, 11 urteko neska, ezin esan oso polita naizenik amonaren lagun kuxkuxeroek kontrakoa esan arren. Ile marroia dut eta nire amaren esanetan begien orde, bi ikatz txiki dauzkat aurpegian. Neba baino nagusiagoa naiz, baina hura bezain altua eta bere moduan masail gorrikoa. Antz handia dugula esaten du jendeak baina nire ustez ez daukagu batere antzik.

Etxean sei gara; ama, aita, amona, neba, Polo txakurra eta ni neu. Etxea ez da oso handia, daukagun diruarekin ezin handiagorik erosi, baina oso gustura bizi naiz bertan. Etxea Griki herrian kokatzen den baserri xume bat da, bertan behiak eraitsi, uzta zaindu, belarra ebaki eta halako gauzak egiten ditugu. Aitak traktore zahar bat dauka eta berarekin joaten da astelehenero azokara dirua lortzera, gu bitartean etxeko lanak eta nebaren ardura hartzen gelditzen gara.

Hemen hasten da benetako abentura. Egunsentiko eguzki izpiek nire aurpegia laztandu zuten, inguruko zelai, mendi eta etxe guztiak kolore beroekin jantziz:

–Kukurrukuuuuuuuuuuuu!!! –egiten zuen gure oilarrak denok iratzarri gintzen–. Begiak zabaldu eta goizeko 8:30ak zirela konturatzean, jaiki, arropa zahar zarpailduak jantzi eta Fermina behia eraistera joan nintzen, ondoren esne hura gosaritan zerbitzatzeko asmoz. Ukuiluan sartu nintzen eta hantxe aurkitu nuen Fermina behi indartsu eta handia, bere azal lodi eta kolore argi miatzatzen.

Ukuiluko lanak bukatu ostean, gosaria zerbitzatzera jo nuen, eta amak esan zidan:

–Lierni, aitak eta biok ospitalera joan behar dugu amonarengana, eta noski Borja izekorengana eramango dugu hark zaindu dezan, –jarraitu egin zuen– hortaz, bakarrik geldituko zara, eta etxeko lanak egin beharko dituzu. –Baietz esan nion buruarekin–.

Ama, aita eta neba urruntzen ikusi nituenean, lanean hasi nintzen; patatak atera, abereei jatekoa eman, lurra jorratu, arropa garbitu, plantxatu eta eskegi... hori guztia egin ostean, ezereztuta sentitu nintzen, lore zimeldu bat bezala, hortaz, bazkaldu eta lo–kuluxka botatzea erabaki nuen.

Lo-kuluxkaren ostean, indarberrituta sentitu nintzen, baina begiak ireki nituenean... Beste mundu batean nengoen!!! Ez nengoen nire baserri kuttunean, ez nengoen sofan etzanda, ez zen nire ukuilua ikusten, baizik eta paisaia zoragarri bat, bai-bai, dena zen paregabea eguzki distiratsuak bere kolore ederrekin dena argitzen zuen, txoriak kantu alaiekin ingurua pozten zuten eta haizearekin belarrek dantza egiten zuten zuhaitzek lagunduta. Harrituta nengoen, paradisua ote? Ur-jauzi batera hurbildu nintzen, bertatik erortzen ziren diamante urtu, garden eta freskoekin aurpegia garbitzeko.

Bat-batean, hara non ikusten dudan Polo txakurra korrika nireganantz bere mihi adurtsuarekin nire aurpegia miatzkatuz.

Polok eta nik bideari ekin genion zelai ederretatik barrena, momentu horietan ipuinetako printzesen moduan sentitzen nintzen, poz ikaragarria neukan bihotz barnean eta begiek bi eguzkik bezala dirdira egiten zidaten, gainera Polo nirekin nuela jakiteak lasaitu egiten ninduen. Bidean asko ibili ostean, andere bat aurkitu genuen eta ez zen harritu gu han ikusteaz, alderantziz, hauxe esan zigun:

–Azkenean! Heldu zarete, zenbat denbora egon garen zuek itxaroten.

Gutziz harrituta begiratu genion eta pixka bat beldurturik hauxe erantzun nion:

–Guri itxaroten? Zertarako? Beste norbaitekin nahasi gaituzula uste dut, gu baserri xume batetik gatoz –nola etorri ginen ere ez nekien arren– eta ez gara inoiz hemen izan.

Andereari orduan, barretxo moduko bat marraztu zitzaion aurpegian eta hauxe esan zigun:


–Zuk neskato, entzunda daukat neba gaixo duzula eta ez duzuela diru nahikorik xarabea erosteko ez da egia? –harrituta baietz erantzun nion buruaz– horregatik zaudete hemen zu eta zure txakurra, nebak behar duen xarabea lortzeko, baina oso zail suertatuko zaizue, arrisku eta abentura asko pasa behar izango dituzue. –Andere hark beldurtu egin gintuen, baina ahal zen guztia egingo nuen nebak zuen zorigaitza sendatzeagatik; hamar itsaso zeharkatu, piratekin borrokatu, dragoi bat zirikatu... fantasia larregi pentsatzen hasi nintzen momentu horretan, horregatik “errealitatean” zentratu nintzen.

Andreak, etxe batera gidatu gintuen, hura zaharra zen, baina oso polita; inguru odolezko loreek inguratzen zuten era berean usain paregabea zabalduz, etxea harrizkoa zen eta horrek ukitu berezia ematen zion, sarrerako atearen ezkerrean ur garden eta distiratsua botatzen zuen iturri eder eta handi bat zegoen. Atean, egurrez eginiko plaka batean, nahiz eta nekez irakurri “Maitasunerako bidean” zegoela jarrita konturatu nintzen. Ni eta andere hura (izena ere ez nion galdetu) etxe barrura pasa ginen, bitartean Polo lorategian geratu zen belarretan etzanda siesta botatzen.

Barruan, gizon bat zegoen, oso zaharra zena eta nekatuta zegoela ematen zuen. Gu ikusi bezain laster, kostata baina jaiki eta esan zidan:

–Kaixo Lierni –pertsona bitxi hauek igarleak zirela ematen zuen–, ni Txomin naiz, Jazintaren gizona –orduan konturatu nintzen andere haren izena Jazinta zela– badakit zergatik zauden hemen, eta horri buruz hitz egin nahi dizut. –Hori esan ostean, eseri egin zen eta Jazintak esanda nik ere gauza bera egin nuen. Jazinta eta Txominekin hitz egiten jarraitu nuen eta esan zidaten xarabea ez nuela bete betean aurkituko, xarabearen osagaiak aurkitu eta nahastu egin beharko nituela esan zidaten.

Orduan, nik oso lan erreza izango zela pentsatu nuen, baina xarabearen osagaien zerrenda eman zidatenean... Erabat birrindu nintzen, itsasoak arez egitako gazteluak birrintzen dituen moduan. Izenburutzat “Zoriontasun eta osasunaren xarabea” zeukan idatzita eta bertako osagaiak hauexek ziren:



Horiek irakurrita ezinezko lana zela iruditu zitzaidan, eta azkeneko osagaia irakurtzean oraindik zailagoa zela konturatu nintzen.

Txomini esan nion, osagai haiek aurkitzea ezinezkoa zela, zeren eta osagai gehienak ikusezinak ziren aberastasuna izan ezik, baina halere, gu ez ginela aberatsak esan nion Txomini, honek hauxe esan zidan:

–Lierni, gogoratu oraintxe esango dizudana. Zuk esan didazu ez zaretela aberatsak, baina nahiz eta konturatu

ez, oso aberatsak zarete –txundituta geratu nintzen ez niolako ulertzen– ondoren hauxe esan zidan:

–Maitasuna etab ezin direla ikusi esan didazu, baina gogoratu, sinesteko ez dela ikusi behar, ikusteko sinetsi egin behar dela baizik.

Ez nion oso ondo ulertu, denborarekin ulertuko nuela pentsatu nuen.

Ez nengoen konforme, zeren nik laguntza beharko nuen Poloz aparte osagai haiek aurkitzeko, horregatik, nirekin etortzeko erregutu nien. Alferrikakoa izan zen, ezin zirela nirekin etorri esan eta esan hasi zitzaizkidan, aterantz jo nuen etxetik irteteko esperantzarekin, eta irteteko nengoenean hauxe esan zidan Jazintak:

–Lierni, gu beti egongo gara zure ondoan, begira, zerua lainotuta dagoenean eta eguzkia ez denean ikusten, ez du esan nahi eguzkia desagertu edo ez dagoela. Horixe bera gertatuko zaizu zuri, ez gaituzu ikusiko, baina beti egongo gara hor, zure ondoan. –Hitz horiek ziurtasuna eman zidaten, eta nire bihotzean sentimendu asko korapilatu ziren; beldurra, poza, adorea... baina bihotzaren alderik sakonean, ilunenean argitxo bat sentitzen nuen, itxaropenaren argia.

Hitz haiek entzun ondoren, eskerrak eman nizkien bi pertsona on haiei, eta xarabearen osagaiak aurkitu bezain laster itzuliko nintzela esan nien.

ezta amona ere salbatu. Negarrez hasi nintzen, imajinatzen nuen ze txarto egongo ziren familiakoak eta ni hemen ezer egin ahal izan gabe. Horrela nengoela, gizon zahar bat hurbildu zitzaidan, ikara handia hartu nuen, ia-ia bihotza eta gorputz barneko organo guztiak ahotik irten zitzaizkidan. Oso beldurtuta nengoen arren haxe erantzun nion:

–Z-z-z-z-z-zu nor zara?

Ez zidan erantzunik eman, baizik eta beste galdera bat bota zidan:

–Zer duzu horrela negarrez egoteko?

Nik dena kontatu nion, hasieratik amaieraraino, eta berak barre egin zuen. Oso amorratuta sentitu nintzen, ni nengoen egoeran ikusi eta barre? Zaplazteko bat emateko gogoia sartu zitzaidan, baina aurreratu eta hitz egiten hasi zitzaidan:

–Zuk neskato, benetan uste al duzu maitasuna... materia egoeran aurkituko dituzula? –baietz erantzun nion– hori ez da horrela neska, begira gauza bat esango dizut (eta esan zidana idatziko dut):

Maitasuna era askotara adieraz daiteke:

– Muxu bat emanaz

– Maite zaitut esanez

– Besarkada bat emanaz...

Elkartasuna ere era askotara adieraz daiteke:

– Zereginetan lagunduz

– Momentu on eta txarrak batera gaindituz

– Batuta egonez

Poztasuna ere oso erraz adieraz daiteke:

– Irribarre batean poztasun ikaragarria dago

– Dibertituz

– Une zailetan ere positibo jokatzuz

– Momentu berezietan elkarrekin egonaz

– Aberastasuna zer esanik ez:

Aberatsa modu askotara izan liteke eta zuek bazarete; familia duzue, asko maite duzue elkar, gutxiarekin konforme zaudete... hori aberatsa izatea da.

Horrela xaraberik ez zela existitzen konturatu nintzen, xarabea hori guztia betetzea zela baizik.

Azkenik Jazinta eta Txominen etxera joan nintzen agureari eskerrak eman ostean. Bikoteak, (Jazintak eta Txominek) esan zidan jada banekiela zein zen sendagaia eta nire mundura itzultzeko garaia zela, Jazintak eskua hartu zidan eta esan zuenez pozaren zintzilikario bat eman zidan.

Muxu, eta besarkada asko banatu nituen joan baino lehen, baita negar malkoren bat ere, Polo ere antza penatuta zegoen, baina era berean pozik jende guzti

hari esker gauza asko ikasi genituelako eta baita laster familiarekin elkartuko ginelako.

Bat-batean begiak zabaldu eta berriro nire baserrian nengoen... han zeuden nik bazkaldu ostean utzi nituen plater zikinak, ogia etab...

Pozik eta era berean triste sentitu nintzen mundu zoragari hura alde batera utzi nuelako, baina... ametsa izan ote zen?

Hori jakiteko nire eskurantz gidatu nuen begirada beldurrez, urduri eta astiro-astiro. Ez zen ametsa izan ze nire eskuan irribarre forma zuen zilarrezko zintzilikarioa ikusi nuen. Zeharo poztu nintzen, bidaia hau Polo eta nire arteko sekretua izango zen.

Orain, hogeita hamar urte geroago istorio hau gogoratzen dut eta ez zait inoiz ahaztuko, Polo nire txakurra zenaren eta nire arteko sekretua. Badakit zein galdera dabilen zuen buruetan... salbatu ote ziren Borja eta amona? Bai, biak salbatu ziren mundu magiko horretan errezetatutako xarabeari esker.

Nire bizitzako abenturarik zirraragarriena izan zen, horren erakusle nire lepoan eskegita daramadan zintzilikarioa.



Maitane Erleaga Aranas - DBH 3. maila

“Barkamenik gabe ez dago aurrera egiterik”

BARKAMENAREN MUGA PASAEZINAK



Oraindik gogoratzen dut Seber Altube ikastolan izan nuen lehen eguna, zorigaiztoko egun hura, orduantxe ohartu nintzen nola maite nuen nire jaioterra, bertako bizitza, jabetzen ez nintzen kontuez jabetu nintzen, hainbat kexu nituen, bai, baina pozik bizi nintzen, diruak ez baitu poztasuna erosten; momentu hartan argi geratu zitzaidan gauza bat da hori.

Almikeko etxean egin nituen lehen loaldi guztietan, gauza berberarekin egin nuen amets, Arratzuko herria biziki maite nuela zen amets guztien amaieran ohartzen nintzena.

Herritik aldatu beharra eta herri hartan izan nuen sarrerak, bizitzan aurrera jarraitzeko indar asko kendu zizkidan, nire neba-arrebak ziren ni uler ninduketean baka-
retarikoak eta hauek nire toki berdinean aurkitzen zirelako bestela..., munduan

aurrera joan beharrari uko egingo niokeen; jendearen begirada maltzurrek, denbora guztian atzean zurrumurru bat edukitzeak, gurasoak ia ez ikusteak... hilik utzi ninduten, egia esan Almike herriko lehen egunetan dezentetan galdetzen nintzen “zertarako bizi bizitza maltzur honetan?” Baina galdera horrentzako erantzuna ere aurkitzen nuen: neba-arrebak, hauengatik izan ez balitz...

Nire jaiotzatik nire hamalau urteetara arte Arratzun bizia izan naiz nire bi neba-arrebekin eta nire gurasoekin; lagun ugari nituen bertan, asko maite nituen eta beraiek neu ere bai. Herri txikia zen hura eta denek zuten berri azkar herrian gertatzen zen guztiaz; hori dela eta; senideen arteko harremana oso ona zen familia guztietan, baita neurean ere. Gurasoak laguntzat ere banituen eta dena konta niezaiekeen, bazeuden betiko gezurtxoak baina horietaz aparte herri alaiak zen eta ez zegoen inor txarto onartua, lagun-arte goxoan egoten ginen denok.

Arratzuk, nahiz eta esan dudan moduan bizitzeko toki izugarria izan, bazuen bere kontrako gauza bat, herri txikia zela eta horren ondorioz beharlekurik ez zegoela, gehienek herritik kanpo egiten zutela behar. Gu, familian, bost pertsona ginen eta familia mantentzeko egoera nahiko onean egoteko diru gehixeago behar genuen; orduan nire amak beste herri batean beharlekua aurkitzean bertara joan beharra izan genuen, bizitzeko toki zoragarriaz gain dirua era behar baita. Beste herri hori Almike herria da. Amak bertara gindoazela bizitzera esatean triste jarri ginen Arratzu faltan botako genuela-eta baina hala eta guztiz ere gogoz hartu genuen bizitza berri bat hasteko esperantza hura. Joango ginen Arratzura bisita ugari egitera eta asteburu ugari pasako genituen ere hori dela eta lagun berriak egiteko eta gainera diruz ondo bizitzeko nire gurasoen erabakiari ez genion uko egin eta pozik joan ginen bizitza berrirantz.

Iraila zen eta jada etxe berrian sartuak geunden, laster hasiko ginen ikastolara eta laster ezagutuko genituen nire neba-arrebek eta nik gure lagun berriak, baina gauza bat argi genuena zen, gu hirurok beti egongo ginela batera hiruron bizitza jada ondo sartua egon arte herri berri hartan, baina hirurotako inork ez zuen espero gertatzera zihoana gertatuko zenik, gure poztasun guztiak gainbehera erortzeko zorian zeuden.

Irailak 7, Seber Altube ikastolara joan nintzen lehen eguna, bizitza hau nola den benetan ohartu nintzen eguna, txikitan gurasoek esaten eta erakusten digutena beste era batera dela ohartu nintzen; pertsona atsegina izateak ala ez, ez duela zer ikusirik zurekin atsegina izateak ala ez, hori da niri erakutsi zidatena lehen klase egunean. Egun hura nola joan zitzaidan kontatuko dizuet.

Goizetik iratzarri ginen hiru neba-arrebok eta ikastolara heltzen lehenengo-tarikoak izan ginen, txirrinak jo arte hirurok batera egon ginen gero bakoitza bere gelara joan zelarik. Nik atzeko partean hartu nuen jesarlekua ez baitzait gustatzen andereñoaren aurrealdean egotea. Bat-batean mutil bat etorri zitzaidan nire lekutik zutuntzeko aginduz eta aurrealdean jesartzeko esanez. Hasieran ezetza eman nion. Ez zitzaidan iruditzen hori egitea normala zenik-eta baina klase guztia zarataka hasi zitzaidan leku hori Asierri utz niezaion. Hori dela eta, azkenik, utzi

egin behar izan nion. Andereñoa jada gelan zegoen eta nire aurkezpena egin zuen, honen aurrean inork ez zuen nireganako portaera zakarra erakutsi, Asier sartu zenean eduki zuten portaera hura ez behintzat! Momentu batean fotokopia batzuen bila joan zen Iratxe andereñoa eta gelakideak paperak botatzen hasi zitzaizkidan, lehen egunetik egin zuten paktua neu ez nendin beraien taldetxoan sar. Egoera hori jasangaitza egin zitzaidan, zergatia bilatu nahi nion eta ez nuen aurkitzen, onena beraiei galdetzea zela bururatu zitzaidan eta hala egin nuen. Beraien erantzuna oso garbia izan zen. Beraiena ez, Asierrena hobeki esanda; denek egiten baitzuten hark esandakoa.

–Ikastola honetan ez dugu nahi zu bezalako ume mokorik gurasoek dena onartzen dizutela-eta, ez etorri hona zeure bizitza ona guri aurpegiaren aurretik pasatzera. Joan etorri zaren bidetik, ea ospa egiten duzun denbora pasatzearen beharra eduki gabe. –Asierrek garbi utzi zizkidan gauzak baina ez nuen beraren hitzei amen egiteko esperantzarik.

Klaseko egun hori bi ordukoa bakarrik izan zen baina ordutik aurrera gauzak nolakoak izango ziren jakiteko denbora nahiko izan zen.

Etxean, klasea amaitu eta gero hiru neba-arrebok bazkaltzen geundela denok geunden arraro samar baina ez geunden besteengatik kezkatzeko moduan eta inork ez zuen egien hain atsegin egingo zitzaidan galdera hura neuk egin nuen arte.

–Aurpegi arraroa duzue, zer gertatu zaizue ikastolan horrela egoteko?

Beraien erantzunak niri gertatu zitzaidana gogoratzen zidan, neuk ere nire partea kontatu nien eta aurre egin behar genuela erabaki genuen nahiz eta energia guztiak ahiturik eduki. Gure beste erabaki bat gurasoei ezer ez esatea izan zen zail egingo zitzaigun arren, beraienganako izugarrizko konfiantza baikeneukan lehen esan dudan legez, baina ez genion beraien poz hari muga jarri nahi, denbora pixka bat pasatu artean ez behintzat, Legarra neba-arrebok aurrera ateratzea lortuko genuen eta, esperientzia horren ondorioz inor baztertu gabe.

Gure bizitza berriko bigarren eguna heldu zitzaigun, ikastolara joateko ordua zen eta inork ez gintuela gaitzetsiko genuen helburu gisa egun horretan. Ikastolako atetik sartzen geundela begirada ilun asko nabaritu genituen, baina guk kontrara egin genuen, nahiz eta alai asko ez egon hori zioten begiradak botatzen genituen. Beraien nahia betetzeko ez geunden prest eta argi geneukan lehen egunetan egiten genuenaz izango ginela ezagun era batera edo bestera eta soka txikiegia geneukan guk nahi genuen aldera igarotzeko.

Egunak aurrerantz zihoazen eta gure esperantzak zulo hartatik ateratzekoak atzerantz, soka hura apurtzera zihoan eta ausartarenak eginez ezer ez genuela lortuko ohartu ginen, orduan barruan geneukan tristura ateratzea erabaki genuen, baina ez beraiek irabazle gisa utziz, baizik eta beraiek hunkituz, gure egoera zeharka azalduz kontura zitezen nola portatzen ari ziren gurekin, errurik ez zuten pertsona batzuekin, lagun gisa hartu bagintuzte nolako lagunak izango zituzten erakutsirik. Momentu hartan aurkitu genituen ikastola hartan arteragoko urtean

sartu ziren hiru-lau lagun. Hasieran hauek ere mesprezu egiten ziguten orduantxe aurkitu baitzuten aukera beraiek ere lider bihurtzeko. Guk azaldu genien bakoitzak gustuko ez duena besteek ere ez dutela oso gustuko izango eta gu elkartuz gero gauzak aldatzen hasiko zirela.

Arrazoi izan genuen esan genien guztian ordutik aurrera gauzak aldatzen hasi baitziren, ez genuen beraien lagunak izatea lortu ez ezer baina gutxienez bage-neukan lagun-talde bat denon artean ondo konpontzen ginena, nire ustetan denak ziren atseginak eta izan ez balira ere inork ez zuen baztertua izatea merezi, baina argi geneukan gauza bat da sufriarazi zigutena sufriaraziko genuela, elkartzen hasi ginenean egin genuen lehenengotariko paktua izan zen.

Klaseetan bazterturik jarraitzen genuen baina ez genion garrantzirik ematen, nahiago genuen bakarrik egon beraien lagun-taldean egon baino, egia esan, denbora pasatuz zihoala bakar batzuk izaten ziren mesprezu egiten zigutenak Asier nagusiki eta berak esaten zuten guztia egiten zuten Andonik eta Aritzek, baina besteek ere ez ziguten aurpegia ateratzen, nik ez nien beraiei errurik botatzen; banekien beraientzako hura zela normala eta bakoitzak ikasia zuen besteengatik aurpegia ateraz gero..., ez zegoela ezer onik bakoitzarentzat.

Lagun-taldearekin zapatu-domekak hoberenak izaten ziren; alde batera uzten genituen ikastolako lagunak (nolabait deitzeko) eta martxa ederra hartzen genuen, lagun ugari egiten hasi ginen jendea gu ezagutzen hasi baitzen eta ez orain dela gutxi etorritako nazkagarri bat bezala. Zapatuetakoa martxak herri horrekin biziki lotu ninduen!

Zapatuetako lagun haiekin aste egunetan ere elkartzen hasi ginen lagun-min bihurtu arte eta orduan izan zen klaseko arazoa kontatzeko garaia. Denak geratu ziren ahozabalik zerbait egin behar zutela pentsatuz. Beraiek ederki ezagutzen zuten Asier, beraientzat tipo jatorra zen, nahiz eta ezagutu bere alde hori lehenagotik ere, norbaiten kontra zegoenean bazekiten bizitza jasangaitz bihurtzen ziola, baina hori normalean zerbait egin ziotenei egiten zien bana guk zein ikastola hartako edozein ikasle barrik ez genuen ezeren errurik, orduan Asierrekin hitz egingo zutela esan ziguten eta konponduko zutela kontu hura!

Gauzak horrela zeudela, hurrengo egunean, zapatuan, jai-giroan genbiltzala, gure lagun-taldea Asierren lagun-taldetxoarekin gurutzatu zen. Hau eta Beñat ezagunak ziren eta hitz egiten geratu ziren pixka batean; bat-batean Asierrek anaiok ikusi gintuen eta ea zer egiten genuen bertan galdezka aritu zitzaigun, guk ohi bezala kasurik ez eta gure martxa jarraitu genuen. Hortik aurrerako guztia Beñatek egin zuen.

Lehendabizi Beñatek, ezer jakingo ez balu bezala jokatu zuen aurkezpenak eginez. Hura izan zen Asierrri geratu zitzaion aurpegia! Gaiztoa da esatea baina biziki ondo sentitu nintzen. Berehala Beñat zer gertatzen zitzaion galdezka hasi zen barrea jasangaitz egin zitzaion arte, orduan Asierrek jarrera arraro xamarra izan zuen inork espero ez zezakeena; ongi zegoela esan eta ospa egin zuen leku hartatik.

Astelehena zen, ikastolara joateko eguna eta urduritasunak gainez egingo zidala uste nuen, gau guztia eman nuen Asier zer pentsatzen egongo ote zen igarri nahian. Klaseko txirrina jotzear zegoen eta ni jada nire jesarlekuan nengoen jendea noiz etorriko zain, nik nahi izan nuen pertsona hura atetik sartzen ikusi arte, orduan burua jaitsi nuen. Erregu egitea zen geratzen zitzaidan bakarra, gutxienez soka handiagoa nuen klaseko situazio nazkagarri hartatik ateratzeko

–Zurekin hitz egin nahi dut klase bukaeran, Beñatek pare bat gauza esan baitzikit.

Asierren hitzak ziren haiek, asunto hura bi aldetara joan zitekeen hitz haien ondorioz, nik nahi nuen aldera edo alderantzizkora. Ez dakit inoiz klase hura baino luzeagorik eduki dudan, baina bukaera iritsi zitzaion bukaezin zirudienari eta eserita geratu nintzen norbait nire bila hurbil zedin zain.

Iritsi zitzaidan berba egiteko unea eta horrela egin nuen, pentsatzen nuen guztia esan nion, nola niretzat berria izateak ez duela nazkagarria izatearekin zer ikusirik, ezagutuko banindute beste era batera izango zirela gauzak hasieratik, jada asunto hura urrunegi joanda zegoela..., bururatu zitzaidan guztia, gero bere hitz egiteko unea iritsi zelarik. Honek labur esan zidan, gurekin sartzea berarekin sartzea bezala zela esan ziola Beñatek eta barkatzeko baina berarentzat ez genuela baliorik.

Harroputz galanta zen Asier hura, ez zuen onartu nahi izan gu ez ginela uste zituen berri zantar haiek, hori denborarekin gertatu zen, denekin ongi konpontzen ginela ikusi zuenean, inork sinistu ez arren gure lagun bilakatu nahi izan zuen eta dena, bihotzaz barkatzeko eskatuz, egindako min guztia tiritu batekin sendatu nahian.



Roke Ribate - DBH 3. maila

“Rugbya eta musika gogoko ditut”

JUSTIZIAREN IZENEAN

Gogorra da gerrate hau bizitzea. Pertsona asko hiltzen ari dira eta egoera gero eta okerragoa da. Gero eta lehergailu kaltegarriagoak, gero eta bala gehiago gero eta nahaste handiago, gero eta hildako gehiago, gero eta suntsipen lazgarriagoa. Nik anai-arreba guzti-guztiak galdu ditut: Hassan, Asir, Omar, Kanoute eta Fadalq. Aita ere galdu dut. Ama eta ni ahal dugun bezala bizitza aurrera eramaten saiatzen gara.

Laguntza humanitarioak heldu bitartean itxaron behar dut. Eguerdiko 12etan helduko direla esan didate baina bideak zeharo apurtuta daudela ikusita ezin izango dute arratsaldera arte heldu. Hau honela bada ordu asko egon beharko naiz hemen.

Uste dut ez dudala neure burua aurkeztu. Ni Mohamed naiz. 14 urte ditut eta Afganistanen bizi naiz. Esan dudan bezala, amerikarrak sartu zirenetik askatasun gehiago dago baina kalera irtetea askoz ere arriskutsuagoa da.

Ni John McCaernt naiz, 33 urteko soldadu estatubatuarra. Afganistanera orain dela hile batzuk heldu nintzen. Kabuleko kuartel handiengan nago lo egiten. Etxe mina daukat, etxera itzultzeko irrikitan nago, ama ikusteko, aita ikusteko, neskalaguna ikusteko, nire Missouriiko herri txiki eta baketsua ikusteko.

Goizeko bostak dira. Sargentoaren ahotsa entzuten dut. Sargentu zikin hori, beti zarataka. Kuartel barruan bostehun gaude, denak txerri batzuk bezela bata bestearen gainean. Azkenengo astean hiru kuartel lehertu dituzte eta han zeuden soldadu guztiak hona ekarri dituzte. Geur ere ezin izango dut gosaririk hartu errepide bateko kontrola egin behar dudalako. Orain fusila hartu eta tankera igo behar dut.

Kabuletik irteten ari gara. Egunero aldatu behar ditugu tankeen ibilbidea mina bat edonon aurki baitezakegu. Talibaneek jartzen dituzten minen potentzia izugarrizkoa da. Horrelako mina bat zapalduz gero, gure tankea zeharo txikituko litzakete.



Nik mina batengatik nire lehengusua galdu dut. Bere hiletan Ameriketako Estatu Batuetako bandera jarri zioten baina bera hiltzera bultzatu duen bandera hori da eta bere familiari zapi batengatik bizia jokutzen ari garela ikusteak min handia eman behar die.

Ni etxera itzultzen naizenean armada zikin honetatik irtengo naiz eta lana bilatzen hasiko naiz. Afganistanen ikusten ari naizen hilketak eta astakeriak ez ditut inoiz ahaztuko, ezin ditzakedalako ahaztu: bortxaketak, bahiketak, kolpeak, torturak, lapurretak...

Asko maite dut herri hau. Ni Omar naiz, 25 urteko afganiarra. Islamiar sutsua naiz, Osama Bin Ladenen jarraitzailea. Amerikarrak sartu direnetik, lapurretak baino ez dituzte egin, gure emazteak bortxatu, gure lagunak torturatu, gure petroleoa hartu eta euren herrialdera eraman.

Mezkitara sartzen ari naiz, gaur herriko plazan hilketak sakratua egin behar dugu-eta. Lehergailu guztiak hemen dauzkagu ezkutatuta. Laguntza humanitarioak heltzen diren unean lehertuko dugu geure burua, une horretan soldadu amerikarrak bertan izango direlako.

Orain azkenengo batzar txikia egingo dugu eta otoitz pixka bat egin ondoren harantza abiatuko gara.

Batzar aretoan gaude Fatir hizketan hasiko da:

–Gaur paraisura joango zarete amerikarren soldadu etalaguntzileen leherketei esker. Gaur, Ala-rekin aurkituko zarete, Ala-ren herrialdera joango zarete. Gure herriari begiak ireki eta laguntza horiek pertsonak erosteko direla ikusiko dute.

Hiru ordu daramatzat hemen. Plaza honen erdian. Gero eta pertsona gehiago ari dira sartzen. Hau gainezka dago. dira sartu. Kamioiak era sartu behar direla kontuan hartuta es gara izangogai ia beso bat mugitzeko ere, baina sakutxo bat eramatea Portu behar dut.

Laguntza humanitarioak lagundu behar digutela agindu digute azkenaldian bi kamioi lehertu baitituzte. Kabuleko plaza handira eraman behar dugula diote. Kamioia gugandik 10 kilometrora dagoela entzun dugu.

Gaur beste hiru taliban harrapatu ditugu. Batek bi lehergailu zituen autoan baina ez ditu lehartarazi; beste biek armak: fusilak, eskopetak...

Hemen daude Laguntzak heldu dira. Orain, Kabul gurutzatu behar dugu.

Sartu gara plazan. Plazan trankilago nago, pertsona guzti hauen artean iku-sezina naizela sentitzen dut. Milaka pertsona egongo gara plaza honetan. Laguntzak plazara sartzen ari dira. Hamar minutu itxaron behar ditut.

Ni plazaren alde batean nago eta besteak aurreko aldean jarriko dira. Faqirren seinaleari itxaron behar diogu.

Plaza barruan gaude. Pertsona guztiak hurbiltzen ari dira. Ni tanke gainera igo eta geldi dauden pertsona bakarrak lau morrosko direla ikusi dut. Itxaron pixka bat! Horrek ez dira morroskoak! Zerbait daramate ezkutatuta. Tanke barrura sartu eta sargentuari esan diot. Honek hau entzunda Thomas harengana hurbiltzera derrigortu du.

Izugarrizko zarata dator plazaren beste aldetik. Ondoren eskuineko aldetik beste bat entzun dut. Harriak jausten ari dira. Gizon batek atzetik hartu nau eta

korrikan narama. Atzetik soldadu artaburu bat daukagu. Soldadu nahiz talibanak, biak dira txarrak, biak dira asto hutsak, biak dira odolgileak, baina soldaduak euren herrialdetik kanpo daude eta gure herrialdearen suntsipenean laguntzen ari dira.

Aurretik taliban bat eta ume bat ditut. Talibanak umea bahitu du. Kale batean sartu dira. Kale honek ez du irtenbiderik. Umea lurrean utzi du. Azkarra da benetan, nik ezin dut harrapatu.

Ezin dut gehiago. Harrapa nazatela. Gelditu naiz. Hurbil daukat, oso hurbil bere bihotzaren taupadak entzun ditzaket. Eskuak lepoan jarri ditut. Zergaitik ez dit ezer egiten? Lepoan ukitu dit eta hau esan dit:

–Joan zaitetz etxera eta ahaztu gaurkoa nik ez zaitut kartzelara eramango. Oso gaztea zara.

Nik harrituta begiratu, lehegailua eman eta berak esandakoa pentsatzen, etxera itzuli naiz.



Gorka Larruzea - DBH 3. maila

“Zoriona eta maitasuna piztu behar dira”

ZENTZUMENAK

Uste dut bere ahotsa entzutean maitemindu nintzela Anerekin. Ahots polita zeukan, gozoa, argia, baina sarkorra aldi berean, hitz sinplez azaldu ezin daitekeen horietakoa. Lehenengo aldiz ikastolako pasiloan entzun nuen eta egun hartatik aurrera ahots hura neukan gau eta egun buruan sartuta abesti polit bat bailitzan. Lagunek obsesionatzen ari nintzela uste zuten.

Larunbata heldu zen eta tabernan nengoen lagunekin pote batzuk hartzen lasai-lasai ahots hura berriro ere entzun nuenean. Azaldu ezina da momentu hartan sentitutakoa. Nonbait igarri zitzaidan gertatutakoa eta lagunak konturatu ziren. Bera da Gorka? –galdetu zidan Igorrek. Baietz erantzun nionean beregana lagun-duko ninduela esan zidan, baina nik ezetz esan nion. Zer esan behar ote nion nik? Beste momentu baterako uztea erabaki genuen.

Egunak joan ahala nolakoa zen ohartu nintzen, zer zuen gustuko, non bizi zen... eta gero eta berari buruzko datu gehiago izan, are eta gehiago maitemintzen hasia nintzen. Oriokoa zela jakin nuen. Poesia idazten zuen eta denbora librean arraunari ekiten zion herriko taldean. Musika oso gustuko zeukan eta txikitan gitarra ikasi zuen nahiz eta momentu hartan denbora faltagatik ia ez jo. Informazio guzti hau Igorrek eta biok eskuratu genuen pertsona desberdinei galdetuz eta, egia esan behar bada, elkarrizketa bat edo beste entzunez ere bai.

Maiteminduta nengoen eta bere ahotsa entzuteko momentua itxaroten pasatzen nuen eguna. Normalean euskarazko klasean izaten zen, zeren nahiz eta ikastola berean egon, ez baikenuen euskera klasean baino topo egiten.

Denbora joan ahala berarekin hitz egitea erabaki nuen. Aitzakia bezala nire lehengusina batek arraun klaseetan hasi nahi zuela esan nion eta ea non apuntatu beharra zeukan. Eta berak ea zergatik ez ginen biak apuntatzen esan zidan. Ni hitz barik geratu nintzen eta berba egiteko gai izan nintzenean pentsatuko nuela erantzun nion. Ni arraunean? Pailazoarena baino ez nuen egingo.

Igor beti izan da kirol zalea eta bere laguntza eskatu nionean hasieran ez zuen sinesten. Beti izan naiz txarra soinketan baina Anerengatik ahalegin bat egitea merezi zuela erabaki nuen.



Aste hartan bertan lanean hasi ginen. Egunero klaseak amaitzean entrenatzera gindoazen Igor eta ni. Desastre hutsa nintzen hasiera batean, baina entrenamenduak aurrera joan ahala, hobetzen joan nintzen.

Prest nengoela iruditu zitzaidanean, eta bihotza bularretik irten beharrean neukala Anerengana hurbildu eta taldean sartu nahi nuela esan nion ahots dardartiz eta nire lehengusinak azkenean ezingo zuela etorri aitortuz. Taldekoei jakinaraziko ziela esan zidan eta berriak zituenean ikusiko genuela elkar. Bide batez kafe bat hartzera gonbidatu ninduen. Arratsaldeko 5etan hasi zen kafetxoak gauerdira arte iraun zuen. Arratsalde osoa eman nuen hizketan gai guztiei buruz eta nire Arte Ederrak ikasteko asmoa jakitean, eskola bateko helbidea eman zidan, bertan aurkeztu nendin oso gustura zegoen lagun bat ezagutzen zuelako. Arratsaldea azkar pasa zitzaidan eta gauean lorik hartu ezinik igaro nituen orduak.

Berak esandako eskolan izena ematera joan nintzen hurrengo egunean eta hara non aurkitu nuen bera ere zeregin horretan! Hasiera batean ez apuntatzea ere pentsatu nuen berarekin ilusio faltsurik ez egiteko baina, askotan esaten den bezala, itxaropena da galtzen den azken gauza, eta izena ematea erabaki nuen..

Egunero ikusten nuen ez gero, etxeko lanal egiteko ere geratzen ginen. Asko lagundu ninduen batxilergo 2. maila hartan. Beragatik izan ez balitz ez nuen ikasurtea gaiturteko, ziur nago.

Denbora aurrera joan ahala eta elkar ezagutzen gindoazen neurrian gure alor berdintsuak ezagutzen joan ginen eta hasieran pentsatutakoak baino askoz ge-

hiago zirela konturatu ginen. Eta gauzak horrela, azkenean elkarrekin irteten hasi ginen. Igor asko poztu zen berria jakitean, baina beste lagunek nire zorientasunaren inbidiaz zeudelako edo, bere itxuraren inguruko komentario asko egin zizkidaten, itsusia zela... eta niri zer?

Arte ederretako klaseak zoragarriak ziren eta gela berean ez geunden arren, elkar ikusten genuen eta ni oso pozik nenbilen han.

Entrenatzen ere jarraitu genuen eta Euskal herriko txapelketara ere heldu ginen. Anerentzako oso egun garrantzitsua zen eta ni bere alboan egotea ohore antzeko bat bihurtu zen niretzat. Txiki-txikitatik zeraman arrauna egiten eta egun hura noiz iritsiko pasatzen zituen entrenamendu guztiak.

Azkenean, eguna ailegatu zen eta urduri geunden arren, abiatu ginen. Pres-tatu ginen eta traineruan sartu ginen. Prestu, listo eta aurrera! Abiatu ginen baina nire nikia trainerako iltze madarikatu batekin trabatu zen eta sarreran bi segundo galdu genituen. Askok ez zirudien arren, bi segundo horiek izan ziren irabazteko soberan izan genituenak. Ane bere onetik aterata zegoen eta ni guztiz lotsatuta eta nire buruarekin haserre. Negarrez etxerako bidean nindoala Anek inoiz barkatuko ez zidala ulertu nuen. Nola barkatuko ote zidan bere bizitzako ametsa zapuztu baldin banuen?

Gauean nire gelan negarrez nengoela Aneren dei bat jaso nuen. Hitz egin behar genuela esan zidan. Baina nik momentu hartan ez neukan gogorik. Banekien esan behar zidana.

Hurrengo egunean kalean topo egin genuenean esan zidan ez arduratzeko, horrelako gauzak edonori gerta dakizkiokeela eta ni itsua izanda, are gehiago. Ausardia handia aurkeztu nuela lehenengoz ikasteko eta gero gainera txapelketara aurkezteko. Ez zuela inoiz ni baino ausartagoa zen inor ezagutu eta ideiak argi nituela. Benetan jendeak hori baloratzen zuela eta ez izandako akatsa. Hitz egitea amaitu zuenean besarkada handi bat eman zidan inoiz jasoko ez dudana bezalako, ziur nago.

Urteak pasatu ziren eta gehiago entrenatu genuen. Hurrengo txapelketara aurkeztu ginen noski, eta egun hartan ez zen nire nikia ezerekin trabatu. Hala ere, ez genuen irabazi beste arraunlarien maila oso-oso altua zelako. Baina oraindik saiatzen jarraitzen dugu noizbait lortuko dugulakoan.

Badakit istorio honek sinplea ematen duela, mutil batek neska bat ezagutzen du eta maitemintzen dira. Bai, oinarrian hala da, ez dut ukatuko. Baina, mutil itsua izateak gauzak pixka bat baldintzatzen dituela ere esan beharra dago. Mutila bere neskaren itxurari buruzko iritzi txarrak entzuten ditu baina bera, izaerak maitemintzen du. Beste alde batetik, neskarentzat mutilak duen arazoak ez da izan oztopo benetan maite duelako. Eta hori, ez da oso normala itxura hain garrantzitsua den gaurko gizarte honetan. Zeren funtsean, zerk irauten du urteen poderioz zimurrak agertzen direnean?



Ioana Olea - DBH 3. maila

“Ametsetan eginez, errealitatea beste modu batera ikustera gonbidatzen zaituztet”

GURE AMETSA

Kaixo, ni Amaia naiz eta 16 urte ditut. Ile beltz-beltza daukat ikatzaren antzekoa eta kizkurra; begiak marroiak eta normalean txandala jantzita ibiltzea gustatzen zait. Txiki-txikitatik amets bat daukat :abeslari izan nahi dut. Niretzat musika da munduko gauzarik ederrena. Egunero orduak ematen ditut musika entzuten eta batzuetan abestu ere egiten dugu jende aurrean. Abesbatzan baino ez bada ere, konformatzen gara eta gainera oso pozik egiten dugu.

Eskolarako ikuskizun bat prestatzen ari gara. Gure gelan Elenek gitarra jotzen du, Pellok bateria eta Maitek pianoa. Abesti bat konposatuko dugu eta letra ere jarriko diogu. Nik abestu egingo dut.

Hasi gara abestia nolakoa izango den pentsatzen. Ahalik eta politena izan dadin ahaleginduko gara, baina gustu ezberdinak daude.



Praktikatzen hasi gara lokal txiki baten eta momentuz oso ondo doa, baina ez daukagu nahikoa diru ordaintzeko. Nik nire amari eskatu diot dirua baina ez dudala etxean laguntzen eta ezezkoa eman dit. Lanen bat aurkitzea pentsatu beharko dut.

Elenek badu bere zatia ordaintzeko beste diru bere gurasoak aberatsak dira eta. Pellok ere bai, okindegi batean lan egiten baitu. Maitek ostera, berak ere lana aurkitu beharko duela esan dit.

Ostiral arratsaldea da eta Maite eta ni hasi gara lan bila. Ez da hain erraza izango ez dagoelako lan askorik esperientzia eskatzen ez duenik.

Azkenean zerbait lortu dugu. Nik Eroskin egiten dut lan kutxazain bezala eta Maitek umeak zaintzen ditu. Nahikoa eta soberan ordaintzen dute lokalaren fakturari aurre egiteko eta geratzen zaidan dirua aurreztu egingo dut geroago behar izanez gero zerbait edukitzeko. Maitek dirua aurrezten du eta gitarra berri bat erosi du. Oso soinu ona du.

Abestia konposatzen hasi gara eta erabaki dugu abestiaren izena “Gure ametsa” izango dela. Letra idatzi dugu eta ederra geratu da. Guri behintzat hala iruditzen zaigu eta gure gurasoei ere gustatu zaie. Entzun dute abestia.

Bost egun barru izango da egun handia. Pello, Elene eta Maite oso pozik daude baina ni urduri nago eztarikiko minarekin nagoelako. Baina uste dut ondo jarriko naizela oraindik nahikoa falta da eta.

Guztiok hasi gara arropa aukeratzen eta nik jertse krema bat eramango dut praka marroi batzuk eta txapel beltz bat. Elenek gona beltza jertse gris argi batekin. Besteek zer eramango duten ez dakit eta egia esan ez nau kezkatzen, arropetarako oso gustu ona dute eta badakit ondo aukeratuko dutela. Esan digute musika-taldeak kontratatzen dituen gizon bat ere etorriko dela eta askoz ere urduriago jarri gara. Heldu da egun handia eta dena perfektu dago, beno, ea dena, ni oso urduri bainago.

Eskolarantz goaz eta jarri dugu eszenatokia. Ondo kostata izan da. Jantzi ditugu arropak eta Elenek makilatu gaitu. Pello ihes egin nahian dabil baina Elene umore txarrean jartzen denean...

Guztiok oso dotore gaude eta soinua eta ahotsa probatzen hasi gara. Besteetan baino askoz hobeto atera zaigu eta oso pozik gaude. Ni besteak baino gehiago, eztarria sendatzea lortu baitut.

Bost minutu falta dira ikuskizuna hasteko eta aretoa gainezka dago. Bakoitza bere lekuan jarri da eta nik hitz hauek esan ditut:

–Mila esker denoi abesti hau entzutera etortzeagatik. Espero dugu abestia zuen gustukoa izatea.

Abestia bukatu dugu eta oso ondo atera da, esperotakoa baino hobeto. Hasi gara dena jasotzen eta gizon bat hurreratu zaigu hauxe esanez:

–Nahi duzue disko bat atera?

Eta guk baietz erantzun diogu. Orduan berak jarraitu du:

–Ze izen jarriko diozue zuen taldeari?

Denbora pixka baten ondoren zera erantzun dugu:

–“The dreamers”.

–Oso ondo, eta diskoaren izena?

–“Ameslariak”.

–Ongi da. Hala izango da.

Atera dugu diskoa eta mundu osoan ezagunak gara. Gizon hark esan zigun mundu osoan eman behar genituela kontzertuak eta hala izan da. GURE AMETSA EGIA BIHURTU DA.



Lexuri Gabiola - DBH 3. maila

*“Euskara ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako,
dakigunok hitz egiten ez dugulako baizik”*

AMESGAIZTO BAT AL DA?

Jilly dut izena, 14 urte ditut eta Mundakan bizi naiz.

Orain dela bost urte etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera. Afrikan jaiotakoa naiz, Dkarren hain zuzen ere. Nire gurasoen lan baldintzengatik etorri ginen. Bertan, ez dago lan aukera handirik. Orain, lan egokiak dituzte eta gainera herrian bertan. Ama, udaletxeko garbitzaileetako bat da eta aitak, herriko tabernan egiten du lan. Euskal Herria, bizileku bikaina da. Paisaia izugarri politak ditu: itsasoa, mendiak, parkeak...

Beno, nik bizitzan ez dut zorte handirik izan. Asko sufritu dut, sufritzen jarraitzen dut eta sufritzen joango naiz mundu honetatik.

Afrikatik Euskal Herrira etorri nintzenean, etorri ziren arazoetariko batzuk, baina ez larriena. Nire bizitzako arazorik gogorrena eta larriena Afrikan izan zen.

Mundakan, ikastolara ahalik eta azkarren hasi nintzen. Hemengo hizkuntzak, ahal bezain laster, ikasi behar nituen. Euskara, batez ere, Euskal Herriko hizkuntza delako. Erdara, jada, banekien zerbait. Ingelera, aldiz, oso zaila zen baina, garrantzi txikiagoa du, hemen ez baita hitz egiten.

Hasieran, ikastolara, oso pozik eta gustura joaten nintzen baina, ikasle guztiek zirikatzen ninduten nire azaleko koloreagatik. Ez nuen ulertzen zergatik, gizaki guztiak desberdinak baikara. Nik oso gaizki pasatzen nuen momentu haietan. Orduan, ez nuen ikastolara joan nahi. Bat, oso zaila zen dena ikasteko orduan; bi, gelakideek zirikatu egiten ninduten; hiru, ez nuen lagunik. Nik, nire gurasoei ikastolan gertatzen zitzaidan guztia kontatzen nien. Horregatik, nire gurasoak, arduratuta zeudenez, irakaslearekin hitz egitera joan ziren. Irakaslea, ordura arte, ez zen ezertaz jabetu. Momentu hartatik aurrera, gauzak hobetu egin ziren. Ez ninduten zirikatzen. Beti zegoen baten bat tuntunarena egiten eta horrek denek zirikatzen gintuen baina, hala ere, hura zen txarrena. Azkenean heldu zen uda, jada, gure herrira ohituak geunden eta ikastola, gauzak askoz hobeto zihoazen. Gabon eta uda gutzietan, Afrika aldera joango ginela hitz eman genien familiakoei, batez ere, nire aitona Conneri. Nire aitona bihotz handikoa da, asko maite dut.

Hegazkinean ordu asko eta asko eman ondoren, heldu ginen azkenenak Dakarrera. Oso pozik nengoen familia ikusiko nuelako, baina pixka bat urduri ere bai; hilabeteak eta hilabeteak beroa egiten zuen, jasan ezina zen; deank geunden arroparik gae, bainujantzian. Ni izerdi patsetan nengoen.

Han zegoen familia osoa gure zain. Primerako ongi etorria egin ziguten. Besar-kada eta muxu pila eman ondoren, mahai luze baten inguruan eseri ginen. Urtea nola joan zitzaigun kontatu genuen. Une hartan, oso gustura nengoen, Gabonetatik nengoelako momentu hura heltzeko zain.

Bat-batean, denak zeuden nire atera begira. Nik harriturik atzera begiratu nuen. LEHERGAILU BAT ZEN! Ez nuen inoiz hain eztanda handirik ikusi. Bada ezpada ere, bertatik urrundu ginen. Ni, begira eta begira nengoen, ikaragarria zen! Halako batean, eztandaren uhinek nire begietan eragina izan zuten eta ez nuen ezer ikusten. Dena zen beltza! ezin nuen mina jasan!

Momentu hartatik aurrera, nire bizitza tristura bat da. Infernua dela esango nuke. Oraindik, ezin dut sinistu niei hau gertatzea. Ezinezkoa dela ematen du baina, egia da, ITSU NAGO!

Zergatik niri? Zergatik? Momentu hartan oso gustura nengoen, nire bizitza honetako argia ikustea! eta nik uste, hori ez dela gertatuko... Hau bizimodua nirea! Dudarik gabe, bizitzan gertatu zaidan zorigaitz handiena da!

Behin eta berriz galdetzen diot nier buruari. Zer da hobeto, argirik gabe bizitzea edo bizirik ez egotea? Ba al dago desberdintasunik bien artean?... Nire familiak asko sufritu du nigatik, batez ere, nire gurasoek.

Hau guztia, afrikan zegoen bero ikaragarriagatik gertatu zitzaidan. Beroaren eta bertako giroaren odnorioz, eztanda madarikatu hura sortu zen. Zergatuik justu ni joan nitzen egunean gertatu behar? Askotan nire buruari hauxe esaten diot...

Ez banintz Afrikara joango, hau ez zitzaidan gertatuko. Baina honek ez du atzera bueltarik gainera, hau gainditzea oso zaila da.

Hala ere, Euskal Herrira bueltatu ginen berriro eta oraingoan, aitona gurekin etorri zen.

Beno, orain, gutxienez lagun asko ditut eta asko lagundu didate. Gainera, Euskaraz hitz egiten badakit. Jende pila dago nire ondoan lagutnzeko prest. Afrikatik hona etorri nintzenean, gelakide guztiek barkamena eskatu zidaten, hasierako egoeragatik. Ez zirela konturatzen, zelako mina egin daitekeen pertsona bati bere azalaren koloreagatik zirikatzen.

Nire bizimodua asko aldatu da: Orain, etxean denbora asko pasatzen dut eta lehen, aldiz, beti egoten nintzen kalean. Jendea ahotsagatik desberdintzen dut eta lehen, noski ez zen horrela. Hau sinesgaitza da! Ez dut ulertzen!

Espero dut, denborarekin arazo honetara ohitzea!

Behin eta berriz, galdetzen diot nier buruari:

AMESGAIZTO BAT AL DA?



Alejandra Guerendiain Soler - DBH 4. maila

BIZITZAREN GERTAERAK

Riiiiiiiiing! Berriz ere ditzosozko aparatua, nire ametsak oztopatzen dituen aparatua, iratzargailua. Goizeko zazpiak, halako logura dudana, baina lanera joan beharra. Ohetik altxatu eta armairuan aurkitu ditudan arropak jantzi ditut. Betikoa, prakak, kamiseta eta jertse bat, ezohikoa den ezer ere. Logelako pertsianak igo ditut, gau egun polita izango dut eguzkia baitago, baina lanean pentsatzean eguna ilundu egiten zait. Logelatik irten eta eskailerak jaitsi ditut, astiro, ez baitut 12 eskailera hauek jaisteko gogorik. Dagoeneko jaitsi ditut, sukalderantz abiatu naiz zeozer gosaltzeko prest, hori da nire asmoa behintzat.



Sukaldera heldu eta bat-batean sakelako mobila dantzaka hasi da, laugarrean hartu dut:

–Bai?

–Maider? Laztana? Zelan doakizu bizitza maitea? Eta lana? Badakizu ezin duzula lan hau galdu, oso garrantzitsua da eta.

“Amaren ahotsa, momentu ederrenean deitzen dit, a zelako buruko mina, ez dakit nola egiten duen, baina momentu txarretenan hots egiten dit, halako zortea”.

–Badakit ama. –Hasperen egin dut.

–Eta zelan doakizu bizitza ba? Kontatuko didazu ezta? Mutil lagunik edukiko duzu, jakin badakizu amona izan nahi dudala ez ahaztu.

–Ama! Goizeko zortzira hogeita bost gutxi dira, ez da ordua deitzeko, ez zara inor nire bizitzan sartzeko. Beste momentu batean deituko dizut! Agur!

Click!... Pasatu egin naiz, baina zer egingo diot beti gertatzen da berdina, nire bizitza kontrolatzen du eta ez dut onartuko. Sukaldeko armairu txiki batetik gaileta Mariak hartu eta jaten hasi naiz, pentsakiro.

Lehenengo gaileta amaitu orduko, sukaldeko erloju handiari erreparatu diot, zortziak laurden gutxi. Hainbeste denbora behar izan dut gaileta ziztrin bat jateko? Presaka, atariko armairua ireki eta jaka beltz bat jarri du, poltsa beltz bat hartu eta botak jantzi ditut. Landarearen ondoko mahaian utzitako paperak gorde eta atetik irten naiz. Atea hiruzpalau birarekin itxi egin dut, badaezpada gaur egun lapurreta asko baitaude, nire kaleko bi zuhaitzen aurrean kotxea utzi nuen pasada egunean. Hura bilatzen hasi naiz. Behe lainoan harrapatuta nago, isiltasuna nabaritzen da, kalean ez dago izpiritu bakar bat ere ez, ni bakarrik nago isiltasunean galduta. Edonora begiratzen dut, ea norbait ikusten dudana, egoera hau ez dut batere atsegin eta. Konturatu orduko urruneko behe lainoaren ostean ikusi dut kotxea, eskerrak. Hurbildu egin naiz, kotxea alboan dudanean zarata beldurgarri bat entzuten dut nire bizkarrean. Bihotza taupaka dut, kontrolatu ezinik, erritmoa galduta, beldurra! Biratu eta lasai hartu dut arnasa kotxe bateko segurtasun sistemak salto egin du, ez dakit zergatik baina gogorik ere ez dut jakiteko, hala ere susmagarria iruditzen zait. Poltsatik kotxearen giltza hartu dut, eta giltzarekin atea ireki dut. Barnean sartu naiz, jaka kentzen hasi naizenean bolantearen atzean dagoen zigarro paketean jarri dut nire arreta. Bat-batean desiozko sentimendu bat sentitu dut, gorputzak eskatzen didan sentimendua. Jaka alboko jesarlekuan utzi eta zigarro paketetik bat atera dut, piztu eta zigarroa nire ezpainak ukitu orduko lasaitasuna nabaritu dut. Kotxea martxan jarri dut azeleragailua sakatu eta bideari ekin nion, helburu batekin, lantokira heltzea. Auzoko kaleak ezezagunak dira, bitxia, behe-lainoarentatik ez da izango. Kaleen barrena noa, zigarroa eskua dudala, mundu berri hau berriz ere ezagutzen. Metro gutxi batzuetara Pacoren etxea ikusi dut, etxe handia eta iluna da, leihoak txikiak eta itxiak argia, ez da leihotik igarotzen, hala emanen du behintzat. Auzoko lagunek kontatu zidaten pacok esperimendu maltzurak egiten duela ganbaran, animaliek esperimentatzen du eta astero ausoko katu bat

etxeratzen omen du. Egia esan, horrelako txatxukeriak ez ditut sinisten. Pacoren etxea jadanik igaro dut, zigarroaren apurrak leihotik jaurti ditut, lasaitasuna leihotik joan da, zigarroa bezalaxe.

Eskuko telefonoa oihuka hasi da, geratu ezinean, poltsatik telefonoa atera dut, esku bakarrekin bestea bolantean dudala. Telefonoaren pantailan, Aitor agertzen da. Zer nahiko du honek. Telefonoa belarrira eraman dut eta bertatik deiari baietza eman diot. Telefonoa dantzari utzi dio baina horren ordez, ahots zakar, ilun eta desatsegin bat hizketan hasi da, Aitor. Aitor nire enpresa berdinean egiten du lan, enpresari moduan.

–Maider, non zaude?

–Bidean, herriko auzoak zeharkatu ditut, eta orain herriaren erdigunean nago.

–Oraindik? Maider! Ia zortziak dira bera non zauden. Gainera hitzordu garrantzitsu bat daukagu beste enpresa batekin.

–Badakit baina nire agendan idatzia daukat, hitzordua hamabietan dela.

–Ez, atzo aldatu genuen eta azkenean bederatzietan.

–Zer? Eta zergatik ez zenidaten abisatu?

–Abisatu nizun, etxeko telefonoan utzi nizun mezua.

–Baina badakizu, konpondu behar dudala, ez ditu gordetzen utzitako mezuak, zuzenean ezabatzen ditu!

–Ahaztu egin zaizu niri hori esatea.

–Beno, berdin dio Aitor oraintxe noa, herriaren kanpoaldeko tunela zeharkatuko dut laster.

–Maiid..r? ...zer...e...san... d...zu?

Click!...



Esku bakararekin mobila hartu eta nire poltsan gorde dut. Bitartean tunelaren barruan sartu naiz 62 km/h noa. Tunelaren argi distiratsuek ez dira bukatzen lerrokatuta doaz, distantzia berdineran. Inoiz ere beraien artean ez dira talka egiten. Argi hauek dira edozein gidarientzat hartu beharreko oinarria. Minutuak eman ditut tunel hori zeharkatzen eta bertako argiak miresten. Bat-batean argia bere bidea amaitu zuela ikusi dut, eta tunelaren

argia gehiago ez duela nire kotxea argitzen, eguzkiaren argiak argitzen du nire kotxea orain. Lasai noa, errepideari jarraitzen berak emandako aukerak betetzen. Lurrak emandako paisaiak miresten, beno egia esan gizakiok manipulatu dugun “mundua” miresten. Oraintxe hasi naiz ohartzen natura, guk nahi dugun moduan aldatzen gaudela, baina dena gure onerantz, kotxeko leihotik dena argi ikusten dut. Barregarria iruditzen zait nire hogeita hamaika urterekin horrela ikustea. Burua pentsamenduz bete da daukat, edonolakoak. Urrunean kotxe pila ikusten ditut, zaratika. Pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen noa gero eta gehiago entzuten ditut kotxeen

protestak eta oihuak. Kotxe baten atzera gidatu dut kotxea, suposatu dut karabana baten erdian nagoela, zorte txarra nirea. Kotxeko erlojuan jarri ditut nire begiak zorziak eta hogeita bost, denboraz ondo noa, baina karabana honekin ez naiz garaiz iritsiko. Aitorri deitzea beste erremediorik ez dut, baina nirekin hasarratuko dela susmoa dut, nik errurik eduki ez arren. Poltsatik telefonoa hartzen joan naizenean, urruneko kotxeak mugitzen ikusi ditut, eskerrak. Poltsa, lehen zegoen tokian utzi eta kotxearen bihotza martxan jarri dut berriz ere. Poliki-poliki ibiltzen hasi naiz, jadanik ez ditut kotxeen oihuak entzuten, lasaitasuna nire gorputzean berriro ere sentitzen nuen. Minutu gutxi batzutan karabanatik alde egin dut, untxiak azeriari bezalaxe. Kotxearen erlojua begiratu dut, bederatzia hogeita bost gutxi, hamar minutu iraun ditut karabanen. Bideri ekin diot, berriz ere. Hamar minututan iritsiko naiz nire helmugara, enpresara. Garaiz heltzeko, azeleragailua zapaldu dut, baina ez abiaduraren limiteak zeharkatuz. Bideko semaforo batzuk saihesten ahalegindu naiz, baina gehienetan ezin izan dut. Nire enpresara heltzeko azken semaforoa berdez dago, ea zeharkatzeko astia dudan gorriz jarri baino lehenago. Azeleragailua zapaldu eta aurrera joan naiz, metro gutxi batzuk faltatzen zaizkidan unean gorriz jarri da. Segituan balazta zapaldu dut. Erretrobisorari erreparatu diot, begiak inoiz baino gehiago ireki ditut, bihotza saltoka daukat, nire gorputzetik irteteko asmoz. Nire atzean dagoen kotxea nigana dator abiadura biziz, ez dauka frenatzeko astirik, eta... BUMN! Halako kolpea, kotxea indarrez aurrera eramanez du, eta biratu egin da, kontrako noranzkoak datozen kotxeak ere, nire aurka jo dute. Nire gorputza izugarriko kolpeak jasan ditu, eskerrak segurtasun-uhala jarrita dudala bestea... ez dakit ze gertatuko ote zaidan. Tamalez kontrako norabidean datozen bi kotxek nire kotxea hain gogor jo dute elkar, ni eta nire lagunarekin batera hegan egin dugula. Segundo gutxi herretan, ni babesten dagoen segurtasun-uhala ezin izan du gehiago eutsi, eta askatu egin da, ni babes gabe utziz.

Kotxea lurra jo orduko, ni leihotik kanporatu nau, indarkeriaz. Nire gorputza bidearen erdian kokatuta dago, bakarrik, ezezagun guztiak nire gorputz mindua ikusten. Hauek nire inguruan daudela sumatzen dut, galdezka, atsekabetuta, beldurtuta. Ezin naiz mugitu, gorputza ez dut kontrolatzen, ezin ditut begiak ireki, arnasa hartzeko ia ez naiz gai. Aurpegia bustita daukadala nabaritzen dut, odolaren usaina eta, zaporea bereganatzen dut. Urrunean anbulantziaren soinua entzuten dut, hurbilean ordea zurrumurruak. Pentsatzen dudana gauza bakarra, ea honetaz libratuko naizen, hala ere ez dut uste. Anbulantzia hemen dago, pertsona batzuek nire gorputza jasotzen daude, ea leku bigun batera lekualdatu naute. Aurpegian zeozer jarri didatela nabaritu dut, orain arnasa ongi har dezaket...



Sirats Beaskoetxea - DBH 4. maila

*“Gertaera latz guztien ostean beti dago argitasun unea.
Esperantza ez da inoiz galdu behar”*

OLATU IZUGARRIA

Bazen behin mutiko bat Ingalaterran bizi zena. Mutiko honek Alex zuen izena eta Bourmonth herrian bizi zen.

Alexek hamazazpi urte zituen eta garaia, beltzarana eta begi berdeduna genuen. Alex bere gurasoekin bizi zen baina arreba bat eta anaia bat ere bazituen. Anaiak hogeitau urte zituen eta arrebak, berriz, hamabost.

Alex ez zen oso ondo konpontzen bere gurasoekin, beti ibiltzen ziren errietan eta haserrekuntzarik gehienak eskolangatik izaten ziren. Alexek DBH4 errepikatu zuen eta bere gurasoei ez zitzaien bat ere gustatu hori. Itzelezko iskanbila sortu zen etxean hori gertatu zenean. Hain izan zen iskanbila handia sortutakoa zeren eta Alexek etxetik alde egin baitzuen eta agertu ez astebete beranduagora arte.



Alex bere anaia eta arrebarekin nahiko ondo eramaten zen; ez zuten inoiz arazorik izaten eta asteburuetan askotan batera irtetzen ziren kalera.

Uda zen eta kostaldean bizi zirenez, Alex eta bere lagunak hondartzara joaten ziren egunero. Alex surfalaria zen bera bizi zen tokian olatu handiak baitziren ea beti. Egunero irtetzen zen iluntzean surf egitera bere lagun guztiekin. Alex oso ona zen; hamazazpi urterekin hainbat torneo irabaziak zituen. Baina Alexek bazuen arazo bat surfa zela eta. Bere gurasoak ez zeuden bat ere ados bere afizio horrekin. Oso arriskutsua zela esaten zioten eta gainera surfari ikasketei baino denbora gehiago dedikatzen ziola esaten zioten. Hala ere, Alexek ez zien bat ere jaramonik egiten inoiz ez zitzaiolako ezer gertatu. Surfari buruz zuen iritziak ez zuen batere zerikusirik bere gurasoek zutenarekin; haiek bazuten surfaren munduaren alde ezkutuaren berri. Ez zuten ahazteko urte bi lehenago surf egiten hil zitzaaien lagun hura. Olatu batek harrapatu eta kitto! Baina hori ez zioten Alexi inoiz kontatu berak hori jakitea ez zutelako nahi. Alexek surfa maite zuen eta bere afizio hori gordetzea nahik zuten. Hala ere, beti esaten zioten kontu handiz ibiltzeko.

Alexen gurasoek oso etxe handia zuten; izan ere dirudunak ziren. Inguru haie-tan haizeak gogor jotzen zuen eta euria ere sarritan izaten zen paraje haietatik. Behin baino gehiagotan izan zituzten arazoak haize bortitza zela eta. Baina ez zekiten txarrena etortzear zegoela.

Egun batean telebistan iragarri zuten tsunami bat urreratzen ari zela baina inork ez zuen sinistu. Ekainaren 25erako espero zen. Herriko jendeak bromatzat hartu zuen baina ez zen broma eta azkenean ohartu ziren. Ekainaren 23a heldu zen eta irrati, telebista eta egunkariek ez zuten besterik aipatzen. Tsunamia zen gai nagusia. Herriko zenbaitek herritik alde egiteko erabakia hartu zuten baina beste askok ez zuten jaramonik egin eta han gelditu ziren zain. Horietako familia bat Alexena zen; gertatuak gertatu beti elkarrekin egotea pentsatu zuten.

Heldu zen ekainaren 25a, jendea oso urduri zegoen; izan ere herrian geratu ziren asko eta asko beldurratetik geratu ziren. Dena den, egun hartan ez zen ezer gertatu.

Baina etorri. zen inork nahi ez zuen eguna; ekainaren 27a zen, arratsaldeko 17:00ak gutxi gora behera. Inork ez zuenean espero herri osoak egin zuen dardar. Mundu guztia ikaratu egin zen eta korrika egiten hasi baina ez zegoen ezer egiterik jada. Olatua ikusten zen, 15 metro ingurukoa!

Arratsaldeko 17:15ak ziren. Olatua herrira heldu zen. Dena txikitu zuen. Jende asko eta asko desagertu zen. Hori pentsatzekoa zen, Bourmonth oso herri handia eta populatua baitzen.

Alex eta bere familia elkarrekin zeuden ezbeharrak gertatu zenean baina olatua heldu zenean banandu beharra izan zuten. Hala ere, hau gertatzean olatua pasatu eta gero toki batean elkartzea hitzartu zuten. Eta olatua pasatutakoan familia elkartzerakoan baten falta nabaritu zuten. Alex ez zen agertzen inondik inora!

Denak hasi ziren kezkatzen eta bere gurasoak gero eta urduriago zeuden.

Hurrengo eguna heldu zen eta Alexek oraindik agertu barik jarraitzen zuen. Hasi ziren leku guztietatik bilatzen baina alferrik. Agertu gabe jarraitzen zuen eta horrela aste bete pasatu ondoren ere. Azkenean bere familia osoa mendira itzuli zen segurtasun neurri bezala, egunkarien esanetan beste tsunami bat etortzeare zegoen eta. Halakorik! Herri guztia txikituta, etxe, zuhaitz...

Hilabetea ere pasatu zen eta Alexen familia Alex aurkitzeko esperantzak ea galduak zituen. Hala ere, goiz baten, gosaltzeko ordurako etxeko atea zabaltu zitzairen eta bertan ikusi zuten Alex. Noraezean ibilia, kolpe baten ondorioz nor-tasuna galdua handik eta hemendik ibilia. Denboraren poderioz normaltasunera itzuli eta familiaren giro beroa berreskuratu zuten.

Bourmonth herrian ez zen honelako olatu gehiagorik izan eta apurka apurka herria bere onera bueltatu zen eta berarekin batera bertako biztanleak.



Irene Aberasturi - DBH 3. maila

“Bi urte hitz egiten hasteko eta bizitza osoa isilik egoten ikasteko”

ZORITXARRA

Bi urte. Bi urte luzeren ostean, hemen nago. Libre. Inori kasu egin beharrik ez. Ez dakit luzerako izango den; baina orain bizitzan aurrera jarraitu behar dut. Etxea. Non ote dago? Lagunak. Non sartu ote dira? Emaztea ere non dago? Non nago? Nora noa? Dirurik gabe, bakarrik, ze ordu den ere eztaikit eta zer egin behar dut orain? Dirua ere faltan.

Kale ertzean gizon bat topatu eta:

- Ba al dakizu Apatamonasteriora heltzeko nondik joan behar naizen?
- Zer diozu, gizona! Zer da hori?
- Non gaude?
- Hau Mexiko da!
- Eskerrik asko.

Gizona joan eta buruari bueltak ematen hasi nintzen, Mexiko? Zer egiten dut hemen! Kartzelan euskaraz egiten zidaten eta nik gogoratzen dudanez duela 2 urte euskalduna nintzen... Bueltak eta bueltak eman eta gogoratu nuen oporretan etorria nintzela familiarekin eta istilu baten ondorioz, errurik gabe kartzelan sartu ninduten.

Dirua behar nuen... 20 € eskaz nituen eta Bilbora zihoan hegazkinerako txartel bat erosteko, gutxienez 400 € behar nituen. Lana bilatzen hasi behar nuen. Taberna batera sartu nintzen, egunkarian lana bilatzeko asmotan.

Zerbitzaria ez zen oso, lagunkoia. Serioa eta oso handia. Edonor izutzeko modukoa, baina ni ez ninduen horren erraz izutuko. Ezer hartuko ez nuela esan nionean ia tabernatik bota zidan; baina, hala eta guztiz ere bertan ikusi nuen kartel bategatik galdetu nion: “Ume zaintzaile bat behar da, 8 eta 10 urteko bi umerentzat”. Bere semeak zirela erantzun zidan, eta ez zuela nahi ni bezalako gizon zahar batekin egoterik.

Ni kapaza nintzen haiekin egoteko, etxea garbitzeko eta denetarako; 8 seme-alaba hezi banitu, ez nintzen bada birekin moldatuko? Aukera bat eman zidan eta beste pertsona bat aurkitu arte zainduz gero ordainduko zidala agindu zidan.

Aste bat baino lehen kaleratu ninduen, bere etxean sutea egon zelako eta suhiltzalgailuarekin etxe hankaz gora utzi izana leporatu zidan. Bere semeen bizia salbatu eta horrela eskertzea ere... Gizon eskertzarrekoagorik eta ume aldrebesagorik ez nuen ezagutu nire bizitza osoan. Nola eman ziezaiokeen 8 urteko mutiko batek su etxeari?

Kalean. Bakarrik. 100 € gehiagorekin, hori bai. Bi astetan umeak zaindu ostean, zerbait ordaindu zidan behintzat. Nora joan behar nuen orain? Tripak gosez, burua bueltaka eta hankak ahul Atzetik ume bat etorri zitzaidan korrika: osaba osaba! Esanez. hankatik heldu zidan eta buelta eman nuenean, 4 bat urte inguruko neskatila bat ikaratuta negarrez hasi zitzaidan. Amarekien joan nahi zuela esan zidan, ama galdu egin zela!

Ba ote zekien horrek non galdu zen bere ama? Umorea behintzat ez zuen falta. Komisaldegia bilatzen hasi nintzen haurra eramateko; baina han etorri zen andre bat esaten ea zergatik bahitu nuen bere alaba eta ez dakit zer gehiago. Han utzi nuen umea eta iskanbila guztia.

Lehenera bueltatu nintzen. Oraindik ere jan gabe negoen. 100 € rekin gauza handirik ezin nuen jan, gerorako ere behar nuen eta. Jatetxe batera sartu nintzen eta bertan bazkaldu nuen; ondo bazkaldu ere! Horrelako “bar obrero” batean, gutxi ordaindu eta asko jaten den horietako batean.

Ostean, parke batera joan nintzen eserleku batean deskantzatzeko asmoz. Lo geratu nintzen. Ahots bat entzuten nuen. Ametsetan ote? Ez M.^a Luisa zen, bere osaba nintzela uste zuen neska.

Haur honen amak ez daki lotsa zer den –pentsatu nuen–. Esan nion umeari amarekin joateko bestela niri leporatuko zidaten bera nirekin egon izana. Ez genuen

M.^a Luisaren ama aurkitu, beraz nirekin geratu zen amari itxaroten. Umea aspertu egin zen 15 minutu pasa ondoren, nik ez niolako hitzik egiten.

Patatak nahi zituela esan zidan. Ezetz ezin nion esan, bestela negarrez hasiko zitzaidan; beraz, patatak erostera joan ginen. Bidea memoriaz zekien eta berak eraman zidan bertaraino. Azkarra zen umea. Aspertu zenean, patatak erostera joateko esan zidan, bertan bere aitak lan egiten zuelako.

Aitarekin joan zen. Bere aitari hizketan hasi nintzaion, lana behar nuela etabar. Eta hau ere ez zen oso adeitsua izan nirekin. Gauza bat baino ez zidan esan eta oso pozik geratu nintzen horrekin. Bere lagun bat 500 € ordaintzeko prest zegoela bere pub-eko biltegia ondo txukuntzearen truke. Bere helbidea eman zidan. Bertara joan nintzen eta han topatu nuen Ramon, pub haren jabea. Behar nuen denbora guztia har nezakeela esan zidan eta dena ondo utziz gero 500 € emango zizkidala, baita ostatu bertan har nezakeela ere.

Ni horrekin pozik nengoen, lokala handia zen arren, hilabete barru etxean egongo nintzela pentsatseak adorea ematen zidan. Lanean hasi nintzen. Ordu erdi nola antolatu pentsatzeko. Gauzak ertz batean jartzen hasi nintzen. Segunduak. Minutuak. Orduak. Egun bat. Aste bat. Bi aste. Hiru... ia bukatuta nuen guztia, erratza pasatzea besterik ez nuen egin behar ertzainak heldu zirenean. Ramonek esan zidan:

Dirua motxilaren ezkerreko aldean duzu, nahi baduzu konprobatu. Eskerrik asko; oso ondo geratu da; baina orain alde egin ezazu istilurik nahi ez baldin baduzu.

Esan eta egin. Dirua zegoela konprobatu eta alde egin nuen. Hegazkin txartela erosi nuen. Suertea izan nuen eta hurrengo egunerako txartel batzuk geratzen zirenez, bat hartu nuen. Gaupasa egin nuen, batera eta bestera ibili nintzen gau osoa. Ez nuen maletarik ez ezer, biltegian jaten eta ostatu ematen zidatenez, ez nuen behar, motxila batekin nahikoa nuen.

Hegazkinera sartu baino lehenago, motxila laser izpietatik pasatzera joan nintzenean, droga aurkitu zuten. Kabroi hark droga sartu zidan motxilaren leku txiki batean eta gero alde egiteko eskatu zidan.

Beste bi urte. Bi urte luze. Mexikon. Errugabe. Zoritxarrez betetako bi urte. Berriz ere berdin. Kabroi hori kartzelan aurkitzeko eta bertan txikitzeko asmotan joan nintzen.



Nahia San Miguel - DBH 4. maila

MAITASUNAREN GAZI GOZOTAN MURGILTZEAN ♦♦♦

Maitasunaren argia egin zait
ene barrenean sartu,
disdira hori egin baitzuen
behin nire bihotzak sortu.

Isil-isilik dator nigana
haize lehun zein zakarra,
ezpainetako irribarre
zein begietako negarra.

Dena batera lotuta dago
tristura eta algara,
formula horren emaitza baita
maitasunaren beharra.

Zure ezpainen gozotasuna
beti nahi nuke nik dastatu,
eta beraietan gau eta egun
zeharo galduta sentitu.

Pasioaren bidetik noa
noraezean galduta,
hego haizeak goxo-goxo dit
bihotza zeharkatuta.

Ilargiaren disdira daukat
barren barrenean sartuta,
gau ederrean izar artean
naukazu liluratuta.

Bihotz barneko sasi gordina
mingarri eta mikatza,
gorputz guztia zulotzen didan
iltze luze eta zorrotza.

Nere bizitza zuzentzen duen
izar antzeko ardatza,
Zeu zara hori, ene maitea
heriotza eta bizitza.

Irudipena eta maitasuna
dena dabil jolasean,
su indartsua, etengabea
dabil gure odolean.

Sentimenduak, amodioa
eta grina elkartzean,
bion gorputzak eta bihotzak
bihurtzen dira batean.

Irribarre bizi bat
sortu da gure bihotzean,
bide luze eta polit bat
ireki da gure aldamenean.

Musika dastatzen dugu
elkarri begiratzean,
maitasun mugagabea
jaio da gure barrenean.

Iragana igaro da
egin dezagun aurrera bultza
etorkizunaren aterako daukagu
eskutan giltza.

Begiak egin zaizkit oraingoan
bete-beteen itsutu,
lotsa barnean daukadala
maitasuna dut benetan aurkitu.



ĪNFERNU SURREALĪSTA

Orain laztanek ahuldu dute
zauritu zenuen arantza,
giroa berotuz doa
baretu da haize latza

ZU ikustean ni ez nintzen hartan
sakonki-sakonki ohartu,
baina maitasunaren geziak zidan
niri bihotza zeharkatu.

Lerro batzutan idatzi nuen
neramana nik barren barrenean,
maitasuna sentitzen nuen
bertso hura irakurtzean.

Zure irribarreak ninduen
sakon-sakonki txoratu,
ezpain hoiekin amodio garra
egin baitzenidan zuk piztu.

Sortu genuen loreak,
alaitu zigun bizitza,
eta orain haziz doa
gozotuz gure bihotza

Gu bion bihotz apalak
Elkartu zirenean,
izar berri bat jaio zen
Unibertso barrenean.

Gauero keinuka dabil
Zeruaren magalean,
Gure bizitza argituz
Dantzatzuz gure bidean.





Irati Malaxetxebarria - DBH 4. maila

BIZITZAKO AITORMENAK

Hamazazpi urte bete berriak, bizi erdia ospitalean emana; beste erdia ordea, etxeko sofan etzanda. Azken hilabeteetan kimioterapiak aurrekoan baino gogorrago eragin dit gorputz osoan, ilea behin eta berriro eroriz, aurpegia zuri bilakatuz, hilabetero zenbait gramo argalduz... Gutxika gutxika ene argia itzaltzen ari dela nabaritzen dut, gibela gero eta okerrago dabilela, bihotza ere ez dabil betiko mar-txan; denborak aurrera egin ahala erritmoa geldotzen doa.

Heriotzak ez nau beldurtzen, ez! Badakit familiakoek faltan botako nautela, daukadan umore alaiagatik, baita sarri botatzen ditudan txiste txar guzti hoiengatik ere.

Beno utz dezagun gai gogaikarri hau eta gogora dezagun noiz eta nola hasi zen dena; hamalau urte nituen ohetik jeiki eta besteetan baino zuriago ikusi nindutenean. Ama ni ikusita izugarri larritu eta larrialdietara eraman ninduten, bertatik ospitalera eta jendez beteta zegoen eraikin nazkagarri hartan, era guztietako

probak egin ondoren, aditzera eman zidaten “Leucemia”, edo guk diogun eran, odoleko minbizia nuela.

Gurasoak gaixotasunaren garrantziaz ohartu bezain pronto guztiz suntsituta geratu ziren. Nire aurrean alai eta ezer pasatuko ez balitz bezala azaltzen ziren, baina gauetan amaren loetatik ateratzen ziren negarrak gogorki entzuten nituen hormak zeharkatzen nire belarrietara iristen; bai amarenak ziren. Aitarenak ez ditut sekula entzun ez entzungo, arazo guztien aurrean sendo eta adoretzu azaltzen baita, nahiz eta sarritan haren begietan inpotentzia dela eta tristura somatu dudana. Mirenek ordea, ez zekien gaixotuta nengoela, arrebak ilearen erorketa eta aurpegia zuri bihurtzearen berri zeukan arren, guk esandakoari kaso egiten zion. Hark esandakoa sinetsi eta kaleko jendeak nire egoeraz galdetzen zionean oso irribarretsu eta pozik erantzuten zuen “Galder, oso nagusi egiten ari da horren ondorioz erortzen zaio ilea ta dauka aurpegia txurituta.” Amak honen berri ematen zidan guztietan barrez lehertzen ginen biok batera. Arreba txikia zen momentu hartan etxeko argi bakarra, aurrera egitera bultzatzen gintuen arrazoia.

Jada urte eta erdi pasatu da gaixotasuna aurkitu zidatenetik; neguan gaude, kalean hotza da, baina ezin dut hotz hori nire azalean zehar sentitu, ezin dezaket kalera irten, ezta leihoa ireki ere. Gogorra da ohean egon behar izana, baina gogorragoa da oraindik, leihotik kanpora begiratzea eta jendea elur pilotekin jolasten dabilela ikustea eta zuk inoiz gehiago ezingo duzula horrelakorik egin onartzea.

Irailean sartzen geunden, eskola hastear zegoen, baina arazo harekin ezinezkoa zitzaidan institutora joatea, beraz, medikuen eta gurasoen artean etxera etorriko zitzaidan irakasle bat kontratatu zuten. Berak ikasketak aurrera eramateko ikasi behar nuen guztia irakatsiko zidan.

Lehen eguna iritsi zen, irakaslea 35 bat urteko emakume jatorra zen, Hiart izenekoa. Esan zidan moduan, Bergarako Institutuan zazpi urtez irakasten ibilia zen, baina hori utzi eta elbarritu edo behardunei laguntzea gustokoago zeukala ikusita horretan jarduteari ekin zion.

Berarekin batera ikasiko nuen guztia azaldu ondoren arreba txikia etxean zarata batean sartu eta niregana hurbildu zen lasterka bere lehen eskola egunean egindakoa kontatzeko asmoz. Hiartek agur bero batez agurtu ninduen, hurrengo egunean elkar ikusiko genuen eta.

Asteak pasatu ahala, gero eta asperrago nengoen egunero berdina egiteaz; baina ikasturtea hasi eta 2 hilabetera espero ez nuen bisita bat izen nuen. Neska zen; haren ahotsa ez zitzaidan familiako, laster konturatu nintzen lasterrago ere eztizko ahots hura nonbaiten entzunda neukala. Baina non?

Ama eta gaztea hizketan aritu ziren denbora luzez, ni bitartean burua estutzen nor izan zitekeen pentsaka. Eta bat-batean hizketaldia amaitu eta segituan nire logelako atea zabaldu zela somatu nuen. Ama zen, neska haren ikustaldiaren berri ematera zetorrena. Honek amaitu ostean neska logelara sartu eta nire klasekide ohia, Ainara, zela ikusi nuen eta segituan nuen itxuraz gaizki esaka hasi nintzaion buruari.

Neskak esku artean karpetatxo bat zeraman; ni harrituta hari begira gelditu eta neskak gorrituta, klasean emandako apunte batzuk ekartzera zetorrela erran zidan.

Ordutik aurrera bi asterik behin etortzen zen gurera Ainara. Arrebarekin harreman handia hartu zuen, primeran aritzen ziren biak batera jolasten, Hiarti izugarri laguntzen zion klasean ematen ari zirena azaltzen...

Gurean minutu eskaz batzuk egotetik, 2-3 ordu egotera pasatu zen, gustoko zitzaion gure etxea, edo pena ematen nion? Batek daki!

Gutxika gutxika, beragan lasterrago ikusi ez nituen gauzak behatzen nituen orain. Haren begiradak ene bihotza sutan jartzen zuen, ahots zerutarrak zorabiora eramaten ninduen, krabelinen usai ederrak erabat izerditzen ninduen... maitemintzen hasita nengoen.

Inori ezer esan gabe eman nuen ene bizi guztia, ezinezkoa zitzaidan sentitzen nuena ahozko hitzen bidez azaltzea, baina beharrezko nuen barrena askatzea. Beraz, ezkutuan poemak idazteari eta errealitate latz honi buruz kritikatzeari ekin nion jo eta ke.

Banekien Ainararekiko sentimendu guzti hoiak ezinezkoak zitzaizkidala, neskak gaixo moduan ikusten ninduen eta ez mutil eran. Baina ez nion jaramon handirik egiten guzti horri, bere usaina eta presentzia gertu egoteaz soilik pozten nintzen.

Bi urte pasatu dira hasi zenetik, hasieran ez bezala, orain ezinezkoa zait irakurtzea, ni bakarrik dutxatzea, idaztea, gaietan kontzentratzea, eta hitz egitea ere gero eta zailagoa zait.

Lehengo kontrara, orain beldur naiz, ez heriotzaz ez, Ainararen ahotsa, usaina... berriz ez sentitzeaz, bera gertu ez sentitzeaz, berarekin hitz gehiagorik ez egiteaz... baina ohikoa den moduan inork ez daki honen berri.

Martxoak 26, hamazortzi urte bete ditut, Ainara etxera etorri da, egunero egiten duen moduan, baina gaur ez da betiko gisa egon, zerbaitengatik arduratuta zegoela somatu dut haren aurpegian; ez du beste egunen antzera hitzik egin ez, beldurtuta ematen zuen. Inoiz baino lasterrago joan da, eta jakin badakit horren arrazoia.

Nire azken egunerako gutxi falta zaidala nabaritzen dut, eskuetara begiratzen saiatzen naiz baina ezinezkoa zait hori egitea, hiltzen ari naiz, geldiro oso geldiro, beldurrean murgiltzen.

Martxoak 29, etxean denak negarrez dabilta, ezagunak ere antzera, Mirenek jada badaki dena, eta beti alai eta irribarretsu zebilen horri, orain malkoak erortzen zaizkio masail gorrietatik behera. Aita ere tristeziaz malkotan murgildu da; lehen aldiz ikusi ditut haren begiak malkotan, erratuta nengoen, guztiz erratuta. Beranduago Ainara etorri da etxera lasterka penaz beterik, Miren besarkatu eta biak batera negarrez hasi dira indartsu. Pixka bat lasaitu ostean, arrebak, neska nire logela hustura eraman du, bertan mahai gainean zegoen poema bat eman dio. Nik

hari idatzitakoa hain zuzen. Ainarak eskuak dardaraz beteta dituela poema hartu eta irakurtzen hasi da.

Neskak ezin dio irakurketari jarraitu, minutu batez gelditu eta bular aldera gogorki eraman du, ondoren negarrez eta pozik jarri da hitzok berriz irakurtzean.

Poemak honela dio:

AINARA ZURETZAT

Zeruko gardentasuna bezalakoa da nire bihotza,
Zu nirekin zaudenean.
Infernuko iluntasunaren antzekoa,
Zu galtzearen beldurra.

Gurera etorri zinen lehen egunetik
Ene bitxilore bihurtu zara.
Ene argia,
Ene energia,
Ene bizia,
Ene bihotza,
Ene arima.

Zu ez zaudenean ito egiten naiz,
Arrainak uretatik ateratzean egiten duten moduan.
Krabelin usain hori, zure usaina,
Gertu ez daukadanean,
Erotu egiten naiz,
Guztiak pozoin usaina baitu.

Zatozen guztietan,
Zu ikusita zorabiatzen naiz,
Tontotu,
Lotsatu,
Gorritu.

Elkarrekin gaudela maiz amestu dut.
Nire egiten zaitudala,
Gure gorputzek bat egiten dutela,
Zure izerdia nire zainetan barrena sartzen dela,
Zure arnas sakona gertu sentitzen dudala,
Belarrira hitz ederrak esaten dizkizudala.

Bizitza hontan posible ez izan arren,
Badakit beste batean berriz elkar topo egingo dugula,
Ezberdina izango dela,
Maitatuko nauzula,
Zure egingo nauzula,
Zure beroa sentituko dudala,
Musukatuko nauzula,
Gure mihiiek elkarrekin jolastuko dutela.

Beldurak desagertu egiten dira nire ondoan zaudenean,
Eta guzti honetan pentsatzean lasaitu egiten naiz.

MAITE ZAITUT AINARA, IKARAGARRI GAINERA!



Urko Armaolea - BT 1. maila

“Ez nuen espero liburu honetan agertzea”

OPARI MAKABROA "BRUTUS"

Bazen behin lau pertsonako familia bat: Aita, ama eta bi seme, Santi eta Inaxio jr., hamasei eta hamabost urteko gazteak, motoetan adituak, (handitan motoen lasterketetako pilotu izateko asmoa zuten). Hauek Bakion bizi ziren, errepideertzeko txalet handi eta eder batean (igerileku eta guzti!!!).

Familia honek txakur bat zeukan, Brutus izenekoa, saltxitxa txakurra, hamabi urtez bizi izan zen familiarekin, baina txakurra zahartzen ari zen eta ia ez zen mugitu ere egiten. Izeko Amaiak oparitu zion Inaxio jr.-i bere urtebetetze egunean. Aita eta ama ez zeuden oso pozik opariarekin, baina denbora pasatu heinean, ikusi zuten, txakurrak enbarazu egin beharrean, poza ekartzen zuela. Familiako bostgarren kidea zen Brutus.

Abendua zen, Gabonak bueltan, hotz izugarria egiten zuen. Brutus gaixorik zegoen, oraindik kasu egiteko adorea zuen, baina aitak nahiago zuen txakurra hil,

horrela sufritzen ikusi baino. Abenduko gau hotz hartan, denak lo zeudela, Brutus autora sartu eta Gernikako bariantera eraman zuen. Han, bazter batean abandonatuta utzi eta joan egin zen. Aitak pena izugarria izan zuen txakurra han uztean, baina ez zuen txakurra hiltzeko balorerik izan. Txakurra hantxe geratu zen bere begi negartiekin autoari begira, baina mugitu ere ez zen egiten.

Hurrengo goizean, ama, Brutusi "breakis excell"-ak (gosaria) ematera joan zitzaionean, ez zuen aurkitu eta deika hasi zen: "Brutus!!, Brutus!!", baina txakurra ez zen ageri. Denak esnatu zituen eta inork ez zuen Brutusen berririk. Bat-batean, txakurraren atea zabalik ikusi zuten eta ihes egin zuela pentsatu. Hiru egun geroago, oraindik bila jarraitzen zuten baina ez zen inon azaltzen, beraz desagertutzat eman zuten denek, baina aitak oraindik Brutusen begiak gogoratzen zituen, baita utzi zuen tokia ere eta begiak bustitzen zitzaizkion.

Amak, bere bihotzeko txakurra zuen buruan, eta ez zuen bizirik ikusteko esperantzarik galtzen. Baina desagertzen haren ondorioz ez zuen bururik altxatzen, eta egun guztian gogoratzen zuen Brutus, ez bazen gauza batengatik, beste batengatik. Burura zetozkion txikitari egiten zituen barrabaskeriak: aitari zapatilak triskatu, sofa gainean txiza egin, urrutiko agintea ezkutatu (auzoko Feliren petunietan agertu zen). Kumetxoa zenean, euren ohera joaten zen. Bien tartean geratzen zen lo, momentu horretan, aitak ohetik atera eta alfonbraren gainean uzten zuen.

Brutus bariantean utzi eta hurrengo egunean, familia bat oporretatik zetorren Gernikako bariantetik. Beraien alabak, Nereak, Brutus ikusi zuen errepide ertzean eta aitari autoa geratzeko esan zion. Brutus autora igo, manta batekin tapatu eta goxo-goxo eraman zuten. Baina etxera iristean, txakur gizajoa hil egin zen.

Nereak, lurperatu egin nahi zuen Brutus eta kutxa baten bila joan zen. Aurkitu zuenean, Brutusi, zetazko xingola polit bat jarri zion saman eta kutxa koloretako paperaz forratu zuen. Amak Nereari etxe aurreko bankuan itxaroteko esan zion, Brutus lurperatzera joango zirela eta. Traste guztiak hartu eta etxe aurreko bankuan eseri zen, baina euria hasi zuen eta aterkiaren bila sartu zen etxera. Kaxa kalean geratu zen banku gainean.

Momentu hartan, Santi eta Inaxio jr. Pasatu ziren bertatik beraien motoetan, eta kaxa berezi hura ikustean, gelditu eta eraman egin zuten. Amak etxera iristen ikustean, garajera joan zitzaien itxarotera, eta opari kaxa hura ikustean, esan zion: -Ene!, zuek ere aitaren urtebetetzearekin gogoratu zarete eeeeeeeeeeeeeeee!!! Zer erosi diozue?, seguru ilusio handia egingo diola aspaldi hontan nahiko burumakur ikusten dut eta animatzeko zerbait behar du. Santik eta Inaxio jr.-ek, ezin izan zioten esan banku baten gainean aurkitu zutenik, beno, amak ez zien ezer esaten utzi, eta aitarengana eramateko insistitzen zien, baina mutilek eurentzat nahi zuten paketea. Hala ere insistitzen jarraitzen zuen, ilusio handia egingo ziola eta.

Amak semei kaxa eskuetatik kendu eta korrika batean aitarengana eraman zuen, noski semeak atzetik joan zitzaizkion segika. -Inaxio, Inaxio maitea!! Begira

zer nolako oparia ekarri dizuten zure semeek. Santi eta Inaxio jr. Lotsa-lotsa eginda zeuden eta “zorionak” triste bat esan zioten bere aitari. Inork ez zekien zerk irten behar zuen opari hartatik, aitarentzat ez ezik, beste guztientzat ere sorpresa itzela izan behar zuen oparitik irten behar zuenak.

Aitak pozaren pozez oparia ireki eta... ezin izan zuen sinestu begien aurrean zuena, ez aitak ez beste inork. Guztiak egon ziren dar-dar oparia ireki baino lehen, baina aitak kutxa irekitzean, dardara guztia geratu eta zainetako odola izoztu zitzairen denei.

Hura bai opari makabroa!!!



Iñaki Eskibel - BT 1. maila

“Nik behintzat, bai euskarari”

AMETS GAIZTOA

“Euzkitza” baserria Euskal Herriko tokirik polit, alai eta lasai batean zegoen kokatuta. Izatez, “Aldebazter” auzoko izkinarik aproposenean zegoen kokatuta. Ekialdean “Aldamiz” auzo osoa miresteke aukera zuen eta aurrez aurre berriz, itsaso zabala. Zenbat aldiz ikusi ote nuen goizean goiz egunsenti berria ispilu zabal hartan isladatuta. Txiki txikitan amarekin ikasi nuen ohitura hori. Amak beti esaten zidan noizbait berak mundu hau usten zuenean eta nik berarekin hitz egin nahi nuenean, itsasoan zeuden izar isladei begiratzuz hitz egin nezakeela. Urteen joanean apurka apurka gaixotasun baten ondorioz ama hil egin zitzaidan eta nik berak eman zidan aholkua jarraituz gauero gelako leihoa irekiz berarekin hitz egiteko aukera nuen. Nire ama Aldamiz osoan zeuden emakume lirainenak batuta baino askoz ere ederragoa zen. Bere ile luze, kiribildu eta harrotua ekaitz egunetan lapatzan apurtzen zuten olatuak baino ikusgarriagoa zen. Bere begi borobil borobil eta sakonak ilargi betearen parekoak ziren eta bere aurpegiko azal zuriak elurrez

estalitako belardi baten itxura zuen. Aurpegiko ezaugarri guztiak batuzgero mundu-ko paisaiarik ederrena osotzen zuten.

Zorionez, nirekin batera aita eta Markel anaia bizi ziren. Nahiz eta zorionez esan ez zen dena zoriona izaten. Izan ere, gure bizibidea baserria zen eta diru aldetik inguruko etxeak bezela oso eskas genbiltzan. 1983 an 18 urte nituela eskola utzi nuen. Geroago eskola horiek itxi egin zituzten gazte falta zela eta, eta azkenik herriko gazteek hartu zituzten denbora librean erabiltzeko. Ordutik aurrera aitari laguntzen ibiltzen nintzen eta niretzako diru pixka bat irabazteko Aldamizko igeltsari batekin ari nintzen lanean. Lehenengotaz, gustura hasi banintzen ere, zenbat eta denbora gehiago pasa orduan eta gogorragoa izaten zen lana, izan ere, Artia osoko etxe zein lan guztiak bere esku zeuden.

1984-ko abuztuaren 20-a zen. Gaueko hamarrak emateko ez zen ia askorik geratzen. Igeltsari beharrak bukatu ondoren eta baserriko zereginak amaitu eman ostean afaltzen amaitzen genuen eguna, baina, egun hartan, buruan genituen buruhauste guztiak ahaztea nahi genuenez, ezer afaldu gabe oheratu ginen. Gure irudimenaren itsasoan murgildu eta bertako goxotasunean amets goxoak edukitze-ko. Hala ere oheratu aurretik leiho izkinan eseri eta ia gauero bezela amarekin hitz egin nuen. Nik banekien sekula ez zidala erantzungo baina hor zegoela erakusteko beti izar bat besteak baino disdiratsuago jartzen zen. Ordurarte dena beti bezela zihoan baina lokartzerakoan...

Bat batean zarata bat entzun nuen! Ez zen oso arraroa gure etxean zarata bat entzutea hainbeste behi, asto eta txakur artean baina ez zen izan zarata arrunt bat. Ia bost minututan adi-adi egon nintzen eta ez nuen ezer ere nabaritu baina argia itzaltzera nindoala berriz ere zarata bera entzun nuen. Orduan bai! Argi zegoen zarata hori Iparraldetik zetorrela edo hobeto esanda itsaso aldetik! Leiho aldera hurbildu nintzen, ireki eta edozer gauza ikusteko prestatu nintzen, baina, alderantziz dena oso lasai zegoen eta ez zen inolako mugimendu arrarorik ikusten. Nahiz eta sekulako harridura sentitu ezin izan nuen beste ezer egin eta seko lo geratu nintzen. Biharamunean beti bezela 7:00 tan jaiki nintzen eta orduan konturatu nintzen Markel etxera iritsi berria zela. Horri erreparatu handirik egin gabe aurrera jarraitu nuen.

Tripa bete ondoren anaia eta biok behiak eransten genituen. Egun horretan Markelek ez zuen zirkinik ere atera eta goiz osoan egon zen bere pentsamenduetan murgildurik. Are gehiago, zerbait galdetzen nionean bere erantzuna oso urduri egongo balitz bezalakoa izaten zen. Behiekin amaitu genuenean eta aitaren eskariz, Artiara jaitsi ginen erosketak egitera. Han bazegoen denda txiki bat, herri guztiak bertan erosten zuena. Bidean gauean entzun nituen zaratei buruz galdetu nion eta bere erreakzioa oso arraroa izan zen. Ezer ez zela izango baina, badaezpada ez hurbiltzeko erantzunez gaia guztiz aldatu nahi izan zuen. Arratsaldean, igeltsariak jai eman zidanez, lagunekin geratu eta Artiako portura joan ginen bainu eder bat hartzera. Nahiz eta gure gurasoak gaztetan beti joan lapatzara guk ez genuen ohitura hori eta gainera Artia aldean lagun pila bat genituen. Herri honen funtzionamendua oso arraroa zen: neguan herriko aurpegi ezagunak bakarrik ikusteko

aukera egoten zen baina, udan berriz, herria kanpotarrez betetzen zen eta ia inor ez zen ezaguna. Niri neguan gehiago gustatzen zitzaidan bertako giroa egokiagoa izaten zelako eta bertako gazteekin hainbat eta hainbat pasadizu pasatutakoa nintzelako. Herrian bazegoen halako aguazil bat. Bera lbarrangelukoa zen eta herrian gertatzen ziren ezbehar txikiez arduratzen zen. Ni neu honen lagun handia nintzen, izan ere, gure etxera hainbat biderrez etorria zen zenbait konponketa egitera.

Gauean berriz ere baserrira joan nintzen. Behiak, belarra, sutarako egurra... bukatu ostean ondo afaldu genuen. Gure etxean legezkoa zen hori, eta aita eta biok telebista ikusten jarri ginen. Orduan iritsi zitzaigun eguneko sorpresa. Markel gelan sartu eta aitarekin hitz egin nahi zuela esan zuen. Aitak berriz, ni ere familiakoa nintzela eta nire aurrean konta zezakeela eskatu zion. Markel urduri zegoen baina eskatu ziona ez zen beste munduko ezer izan: lan bat egin behar zuela eta egun batzuetan etxetik kanpo egongo zela eta ez arduratzeko. Izan ere, lehenengo aldia zen Markel etxetik irteten zena. Lo egiten beti gustatu izan baitzaio etxeko giroa. Besterik gabe maleta egin eta lagun bat etorri zitzaion bila. Guk ere ohera joatea erabaki genuen eta aurreko egunean bezela loak harrapatu baino pixka bat lehenago zarata bera entzuten nuen. Leihora hurbildu eta ez zen ezer ageri eta orduan erabaki nuen arropa hartu eta Euskiren konpainiarekin bertara joatea. Nahiz eta gaua izan jada nagusia nintzen beldurra somatzeko eta besterik gabe zer izango zen, nere barruan ipuinak sortuz heldu nintzen ttoko barreneraino. Han arraroa bada ere itsasontzi handi bat ikusteko aukera izan nuen. Bera zen zarata horiek ateratzen zituen eta bazirudien norbaiti seinaleak egiteko erabiltzen zituela zarata keinu haiek. Harroka batzuen atzean egon nintzen ea zerbait gehiago gertatzen zen baina, nahiz eta denbora luzea egon gaueko freskura izan zen harrapatu nuen adiskide bakarra. Ordu bat pasatakoan berriz etxera itzuli nintzen. Han ikusitako norbaiti kontatu nahi nion baina jakina Markel ez zegoen etxean eta aitari ezin nion kontatu ordu haietan etxetik irten nintzela. Beraz, biharamunerarte itxaron nuen.

Goizean eta arratsaldean lan egitea tokatzen zitzaidan eta gainera egun hartan doblea Markel-en falta zela eta. Arratsaldean "Land-Rover" zaharrean Artiako etxeren batera joan beharra genuen ez dakit zer nolako konponketak egitera. Bukatutakoan "Aldamizargi" baserrira joan nintzen. Han bizi baitziren nire hiru lagunak. Besteak gazteegiak zirela eta Imanoli bakarrik kontatzea erabaki nuen jakin nuelako beraren laguntza ez zitzaidala faltako. Berari ere oso arraroa egin zitzaion eta esan nion momentutik sekulako jakin mina adierazten zuen, beraz, gau hartan ere nik zarata hura entzuten banuen biok batera joango ginela. Afaltzerakoan ez nuen ia barbarik egin. Ez dakit, urduri nengoen baina aitak zerbait igarri zidan. Ez dakit zer gertatzen den baina gurasoek badute horrelako sen berezi bat gu izorratzeko, izan ere, gau horretan zarata hura entzun ostean etxetik irtetzera nindoala bat batean konturatu nintzen oraindik aita telebistan zegoela. Beste erremediorik barik leiho aurrean nuen zuhaitzera salto egin eta bertatik behera jaitsi nintzen ahal izan nuen moduan. Dena zegoen prest. Orain Imanol abisatzea bakarrik falta zen eta horretarako Garaiko zabaletik aurrera, Bisketxe eta Naparrene pasatu ostean heldu nintzen Aldamizargira. Harri koskor bat laguneren logelara bota eta segituan

bertatik Imanol irten zen Ganex eta Jagobaren ezuzteko aurpegien atzetik. Ia bost minutu bakarrik egin genituen lapatzarainoko bidean. Seguru Lapatzako jaitciera izeneko lasterketaren bat egongo balitz gu izango ginatkeela irabazleak. Aurreko gauean bezala itsasontzi berdina leku berean zegoen. Bertan egin genituen hamar minutu zain baina inor hurbiltzen ez zela ikustean gu geu hurreratzea erabaki genuen. Arropak amen batean erantzi eta segituan uretan murgilduta geunden. Itsasuntzirainoko bidea ez zen oso luzea eta konturatzerainoko bertan geunden. Barruan zer aurkituko genuen misterio bat zen eta biok geunden buruari buelta eta buelta sariren bat agertuko zenaren itxaropenarekin. Uretatik irten eta itsasuntzia mihatzen egon ginen. Segituan argi geratu zen inor ez zegoela barruan eta ez genuela inolako arriskurik jasaten. Hala ere nik barruan banuen halako korapilo bat, anaiak esan zidan aholkuari muzin edo kasurik ez egiteagatik. Izan ere, goizean esan zidan handik hurbildu ere ez egiteko. Nire pentsamentuetan murgilduta nengoen bitartean Imanolek itsasontziko logeletan pakete bat aurkitu zuen. Beste baliozko ezer ez genuenez ikusi geuretzat hartzea erabaki genuen eta etxeraino eraman nuen. Paketea gau hartan goitik behera aztertu nuen, barruan zegoena irekitzen ausartu gabe.

Gaua ia lorik egin gabe pasatu ostean goizean goizetik jaiki eta lanera joan nintzen. Den dena betiko moduan zegoen eta azkenik neure burua lasaitzea lortu nuen. Ondo bazkaldu ostean eta behientzako belarra moztu ostean, Imanolengana joan nintzen Aldamizargira. Jadanik bere anaia eta lehengusua ere jakinean zeuden. Inor ausartzen ez zela eta, pakete hari heltzea pentsatu genuen. Neuri tokatu eta birritan pentsatu barik neukan gogo guztiekin gaineko papera kendu nion. Ai! zer nolako sorpresa hartu genuen!

Ziur ez geunden baina gure eskuetan genuena droga zelakoan geunden. Inoiz holako gauzarik ikusi gabekoak ginen, baina pelikuletan ikusten genuenez ia ziurtasun osoan geunden.

Birritan pentsatu gabe, Artiara joan ginen lehenbailehen aguazil honen erantzule jartzera, izan ere, momentu hartan arazo larri batetan sartuta geundelakoan geuden. Aguazilak ere ikusi zuenean guk jarri genuen aurpegi berbera jarri zuen. Honek denbora luzean zebiltzala kontrabandoko sare baten atzetik azaldu zigun eta gugaitik jada, arazo hura amaitzear zegoela.

Honek bere lagun batzuei deitu eta gauerako plana egin zuten. Betiko orduan prets egongo ziren kontrabandistak harrapatzeko.

Aguazilarekin batera arratsalde osoa pasatu genuen guk genekiena kontatzen eta gauerako estrategia bat antolatzen. Konturatu ginenerako gautu egin zuen. Artiako taberna batean guztiok afaldu ostean, bakoitza beraien mendiko autoetan sartu eta Lapatzarantza abiatu ginen. Heldu ginenean dena oso lasai eta normal zegoen, uretan ez zegoen inolako itsasontzirik! Hala ere, zain geratzea erabaki genuen eta betiko harrokaren atzean denok batera eseri ginen. Bapatean itsasontzia heltzen ikusi genuen eta horrekin batera norbait oinez zihoan bertaraino harririk harri, ziurrenik paketearen bila. Itsasontzikoak zirudienez nahiko haserre

zegoen. Antza aurreko gauean Imanolek eta biok pakete hura lapurtu izanak ez zion inolako graziarik egingo. Lehorrekoak hiru pakete berdin hartu ostean, berriz ere gorantza joateko asmoa zuen itsasontziko gizonarekin. Ez geneukan ideiarik nor izan zitekeen baina hurbileko norbait izan behar zen egunero hor egoteko. Bapatean, gure atzean zeuden gizon isilak korrika batean zulotik irten eta pistolaz apuntatzen zituzten bi ezezagunei gelditzeko eskatuz. Hauek birritan pentsatu gabe ihesari eman zioten eta nahiko urruti zeudenez, pistoladunek segituan tiro bi bota zituzten. Sekulako isiltasuna somatu genuen segundu batzuetan. Guri esker kontrabando sarea amaierara iritsi zen, baina pertsona biren bizia ere akabatu genuen eta oraindik nortzuk ziren jakin gabe geunden. Korrika batean ni neu izan nintzen lehenengo iritsi zena berria emateko Herrira. Hura zorigaitza! Han lurrean luze botata zegoen gizonetariko bat neure anaia zen! Markel!

Dena amets gaizto bat izatea gustatuko zitzaidan. Momentu hartan neure buruaz beste egiteko gogoia bakarrik neukan. Eta sufrimendu horretan ari nintzela konortea galdu nuen.

...1984ko abenduaren 21a zen. Goizeko zazprietan Markelen logelara joan eta bai, bertan zegoen lo sakonean. Eskatzera jaitsi eta gauean izandako amets gaiztoari garrantziarik eman barik gosaria prestatu nuen. Aurreko gauean afaldu ez izanak sekulako gosea sortu zidan eta.



Diego Borchers - BT 2. maila

*“Olatuen gainean zeruan bezalaxe sentitzen naiz.
Informatika ingeniaria izan nahi dut”*

BESTE ATZERRITAR BAT

Hona etorri nintzenean, sei urte besterik ez nituela dena oso ondo gogoratzen dut. Badakit Afrikan zelan bizi izan ginela, eta nola bizi hobea bat topatzera etorri ginen. Hamar urte beranduago, oraindik ez naiz ohitu leku honetara, nire benetako herria faltan botatzen dut. Bizitza guztiz desberdina da. Marruekoson familia osoa bizi ginen etxean, hamalau ginen etxean eta ni txikiena nintzen. Gurasoak, anai-arrebak, aiton amonak, osaba eta izeko eta azkenik lehengusuak. Asko ginen, bai, baina bertan denok batuta, jolastu, ipuinak kontatu eta abar egiten genuen. Etxetik kanpo zen gehien desberdintzen zena gaur hemen dugunarekin. Han basamortua izan arren, kalean aritzen ginen korrikan eta futbolekin. Auzokoek taldeak eratzen genituen eta arratsalde osoak igarotzen genituen jolasten. Hura zen niri gehien gustatzen zitzaidana. Hortaz aparte, banituen zenbait lagun ikastolara joaten zirenak, baina ni ez nintzen inoiz joan, ez genuelako diru askorik eta gauza garran-

tzitsuagoaz zeudelako ordaintzeko. Horregatik, aitari asko laguntzen genion bere dendan. Ama berriz etxean geratzen zen, gauza guztiak garbitzen eta etxea txukun mantentzen. Hortaz aparte, erosketak egiten zituen eta baita janaria ere.

Apirileko goiz batean, aita goiz erdian etorri zen. Denda zarratu zioten ogasun zentrotik, zergak ez zituelako ordaindu azken urtean. Izan ere, urterik urriena izan zen eta etxeko kontuekin oso justu ibili ginen. Azken bolada hartan inoiz baino urduritasun gehiago sentitzen zen eta gure aita gero eta gehiagotan haserre etorzen zen etxera, diru kontuak txarrerantz joaten zihoazelako.

Gau hartan, familia osoa afaltzen geundela, aitak azaldu zigun, lagun batek esan ziola, Europan bizitzeko kalitatea guztiz desberdina zela: jendeak egunero 3 edo nahi zuen beste bider jaten zuela, etxe dezente bat zuela, eta herrietako zerbitzuak izugarrikoak zirela, bai garraibide publikoa, bai kaleen kalitatea, bai osasun zerbitzua. Dena orokorrean zen pelikuletan bezala. Aitarenean laguna ere ezagutzen zuen itsasontzi bat zeukan mutil bat, itsasoa zeharkatzeko. Espainiako kostaldera heldu bezain pronto oso erraza zela bizitza topatzea zioen. Denok isilik geratu ginen, burumakur. Egia zen gure egoera nahiko larria zela, baina ez genuen ihes egin nahi. Aitak, lan bat bilatzea proposatu zuen eta azken kasuan herrialdetik ihes egitea zen egokiena.

Aste bat igaro zen eta aita egoera berdinean jarraitzen zuen. Nik banekien ez zuela ezer lortuko, baina behintzat ahalegindu zen bizitza aurrera eramaten.

Egunak joan egunak etorri, etxeko egoera txarrerantz joan zen. Janaria gero eta urriagoa bilakatu zen. Aitak erbabaki gogorra hartu zuen. Ezin zuen jasan horrelako egoerarik bere familian. Baina ama ez zegoen ados, beldur zen eta bera hor geratuko zela zioen. Ondorioz, gau guztia igaro zuten eztabaidan. Nik ere ez nuen lorik egin urduritasuna zela eta. Ez nuen nahi herria utzi eta kanpora joatea; nire lagunekin egotea nahi nuen eta egunero futbolera jolastea.

Hurrengo goizean, erabakia hartuta zegoen: ama herrian geratzen zen eta aita berriz atzerrira joango zen. Anai-arrebak ere aitarekin joateko pentsatu zuten, baina nire bi arrebak ez zuten hori onartu. Hauek nahiko helduak zirenez erabakia hartzeko baimena zuten eta beraz, amarekin herrian geratu ziren.

Inork ez zuen nahi kanpora joan, baina aitak behin eta berriz gogoratzen zigun, bizitza hobeago batean egongo ginela laster. Nik, neure partez, aitarengan konfiantza neukan eta bai, sinesten nuen leku egokiago batean biziko ginela. Beraz, aita itsasontzia zeukan mutilarekin geratu eta familia kide bakoitzaren sarrerak ordaindu zituen. Bidaia bi egun barru izango zen. Bidaiariak, aita, hiru anaiak, osaba, izeko, lehengusu bi eta ni ginen; guztira bederlatzi. Etxean geratzen zirenak berriz, ama, arreba biak, eta aiton-amona. Niri banaketa hura espero baino latzagoa egin zitzaidan, denok batera bizitzen egotearen ohitura nuelako.

Pasatu ziren egun biak eta bidaiariak prest geunden. Eramateko gauzak gutxi ziren: janari apur bat eta etxean geneuzkan arropak. Bazkaldu ostean, dena poltsa batzutan sartunda genuela, hasi ginen banan-banan agurtzen eta berriro ikusteko esperantzarekin, autobus bat hartu genuen itsasertzera eraman ginduena. Heldu

ginen herria, nahiko txikia zen eta jendea gure herrian baino txiroagoak ziren, ia denak kalean eta jateko barik. Irudi hura buruan grabatuta geratu zitzaidan, asko hunkitu ninduelako.

Portuan zegoen itsasontzi gorria, bertan aitaren kontaktua zegoen guri itxaroten. Esan beharrekoa, itsasontzia erabat txikia zela baina nahikoa guretzako. Arratsaldeko 7ak ziren jadanik; gidariak, ordu batetan irtengo ginela adierazi zigun, gauzez bidaiatzeko. Ni beldur nintzen eta horregatik nengoen nire aitari itsatsita. Bera guri lasaitzen saiatzen zen behin eta berriro, dena arin amaituko zela esanez. Bestetik, nahiko motela egin zitzaidan itxaron beharreko azken ordua.

Burura irudi eta gogoramen ugari etortzen zitzaizkidan: Nire lagunekin futbolearen arratsalde osoan gaba egin arte, nire aitarekin dendan gauza asko ikasten, eta batez ere etxean, familia osoa batera egiten genituen bazkariak eta ondorengo kontakizunak, aitona eta amonaren eskutik.

Beste alde batetik patuan pentsatzen nengoen, bizitza berria nola izango zen imajinatzen. Zaila zen, ez nuelako inolako erreferentziarik Europako herrialde bat imajinatzeko. Hala ere, zerbait ikusten nuen, bai, etxe handiagoak eta kotxe gehiago kalean.

Heldu zen ordua itsasoratzeko. Gaua hasi berria zegoen eta hotza sentitzen hasi zen. Nik neure jertsea jarri nuen eta nire anaiekin bildu nintzen. Itsasoaren egoera nahiko ona zen, baina kostatik urrundu ahala haizea gero eta zakarragoa zen. Olatuak ere tamainaz handitzen joan ziren eta ontzia indarrez mugitzen zen, baina ontziaren jabeak zioen normala zela. Nire aita eta osaba-izekok irribarreak bidaltzen zizkidaten, baina leku hartan tentsio asko zegoen. Bakarrik ikusi behar ziren bidaiarien aurpegiak, denbora guztian begira inguruneetara. Nire aitari galdetu egin nion zergatia eta honek erantzun zidan, poliziak ezin gintuztela ikusi, bestela... isildu egin zen. Nik banekien zeozer txarto zihoala. Kasu honetan, nik egin nion irribarre. Hala ere, triste jarri zen eta gogor besarkatu ninduen. Sekula ere ez nuen ikusi aita hain arduratuta eta triste.

Ordu bat ere ez zen pasatu Espainiako lurraldea nahiko gertu ikusten hasi ginenean. Gidariak azaldu zigun, zortearekin ordu erditan bertan egongo ginela. Honekin batera esan zigun, normala baino itsasontzi gutxiago zeudela nabigatzen eta hori oso zorte ona edukitzea zela.

Giroa gero eta txarrago zegoen baina espero baino arinago heldu ginen kostaldera. Bertara hurbiltzean, ikusi genituen polizia agenteak euren armekin militarrez jantzita. Horren ondorioz norabidea aldatu eta abiadura handitu egin genuen, polizia bistatik desagertu arte. Momentu hartan, ziztu bizian hondartzara heldu ginen eta ontzitik salto ondoren korrika hasi ginen barrurantz. Gaua zenez ez zen gauza askorik ikusten baina nahikoa aurrerantz joateko korrikan. Horrela jarraitu genuen ordu erdi gutxi gora behera baso zarratu batera heldu arte. Nire aitaren ustez lekua segurua zen eta bertan igaro genuen gau osoa. Aurreko gauean ondo lo egin barik eta egun osoko mugimendurekin, berehala geratu nintzen lo, baina nire anai guztiak ez zuten gauza bera egin.

Biharamunean, eguzkia nahiko goian zegoenean izartu nintzen. Guztiz deskantsatuta sentitzen nintzen eta horrek alaitasuna sorrarazi zidan. Gertu zegoen errepide batera hurbildu eta bertan itxaroten egon ginen furgoneta bat heldu arte. Errepidearen ertzean geratu zen eta atea zabaldu zuen. Nire aitaren lagun bat zen. Aurretik deitu egin zion eta gure plana kontatuta laguntza eskaini zigun.

Bertatik hurbil zegoen herri batera eraman gintuzten eta handik aste batera herri handiago batera mugitu ginen, gaur bizi naizen lekua, Almeria.

Sam deitzen naiz eta hamasei urte ditut. Marruekosetik etorri arren, orain Espainian bizi naiz. Hona heldu nintzenean beste atzerritar bat nintzen, gaur ordea, gauzak aldatzen ari dira eta leku bat egiten hasi gara gizartean. Espainolen eta atzerritarren arteko tratua gero eta hobeagoa da eta arrazen arteko berdintasunera heltzeko gutxi falta zaigu. Nire ustez helduko da eguna, non arrazakeria ez den exitituko, baina arazo hau denon esku dago eta hezkuntza ez bada zaintzen ez dago zer eginik.



Iera Uriona - BT 2. maila

“Bizitzan sarritan hobe da gehiegi ez pentsatzea”

LASAI ASKO

–Beno, bihar arte orduan.

–Agur –guztiak aho bete.

–Kontuz bidean! –beste batek.

–Beti kontu berdinarekin, zer gertatuko zait niri...

Jakea jantzi, bufanda itozteko modura lotu eta ispilura begiratzen duzu: “*Hezetasun madarikatua, horrenbeste denbora ilea lisatzen honetarako...*”.

Musika tramankulua belarrietan tinkatu, kalera irteten zara.

Gorputz osoko ileak puntan jarri zaizkizu. Aire hozkil zorrotza arnastuta, gorputz osoa uzurtu duzu, sorbaldak gora igoz, inkontzienteki. Zigarroa erre gabe, ahotik kea irten zaizu. Eskuak patrikan ezkutatu, eta ibiltzen hasi zara. Herria iluna eta bakartia da; goibela, tristea.

Zarata bat. Gorputzak dar-dar egin dizu. Atzera begirada bat. Ezer. Ezusteko bat beterik ez. Orduan lagunak esandakoa etorri zaizu burura, “Kontuz”. Musika tramankulua kentzen duzu, bada ezpada. “beldurti *hutsa eginda zaude... Tontakeriak, herri lasai batean ez dira horrelako gauzak gertatzen, tontakeriak...*”-zeure barnerako.

Aurrera jarraitzen duzu. Orain eskumetara jo behar duzu. Lurrean itzal bat ikusten duzu. Dardara, nahigabeko ikara. Begiak zabaltzen dituzu, adi. Mesfidantzaz eskumetara egin eta zuhaitz baten itzala besterik ez dela konturatzen zara. Barre egiten duzu. “*Kakatia...*”. Eta lasai, aurrera jarraitzen duzu.

Ilea eskuekin orrazten saiatzen zara, erakusleihen islapenari begira, disimuluz. Ondoko eraikinaren atondo izoztuan begiratzen duzu oraingoan. Ezustekoan, gizaki baten zilueta nabaritzen duzu kristalaren beste aldean, geldi. Gogor arnastu duzu, begiak zabaldu, bekainak gorantz joan eta atzerantz egin duzu gorputzarekin. Beldurra, zer egin ez jakinda.

Aurrera jarraitzen duzu. Ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzeko duzu. Baina orain arinago zoaz. Atzera begiratzen duzu. Ezer ez. “*Koldarra...*”.

Herri bakartiaren eraikinak begiratzen dituzu, goitik behera, forma eta itxuran erreparatuz; kolore goibelak. Bitartean eta bat-batean auto bat pasa da zure ondortik. Auto gidaria, gizonezkoa, atzerako ispilutik begiratzen duzu. Zuri begira dago. Sentsazio desatsegin bat nabari duzu beregan; erakarpina, baina gorrotoarekin nahasturik. Konbinazio arraroa, maltzurra. Biluzik sentitzen zara, edonolako zitalkeri baten atzean. Hotzikara.

“*Telebistaren eragina...beldurtia halakoa !!!...*”.

Berriz beste zarata bat. Berriz ere atzera begiratzen duzu. Berriz ezer ere ez. Zure ingurua aztertzen duzu. Eraikinak aztertzen dituzu. Eta leiho batean, pertsona bat dago, zuri begira, geldi. Eta beste leiho batean beste bat. Eta beste batean beste bat. Eta beste bat. Arretaz. “*Zer gertatzen da?*” Indartsu hasperenka... Beste zarata bat. Atzera begiratzen duzu. Berriz ere leihoetara begiratzen duzu. Ez dago inor. “*Non sartu dira?*”

Oin-hotsak. Atzera berriz. Bi pertsona dira, etorkinak. Zure ingurura begiratzen hasi zara. Ez dago inor. Beldurra. Ikara. Ausardi falta. Oraindik arinago zoaz. Atzerantz begirada. Bihotzaren taupadak ziztu bizian doaz. Zu baino arinago. Tentsioa. Bi tipoak beste bide bat hartzen dute. Hasperena...

Beste zarata bat. Beste kotxe bat. Norbait zuri begira dagoela nabaritzen duzu. Atzera berriz. Arinago zoaz. Etxera heldu nahi duzu! Bihotzaren taupadak... Pum-pum, pum-pum..... “*Kontuz*”, “*Zer gertatuko zait niri...*”.

Arnasestuka hasi zara, gogor, ezinean.

Filma baten barruan egongo bazina bezala ikusten duzu zure burua, baina orain zu zeu zara protagonista. Txanogorritxo basotik doan eran, otsoaren beldur...

Zoramena...

[...]

“Manu! Bai! Manu da, bai! Gizon hori Manu da! Eskerrak..” Lasaitasuna. Lasaitu ederra. *“Gutxienez, zerbait gertatzen baldin bazait, Manuk lagunduko nau. Oso tipo atsegina, amaren laguna. Eskerrak...”*. Pentsatzen hasten zara..

“Benetan beldurti, koldarra naiz, ja ja ja... Paranoiak joan zaizkizu burutik. Ttelebista gutxiago ikusten hasi beharko dut. Horrelako kontuak hiri handietan baino ez dira gertatzen. Herri txiki honetan zer gertatuko da ba? Eta gainera niri! Suerte txarra izan behar da, ikaratzea ere... ja ja ja...”

–Agur Manu!

–Bai, gabon. Kontu handiz ibili behar duzu ordu hauetan neska.

–Ja ja ja. Bai, bai, gabon!

“Beste bat kontu berdinarekin”

Zure etxea hurbil dago. Atondoa ikusten duzu jada, apur bat gandutsu, baina hor dago. Lasai asko zoaz. Lasai asko...

[...]

“Baina zer...?”

Ajearekin itzartu zarelakoan zaude. *“Non nago? Zer gertatu da?”* Buruko min ikaragarria, burua besterik ez duzu sentitzen; buelta-bueltaka. Baina zu geldi zaude. Ezin zara mugitu. Paralizatuta zaude. Ezinduta. Txistu zorrotz bat entzuten duzu buru barnean. Piiiiiiiiiiiiiiii...!!

Apurka-apurka gorputzeko atalak nabaritzen hasi zara. Mina jasanezina da. Jipoi galant bat eman izan balizute bezala. Oraindik ez dakizu zergatik zauden horrela.

Emeki, begiak zabaltzen hasten zara. Argia mingarria da. Ez duzu ezer be-reizten. Koloreak nahastu egiten dira. Zorabiatzen hasi zara. Baina guztiz zabaldu dituzu, eta lausoturik zegoena, itxura hartzen hasi da. Baina ez dakizu zer den.

“Non nago?” -pentsatzen duzu. Baina ezin duzu esan. Ez duzu indarrrik ezer esateko. Ordea, soinu ulergaitz bat bota duzu.

Zerbait mugitzen entzun duzu orduan.

Atzamarrak pitin bat mugitu ahal dituzula antzeman duzu. Sentsazioak be-reskuratu nahi dituzu. Atzamarrek belarra dastatu dute. Belar bustia.

Ikusten duzuna zerua dela ohartzen zara, egunsentia.

“Zergatik nago hemen?” Baina oraindik ez duzu lortzen ezer ahoskatzea. Norbait zure inguruan dabilela sumatzen duzu.

Eskua mugiaraztea lortu duzu. Burura eraman duzu. Bustia dago. Orduan eskua begiratu eta, odola. Bihotzaren taupadak gogor nabari dituzu. Eta kostata gorputza pixka bat altxatzea lortu duzu. Erdi biluzik zaude. Zauriak non nahi. Negarrez hasi zara, hasperenka. *“Zer gertatu da?”* . Burua lehertzeko modura daukazu.

“Kontuz!”

“Zer gertatuko zait niri...”

Orduan etxerako bidea gogoratzen duzu, kamera geldoan. Etxeko atondoa urrunean... Filma bukatu da.

Haizea entzuten duzu, eta txoriñoak. Eta harmonia birrintzen, beste mugimendu bat. Atzera begiratzen duzu. Pertsona bat, gizonezkoa alegia. Praka marroiekin eta alkandora zuriarekin, zutik, zuri lepoa ematen. Alkandora prakaren kanpotik, lotsagabe. Ilea orraztu gabe. Prakak lotzen dagoela antzematen duzu, urduri, baina ase. Gorputza dar-dar betean duzu.

“Ezin daiteke...”

Ez dakizu zer egin, ez duzu ezer ulertzen. Aurrera begiratzen duzu, lekua ezaguna duzu. Behera eramaten duzu begirada, zure gorputzera. Negar egiten duzu, etsigarria da. Ezta zure amets gaizto bortitzenean ere.

“Zer gertatuko zait niri...”

Atzera begiratzen duzu berriz, azken aldiz. Eta tipoak buelta ematen du, zuri begira jartzen da. Zure begiek ikusten dutena ezin duzu sinetsi.

–Manu...



Aroa Basterretxea - BT 2. maila

*“Urruti jaio ziren, gertu bizi dira;
elkar errespetatuz guztiak aurrera egin dezagun”*

ASTROEK EZ NAUTE MAITE

Euskal Herria, politika, iritzia, mundua, ekonomia, kirolak... sail bat beste baten atzetik, orrialde bat beste baten segidan, bikoitiak ezkerrean, bakoitiak eskuman, guztia da segida bat: zenbaki, hizki eta irudien bilduma. Atzokoak gaurko paperak beteko ditu, gaurkoak biharkoak eta horrela dena jarraian, bizitza bera bezalaxe. Iragana, oraina eta etorkizuna, hirurak nahastuta azaltzen dira orri zuriak koloretzatzen dituzten testuetako aditzetan, baita eguneroko bizimoduan ere. Patua eta geroa ezezagunak dira batzuek hauei antza ematen saiatzen badira ere. Jomuga berdintsuarekin, titular batetik bestera saltoka, honakoarekin egin dut topo:

Leo (uztailak 23 - abuztuak 22): Ez zaude kexatzeko moduan, azkenaldian astroak zure alde daude. Gogotik egin duzu lan eta hilaren bukaerako soldatan nabarituko duzu. Maitasunean ere gauzak ondo doazkizu, bikotekideak azkenean onartuko du zurekin bizitzera joateko eskaria. Ekin guztia ondo prestatzeari! Aurrera!

Ezkaratz iluna leihotik sartzen diren eguzki izpi xumeek argiztatu duten une berean amaitu dut maiatzaren 14ko horoskopoen irakurketa. Orrialdearen gainean atzamar erakuslea jarriz eta izparringiari guztiz zarratzeko aukerarik eman barik, logelatik pasatuz, eta iratzargailuko orratz herdoilduei begirada astun bat zuzendu bezain laster, egunotan ikuzi gabeko komunean barrena abiatu naiz etxe honetan gutxitan lor daitekeen intimitatearen bila. Hamar bat minutu lehenago sukaldean piztutako zigarroa eskuan dut oraindik, askorentzako etsai eta hiltzaile maltzurrena izanagatik ere, nire kezken entzule eta lekuko bakarraren pare, nire lagun minenaren gisara. Ispiluaren aurrean aurkitu dut orduan neure burua, errimel beltzaz zikindutako begipe ilunei eta karmin koloreko arrastoak mantentzen dituen ezpain meheei so.

Tristurak zein ezinegonak bultzaturik edo, iragan gaua etorri zait gogora. Une batzuk lehenago egunkariari begiradatxo bat botatzen egon naizen mahaian eserita nengoen eguerdiko soberakin apurrak jaten. Hamabi inguru ginen, Leonardo Da Vinci maisu handiaren “Azken Afaria” koadroaren protagonistak izan nahi bagenu bezala. Sarritan egiten genion otoitz lan ospetsuaren erdian azaltzen den ahalguztidunari gutaz erruki zedin eta lagundu ziezagun, baina gure ogibidea zein zen ikusita ez genuen laguntza handirik espero. Horrela izanda ere, gehienok ez genuen esperantzarik galtzen, nire kasuan ez behintzat, lokabetasunaren eta eguneroko pairamenduetatik at geratzeko aukera bakartzat jotzen nuelako. Aseta geratu ostean, edo artegatasunak eta amorrak sabelean genituen gainerako jakienganako bidea oztopatzen zutelako, ahoen gorabeherako mugimendu arina bukatua zen jada eta harraskan zeramika zuri merkezkoko eta leinuru gabeko beirazko edalontzien glaziar edo izeberga eratzen hasia zen, garaiko berotasun eta izerdi guztien gainetik, freskura eta hezetasun pixka bat emateko asmoa zuenaren tankeran. Eremu batzuetan zuria eta besteetan gardena zen gelazko mendi hori oraindik ere urtu gabe dago, lehentxeago begitandu baitut pareta honen bestaldean. Sutegiko kuxidadeari jaramon handiegirik egin gabe bakoitza bere logelara abiatu ginen afaldu ostean. Haserrerik sor ez dadin umeei gozokiak banatzen zaizkien moduan banatu ginen geu ere, gela bakoitzeko seina.

Etzaleku bi, komun bat eta ezkaratza duen berrogeita bost metro karratu eskaseko etxebizitza honetan ez daukagu aukera askorik. Egia errateko, nik toki honi ez diot sekula etxebizitza deitu, izendapen hori merezi ez duen zio sinplearengatik. Hitz konposatu horri, azkeneko zatia, bizitza, duda-mudatan ibili gabe erro-errotik kenduko nioke, eta halaxe egiten dut. Hemen ez dago bizitza aurrera eramaterik, euritik eta hotzetik babestu eta lo egiteko tokia baino ez da, eta hori ere doi-doi egin dezakegu; halaber, ez daukagu bizitoki duinago batez gozatzeko abagunerik, bizitzako legea da: batzuek gehiegi eta besteek ezer ez. Egun eguzkitsu eta argitsu etako ortzia estaltzen duten laino ilunek igorritako euri tanta mardulen antzeko itoginez josita dago etxeko sabaia, plastikozko galdara ugari irtenbide. Hezetasun kiratsa ere nabari izaten da sarri, txitean-pitean sutegiko jaki aparten edo perfume merkeen usaina gailentzen bada ere.

Sukaldetik logelarako bidean, ohiko errutinari jarraituz, ondorengo orenetako lan gogor eta zikoitzaz jabetu nintzen lehenik, eta milaka kilometrotara dagoen

sendiaz hurrena. Azkeneko hori da egiten dudan ororen suspertzaile eta poza, ez dut apetagatik jarduten, ezta sasijakintsu bat edo bestek uste duen moduan errazena delako ere. Urrats batzuk aurreratuz, armairu aurrean geratu nintzen eta beharrerako lanabesa prestatzeari ekin nion. Egiteko erraza zen, erruz ezagutzen nuelako. Banekien zerk edertzen zuen, zerk erakargarriago egiten eta zerk loditzen eta ihartzen zuen. Bart erakargarriagoa egitearen aldeko apustua egin nuen, eta emaitza ikusita ezin esan dezaket gaizki joan zitzaidanik, zorionerako edo zoritxarrerako, lana ez baitzitzaidan falta izan atzokoan. Lehenengo, tresna biluzteari ekin nion eta gero, erremintei ugertu ez daitezen ematen zaien olio baillitza, krema lanabes osoan zehar masaje baten laguntzaz eta leunkiro zabaltzeari. Jarraian, ohearen gainean utzitakoak hartu eta apurka-apurka tresna estaltzen hasi nintzen, nabarmendu beharrekoak ahalik eta agerian uzten saiatzen nintzen bitartean. Minigona beltzak eta alkandora zuriak ondo ematen zidala aitortu beharrean nago, ohearen azpitik ateratako zapata gorriek nire hankak are luzeagoak egiten zituztelarik. Familiatik datorkit hanka luze eta finen kontua. Mirailaren aurrean azken erreposoa eman nion neure buruari, hanka baten gainean jarrita bira oso bat eman ostean, baikor agertu nintzen egindako beharrekin: lanabesa ederto apainduta laga nuen. Azken ukitua falta zitzaion, errimela eta ezpainak bizituko zituen kolore gorri gogorra. Eskuko poltsan giltzak, dirua eta beste bizpahiru gauza sartu eta etxeko atea zehartzeko prest aurkitzen nintzen gaueko iluntasunari, bakartasunari eta arrotzen begirada lizun eta ankerrei aurre egiteko.

Karrika eta ataria banatzen zituen harmaila apurkak jaitsi eta eraikinaren ezkerretik jo nuen, lantokira azkarrago heltzekotan. Bakardadeaz eta zetorkidanaz arduraturik, nire barrena lasaitzeko saiakeretan nindoala, bat-batean aurrera jarraitzea ekiditen zidan zerbaitek harritu ninduen: zuria izana zen izara batek. Farolaren argitasunak bere gaineko kartoizko kaxatxoetako irudiak, kolore bizi eta leunez estaliak, agerian uzten zituen. Bat leitu nuen: “Channel N.º 5”, aldamenean, paper zati batean, prezioa. Gainerako kaxak begiratzen nenbilela esku beltzaren batekin egin nuen topo. Esku haren arrastoa jarraitu nuen detektibe baten antzean. Urre koloreko eskuturreko ugari lehenik, beso ez oso lodia ondoren, lepoa laburpea eta bere sufrimenduen isla ziren begi nabar eta handiak azkenik. Ezkerrera biratu nuen burua, eskumara egin nuen gero, eta bietan gauza bera: lau bat urteko mutikoa, irribarre gozo eta lotsatiarekin. Nik neure esku zuria esku poltsan sartu, eta hamar eurokoa ateratzearekin batera, aurrez aurre neukan emakumeak mutikoen irribarre berdina eskaini zidan. Esku biek bat egin zuten ostean, billetea tarteko, kultura ezberdinen arteko hitzarmena balitz lez. Biok andrazko, biok kanpotar, biok familia baten gidari, biok direnak eta ez direnak pairatzen. Biok, biok, biok... amaierarik bako zerrenda izan zitekeen hura.

Luze barik urrundu nintzen bertatik goiko kalean barrena aurrera egiteko eta honekiko elkarzut zen etorbide nagusitik lantokira iristeko. Bospasei minutuko eguneroko ibilbidea zen, atzokoan pittin bat luzatu zitzaidana. Ohiko lekurantz abiatu nintzen, Etxaburutarren ostatua baino ehun bat metro haratago dagoen kaleargi baten babespera, itzalen eta arima galduen errepede horretako soilene-

tarikoaren azpira. Gainontzekoak ere betetzen hasiak zeuden jada eta denetik eros daitekeen saltokietako erakusleihen goi parteko kartel “argitsuen” parean ere ikus zitezkeen; tira, ikusi baino gehiago beraien soslaia bereizi. Kartel haiek ez ziren herenegun jarritakoak eta.

Ikusmenak ahalbidetzen zidan mugaraino begitandu nuen errepidea, sarre-ratzat nuen aldetik auto bat hurbiltzen ari zen eta irteeratzat jotzen nuenetik beste bat. Hasierakoaren eta bukaerakoaren bitartean zeudenen artean hainbat nituen ezagunak. Egunero edo astean lautan ikusten nituenak batetik, eta nirekin batera Errusiatik etorritako adin bertuko emakumeak bestetik. Zenbait aurpegi oraindik arrotzak gertatu zitzaizkidan, baina denen gorputzetan gona motza, kamiseta labur antzekoa eta puntadun zapata takoidunak ziren nagusi. Ez zen errepide hura Milan, Paris edo New York-eko pasarela famatua izango, baina arropa erakargarri zegoenez hiruretan baino aukera gehiago eskaintzen zenari inork ez zion ezeztik emango. Pentsamendu horietan murgilduta nengoela eskumatik zetorkidan automobila nire parera iritsia zen ordurako eta leiho irekiaz bestaldean mamitzen zena entzuteko beta izan nuen, motor hotsa fondoko:

–Hi, Martin, noiz hartu behar dik udalak guzti honi amaiera emateko neurriren bat? Zenbat aldiz kexatu gaituk? Lotsagarria duk!

–Ez zekiat zer pen...

Ezin izan nuen ezer gehiago aditu, alabaina, gustura erantzungo niokeen sekula ezereen falta sumatu gabeko gizon harroputz hari hauxe: udalak ez du neurririk hartuko, zati batean ez, behintzat. Zuen botoak jaso dituzten zinegotziek eta alkate jaun agurgarri horrek ere, gorbata eta traje garesti guztien azpian, emazteak engainatzeko besteko zatarrak dira. Euren nortasuna ezkutatu guran, zira luze eta eguzkitako betaurrekoak jantzita, maiz ikusten ditut nik, gaueko iluntasunean, farola batetik bestera, txortan egiteko norbaiten bila, zu zeu bezala. Herritar asko zarete ona isilean hurbiltzen zaretenak eta ostean kontzientzia garbitu nahian edo, sekulakoak eta bi esaten dituzuenak gugatik. Zuek bai zaretela lotsagarriak!

Barnea kiskaltzen neukala, atzeko aldetik pauso hotsa entzun eta zeharka begiratu nien, ostatutik irtenberriak ziruditen. Itzalen arteko desberdintasuna nabilia zen, ama- semeak ziren, antza.

–Ama, zergatik daude hainbeste andre hemen? Zergatik daude denak horrela jantzita?

–Lanean daudelako seme.

–Zein da ba beraien lana?

–Hori handiagoa zarenean azalduko dizut.

–Jo, beti berdin!

Elkarrizketa hark txikitako oroitzenak eta familia ekarri zizkidan gogora. Kontu korapilatsuak beti geratzen ziren nagusiago nintzenerako. Horrela esaten zidaten neuri ere gurasoek: handiagoa zarenean ulertuko duzu, handiagoa

zarenean egingo duzu... Helduagoa zarenean batera, eta handiagoa zarenean bestera. Mutikotxo hori bezala neu ere biziki amorratzen nintzen.

Bozina hotsa entzun nuen bat-batean, ezkerretik etorritako autoa zen. Bueno, kamioia. Foku handi bik nire aurrean utzi zioten aurrerantz mugitzeari, itzali ostean berriro piztuz, kankarrotzarrera igotzeko seinale. Gau hartako nire benetako lanaren hasiera erakusten zuen adierazle ere bazen. Horrela, gizonezko lodikote haren atzetik hiruzpalau bezero pasatu nituen, hauek argal eta zertxobait gazteagoak. Diru dexente lortu nuen, kalkuluak gaizki egin ez baditut behintzat aspaldiko gehien. Ez zait erraza egiten nire gorputza hain urrun dagoen nire maitea ez den beste pertsona bati eskaintzea, baina amets gaiztoa den mundu honetan niri egokitu zait sendia aurrera ateratzeko lanbide zital honen protagonista izatea.

–(TOK, TOK!) Christine? Luzarorako al duzu? Norbait zutaz galdezka etorri da. –Graciela da atearen bestaldetik, hau ere lanetik itzuli-berria.

–Ez, amaitzear nago.

Emakume errumaniarraren ahots apal horrek nire onera itzularazi nau, eta oraindik komuneko ispiluaren aurrean nire piurari so nagoela jabetu naiz. Zenbat denbora daramat gero eta zikinago eta arrotzago egiten ari zaidan hezur-haragizko fardel honi begira eta bart gertatutakoaz hausnartzen? Segundo ahul eta sinpleak ala hauelako hirurogei kidez osatutako minutuak? Batek jakin. Eguneroko bizitzaren gogortasuna badakidala erran dezaket, hogeita hiru udaberriren igaroa soilik ikusi badut ere. Hau bai zoria eta patua bizitzak eskaini didana! Orduan gogoratu naiz horoskopoz eta Zerebro jaunak, dirudienez, nire begirada beherantz zuzentzeko agindua eman du, halaxe egin baitut. Batean, itzaltzear dagoen zigarroa, bestean, egunkaria. Bi eskuak lanean. Zigarroa, munduko aurkari handiena baillitza komu-netik behera bota, bonbari sakatu, bisaia garbitu eta “Channel N.º 5” tanta batzuk bota ditut zama inguruan, baita komunean be. Atea zeharkatu dut eta beste ate batera zuzendu naiz, etxekora. Ireki eta batera, aurrez aurreko pertsona besarkatu eta musukatu dut, ederra da benetan mutila, nirekin bizitzeko etorria da nonbait Moskutik.

RING, RING... iratzargailuko orratz herdoilduek gaueko zortziak adierazten dituzte, ametsen munduan murgilduta egon naiz, antza, errealitatetik at. Maindi-reak alboratu jaiki eta leihorantz abiatu naiz ortzia ikustekotan. Ilargi lanpetuaren argipean emakume beltzaran bat, bi mutikorekin, irribarrez ari zait noizbait ikusi izan banindu bezala. Nik ere irribarre bat igorri diot. Minigona eta kamiseta estua jantzi eta betiko kaleargiaren azpirarantz jo aurretik, maiatzaren 14ko horosko-poaren irakurketari ekin diot:

Leo (uztailak 23-abuztuak 22): Zorte txarreko zabilta! Aspaldian astroek ez dizute jaramon handirik egiten. Gogor lan egin duzu baina ez da nahikoa soldata igotzeko. Bikotekidea urrun daukazu, telefono deiekin konformatu behar. Ez etsi! Lortuko duzu

Gaurkoan ere astroak nire kontra. Hau da hau! Tira, banoa, presaka nabil eta.



Alejandra Loizaga - BT 2. maila

*“Diotenez, ezin ziarra dezaket,
herriko bideoklubean ba omen daude euskarazko filma erotikoa”*

PSIKOANALISTA

–Eseri aulki horretan eta itxi begiak.

–Garbi dago?

–Bai

–Ondo da.

Isiltasuna da nagusi gelan, baina bada zarata bat Brown doktorea erotik
ateratzeko haina konstante eta araututakoa.

–Boligrafoa etengabe mugituz zer lortzen duzu?

–Non utz dezaket?

–Ez dizut esan lanabes txikia manipulatzeari uko egiteko; horren zergatia jakin
nahi dut, besterik ez.

–Gustuko dut gauza txiki eta inozoak nire apetaz manipulatzeari.

Begiak ireki, ezpain gorriak erdizka zabaldu eta zilarrezko boligrafoaren punta ahoan sartu du.

–Gozo dago?

–Badaude gauza txiki eta inozo gozoagoak.

–Amaren bularra adibidez.

–Ez naiz horretaz ari hain zuzen.

–Bestalde, zure alde ezkutuak hori islatzen du aho betez.

–Melanie aspaldi galdu zen.

–Galdu?

–Bai galdu, edo hil edo desagertu edo... berdin dio.

Brown doktoreak begirada bizkor bat bota dio emakumearen gorputzari. Eten-gabe ziurtatzen du begiak itxita dituen ala ez. Itxita ditu eta boligrafoa ezpain gorri artean bueltaka, hara eta hona.

–Pentsatu hitz egin berri dugunaz.

–Zer?

–Entzun duzuna.

–Amaren bularrak?

–Ez. Bataio izenez izendatu berri duzun amaz, bere faltaz eta horrek eragiten dizunaz. Itxi begiak eta egin gogoeta sakona.

Libre da orain gelako itzal artean Scarlett arretaz behatzeko, berataz disfrutatzeko. Ilhoria da nahiz eta badituen zenbait ile beltz goiztiar zeintzuek salatu egiten duten. Apaindu berriak diren ondulazio perfektuak eta hauen kokapen estrategikoa bekokian eta masaila borobilen gainean. Bular sendoak, denborari ihes egitea zer den ez dakitenak oraindik eta Brownen azterketa estraofizialean geldione bat merezi dutenak. Zuriak imajinatzen ditu, eta arrosa kolore suabekoak. Handiak dira, baina ez handiegiak bere gorputzaren sendotasunarekin alderatuta; bitxia da gorputzarekiko ideologia independentistaz nola mugitzen diren ikustea. Tripa aldea oparora da haragitan, Scarlett esertzerakoan batez ere. Aldaka zabalak ditu eta hanka labur zuriak, oso zuriak. Zapata takoidunak ditu, gorri gorriak.

–Hemen nagoela gogoratzen dizut.

–Ziurtatzen dizut ez duzula gogoratu beharrik.

–Bai egia, nabaria da ez nauzula begi bistatik kendu. Ez ahaztu itsuengatik esaten dutena.

–Gogora iezadazu.

–Beste sentimen batzuk garatzen dituztela.

–Adibidez?

–Kasu honetan intuizioa edo begiratuta sentitzearen sentsazioa.

- Zu ez zara itsua.
 - Baina bai etengabe begiratua. Asko dakit horretaz nahiz eta begiak itxita izan.
 - Jakizu 100 € kobratzen dudala orduko.
 - Gaia aldatzeko modu originalagorik ez duzu?
 - Ez. Diru kontuek edozein egoera hozten dute, hau bezalako elkarrizketa arriskutsu bat ere bai.
 - Nirekin gehixeago kostatuko zaizu.
 - Datorren ostiralean jarraituko dugu amaz hitz egiten.
 - Nor ari da amaz hitz egiten?
-
- Eseri aulki horretan eta itxi begiak.
 - Garbi dago?
 - Bai.
 - Konforme.
 - Egidazu berba zure lanaz.
 - Aktorea naiz, famatua.
 - Nik ez zaitut ezagutzen.
 - Ez nauzu zuk nahi haina ezagutzen, baina bai, badakizu nor naizen.
 - Zineman ikusiko zintudan agian.
 - Nire pertsonaiak zehatz mehatz ezagutuko ez bazenitu ez ninduzun horrela begiratuko.
 - Nola begiratzen zaitut?
 - Gela ilun bateko sekretupean filma bat bosgarren aldiz ikusten duenak begiratzen duen moduan.
 - Interesarekin?
 - Ezinegonaz.
 - Neuk ere baditut ahuleziak.
 - Ni naiz horietariko bat.
 - Litekeena da. Baina lasai neure burua kontrolatzeko gai naiz.
 - Ni, ordea, ez dakit gai izango naizen.
 - Segi dezagun zinemarekin. Merezi du?
 - Gai aldaketa kontutan hartuta diru kontuez ari zarela suposatu behar dut?
 - Ez, oraingoan benetako kontuez ari naiz.
 - Dirua benetakoa da, maite dut dirua. Ametsezko liburuak erosteko balio du; binilozko disko zoragarriak, txanpaina, txokolatea eta arrosa gorriak.

–Ikusten dut zinematik deskonektatzea kosta egiten zaizula.

–Zertarako deskonektatu? Bizitzak horrelakoa behar luke: txanpaina, txokolata eta arrosa gorriak.

–Baina zer egin txanpain botila bat, arantzadun arrosa bat eta txokolata tableta batekin izara artean, negu hotzeko gau bero batean?

–Behin irakurri nuen liburuxka batean, emakume batek bere maitalearen gaitasun eza ikusita, txanpain botila hartu eta inoiz baino gehiago disfrutatu zuela.

–Hotzegia.

–Ez du zertan. Irakurtzen ari nintzela botila bat eskuan izango banu, on egingo lidake neuri ere.

–Arriskutsua.

–Hori bai. Orgasmora iritsi baino ez, botilak eztanda egin zuen.

–Badakit, neuk ere irakurria dut.

–Eser zaitez. Lasai, garbi dago eta.

Scarlett, Brown doktoreak esandako eskuaz frogatu ostean, eseri egin da. Batere apaindu gabe etorri da gaurko sesiora.

–Desberdin ikusten zaitut gaur.

–Ez nauzu desberdin ikusten, itsusi ikusten nauzu.

–Nik ez dut horrelakorik esan. Bakarrik diotsut faltan botatzen ditudala zapata gorriak eta soineko estua.

–Horra hor, faltan botatzen dituzu, beraz, horiek gabe itsusi ikusten nauzu. Guztiak zarete berdinak.

–Berrito diotsut: ez zaitut itsusi ikusten. Gaur zergatik ez zaren apaindu jakin nahi dut, besterik ez.

–Ez naiz apaindu ez dudalako nahi izan.

–Ondo da. Bitxia emakume batentzat baina onargarria nolana ere.

–Zergatik bitxia? Onargarria? Zergatik ez normala? –urduri dago Scarlett– Gizonezko batez ari izan bagina normala izango litzateke. Ez “nolana ere onargarria”. Sutan jartzen nau gizonezkoek daukazuen jarrera horrek. Uste duzue guri dagokigula bakarrik apaintzea, eta apaintzen ez bagara emetasun falta dela diozue. Emakume izatea hori baino askoz gehiago da. (...) Gizonezkoak eta emakumezkoak berdinak gara, berdin jokatzen dugu eta berdintasunez tratatuak izan behar...

–Ez gara berdinak.

–Moztu egin nauzu.

–Barkatu. Jarrantu.

- Ezin dezaket jarraitu esan berri duzuna entzunda.
- Zer, ez garela berdinak?
- Bai. Nola esan dezakezu hori? Sinesgaitza iruditzen zait egun.
- Errepikatu egingo dizut, ea oraingoan sinesten duzun: Ez gara berdinak. Ez dugu berdin jokatz...
- Ez dugu berdin jokatz eta ez gara berdintasunez tratatuak izan behar.
- Azken hori ez dut nik esan, zuk esan duzu.
- Orduan berdintasunez tratatuak izan behar gara?
- Bai, hortan ados nago.
- Izan da ordua, zentzu apur bat zure hitzetan.
- Zentzu osoz aritu naiz une oro.
- Ezezkoan nago. Kutsu matxista nabari zaizu doktore.
- Isiltasun segundo batzuk eta gero:
- Iritzi emaile lanak ez dira hemen niri dagozkidanak.
- Aspaldi pasatu ditugu bakoitzari dagozkigun mugak.
- (...)
- Esadazu, zergatik ez zara apaindu? Eman duzu ulertzeraz apaintzeak ez zaituela emakumeago egiten, baina ziur zaude horrela pentsatzen duzula?
- Alajaina!
- Ez al diozu apaintzeari uko egin zeure burua gizonezkoekin parekatu ostean?
- Zer dela eta? Horrek ez du ez buru ez hankarik!
- Arrazoi moduan gogorik eza aurkeztu didazu. Gero, pixkanaka agertzen joan da ezkutuan dagoen zerbait. Apaintzeak ez zaitu emakumeago bihurtzen, ados horretan. Baina gizontzeak emakume moduan dagozkizun eskubideak emango dizkizula uste duzu?
- Ez (...)
- Gogorik ez duzulako apaintzeari uko egiten diozunean, zurekin erabat ados egongo naiz. Litekeena da gainera bizarra moztu gabe etorrita zurekin bat egitea. Bitartean, gizonok baino ispilu hoberik bilatzeko erregutuko dizut.
- Txalo bero bat.

Mahai gainean eseri da gaurkoan Scarlett. Brown doktorea bere azpian gelditu da. Bere esanetara. Emakumea makurtu egin da eta independentzia zaleak matxinatu egin dira. Brownen eskuak errepresio lanak bereganatu dituzte eta gogor heldu bular sendoak.

–Hurbildu nigana.

Brown altxatu egin da eta Scarlett inguratu du aldaketatik. Ezpain gorriak dastatu nahi izan ditu baina emakumeak indarkeriaz jaitsi arazi du hasierako posizioa.

–Nigana hurbiltzeko esan dizut, ez altxatzeko.

Eskuak gona azpitik sartu eta salto txiki bat eman du Scarlettetik.

–Beltzak. Interesgarria.

–Dotorezia ukitu bat beharrezkoa zela pentsatu dut.

–Jarrera lerden hau konpentsatzeko?

–Jarrera lerden hau disimulatzeko.

Gizonak bizkor kendu dizkio kuleroak emakumeari. Takoi gorriak horretarako oztopo bilakatu dira. Hala ere, Brownek ez dizkio hauek erantzi nahi izan.

–Barren horretatik konpondu beharko zara oraingoz.

–Atsegin handiz (...)

–Bukatu duzu?

Doktorea altxatu egin da. Scarlettetik berriz lekura bueltarazi nahi izan du baina Brownek eskuak indarkeriaz astindu dizkio mahaiaren kontra. Irribarre egin du Scarlettetik.

–Utziko didazu orain goiko ezpain horiek musukatzen?

–Zer dela eta? Konbentzitu egin beharko nauzu.

–Irrikaz nagoelako.

–Benetan?

–Ez nuke nahi musu gabeko ezer bion artean.

–Haratagoko ezer ere ez suposatzen dut.

–Gaurko sesioarekin nahikoa da. Ekarri hona aho lerden hori.

–Coorten! ¡Por Dios! ¡ Ya era hora de terminar con esto!

–La verdad es que esta vez el guionista no se ha lucido.

–El argumento no es lo peor. ¡Una película erótica en vascuence! Nunca he rodado algo tan inverosímil!



Nora Urkiza - BT 2. maila

*“Lege bat dut: ez amestu geroan, ezta bizi iraganean,
soilik bizi beharrezkoak ditudan momentu hauetan”*

EZEZAGUNAREN MINA

*Hil egin dut, eta barrez erantzun didate
eskua odolez ikustean, atzera pausua emanaz.*

*Benetan zer edo nor garen jakin badaiteke
erantzun gabeko hainbat gauza egingo genituzke?*

*Bortxatu, jo, soilik mindu, egingo dizula jakinez gero
bere besapean egingo zenuke lo?*

*Aldatu da, bihotz berri bat du, esaten dute,
baina bihotz hori zurea al da oraindik ere?*

LAGUNAREN AGURRA

*Ezin agurrik esan,
edo behar besteko mina azaldu,
horregatik,
itxaropenez bete, irria sortu, gero arte esan eta besarkatu.*

*Etxerako bidea inoiz ez ahaztu
ezinezkoa iruditzen bazaizu ere, aurrean aurkituko duzuna
azken batean gustatuko batzaizu.*

*Bestela badakizu,
kaixo, apa, hola-z beteriko maleta hartu eta bueltatu.
Baina beti ere saiatu,
denbora gutxian ezagutu binauzu, eta urriagoan ezagutuko dituzu.*

*Beldurra, bakardadearen mina, herriaren samina...
Begiak itxi, munduan sartu, lagunak ikusi, maitatua sentitu.*

Apa polit batez, gero arte esaten dizut

EUSKALDUNON AMA

*Galduta nago, beldurtuta
amaren eskua aspaldi askatu bainuen,
bidegurutze bat aukeratuz,
toki ezezagun honetan murgilduz.*

*Herriaren saminean bildurik, negar tanten antzera
behin da berriro eroriz,
eskatzen diot Euskal Herriari
heldu nadin berriz eskutik.*

MAITASUNAREN ZALANTZAK

*Zergatik lotsatzen zara begiratzen zaituenean
zergatik amorruez bete ordea, horrela ez denean.*

*Obsesioa ala maitasuna?
Hori baita zure galdera ezkutua
erantzun ezezaguna,
beldurra, berriz ere lotsa,
misterioaren desatsegina, barrearen itxaropena.*

*Obsesioa ala maitasuna?
Egun bakarrerako, parerako edo denbora luzerako?
Bizitza osatzeko akaso? Berrito beldurra.*

*Ez, ez gustuko izatearena ezta maitemintzearena ere,
sufritzearena baizik, bizitzearena.*

*Arriesga ezazu zeure burua eta ez begiratu atzera,
akatsa baita erakuts leihoa, ibilbideko ertza.
vHorrela ikasten da.*

*Altxatzeko erortzen zara,
defenditzeko bultzatzen zaituzte,
miresteko maitatua zara.*

*Beldurra, zer edo nor da hori?
Lotsa, aspaldi ikusi ez dudana.*

*Bizitza sentimendu ikusgarria,
beti nire barnean egon beharrekoa,
ihes egiten utziko ez diodana.*

*Bizi, sufritzea ez da txarra. Erakutsi egiten dizkigu hainbat gauza.
Maitemintzea berdin,
txarra ez da,
ikaragarria, zoragarria, irrealtasunaren parekoa,
bizi beharreko esperientzia.*

Zergatik?

*Batek jakin,
baina bizi, bizi, bizi zure erara.
Zu baitzara bide ertza.*

ALDAKETA

*Ate joka ari dira,
eta ez dut zabaldu nahi.
Nor ote da? Zer nahi ote du?*

*Negua Parisen igaro ondoren,
eskumuturrak askatu dizkirate,
eta etxera bueltatu naiz, minutu bat itxoin gabe.
Inor ez dago edo urduri al daude,
ama ireki iezadazu atea txakurrak ez daude.*

*Ez haut ezagutu, saminez erantzun dute,
horrenbeste jipoi eman al dizute?*

*Ordainaraziko nizkioke,
ziztada bakoitzaren truke
ez baitaude munduan euskaldunon alde.*



Garoa Caminos - BT 2. maila

*“Zuhaitzak zuhaitz izaten jarraitzen al du hostorik gabe?
Gizakia gizaki ote sentimendu gabe?”*

GAUAZ MAITEMINDU NINTZEN

*Amaitu da eguna
eguzkiaren argi samurra
laino mamitsuen artean
ezkutatu da lotsati
Gauari ongi etorría emateko.*

*Bere gaueko jantzia zabaldu du
azkenengo eguzki printz epela
bere besoetan kupidagabe itoz.*

*Baina ez da ohartu
ez berandu arte
neska umezurtz baten amets guztien
iturri, zergati eta jabe bihurtu dela.*

*Ez da ohartu egunak joan
egunak etorri neskatxa baten
bihotzaren motore, taupada...
bihurtu dela,
bihotz galdu baten norabidea
zuzentzen duen ipar orratz...*

*Nork esango ote zion bada,
umezurtz izanik maitasunaren
irrifarra, zirrara, ikara...
ezagutuko zituela?
Nork esango ote zion
itsaso erdian noraezean
ibilitako itsasontzia
azkenean kaira iritsiko zela?*

*Gogoan ditut bai,
beti ere gogoan
umezurtz izan nintzeneko egun
huts eta garratzak nola
bete zenizkidan
pasioz emandako musuz,
kontu handiz, leunkiro
eginiko laztanez...*

*Egunsentia.
Eguzki izpien beldur
atoan erantzi du
bere jantzi beltza Gauak.
Izarren argipean
erein genituen haziak
errotik kanporatu, apurtu, bortxatu ditu argiak.*

Sakrifizioa, amorrazioa, desesperazioa. Akaboa.

*Orain hemen nauzu,
ispiluaren aurrean
negar anpulu gazien andanak
nire masailak nola blaitzen, zulutzen...
dituen begira, inpotentzia makala.*

*Gorritz jantzi zintuzteneko eguna
ahantzi ezinik,
itzalen artean eraiki genuen
mundu propioa,
zure azal beltzaranaren
fereka leuna...
dena gogoan, ZEU gogoan.*

*Zugan sentitzen dudan beharra
ilargi betea dagoenetan
behin eta berriz barneratzeko gai
izango naizen esperantza badela
sinestu nahian...noizbait
bat egingo dugulakoan...*

Adio eta beste bat arte, nire sekretuen lekuko izan zaren horri.



Sadek Ahemdanek Garalde - HHI

“Mundu bitxian bizi gara, gero!”

BAKEA AZKENEAN

Tak-tak! Tak-tak! Tak-tak! Burrunbada itzalarekin esnatu nintzen arratsalde hartan, hasiera batean non negoen ez nekien, oso ikaratua, dar-dar egiten zidan gorputzak. Baina bapatean! Gogoratu nintzen Gernikako zulo batean geratu nintzela harrapatuta, ezkutatzen ari ziren gizakien artetik, gudan baitzeunden eta Gernika sutan, ez nintzen ezertaz gehiago gogoratzen.

Berehala burrunbadarekin batera nire gaineko sabaia apurtzen hasi zen, harri handiak buruan eta gorputzean joz, ia-ia hegoak ere apurtu zitzaizkidan arte. Noski, eltxo bat naiz eta hegan egiteko behar ditut. Irteera bako zuloko azken eguna edota lehen eguna izan zen hura, kanpoko mundura irten eta segituan paratu nintzen zur eta lur gizakiei begira. Eskuetan zeukatzen lurra zulatzeko makinak izan ziren nire salbatzaileak, nahiz eta oraindik badituzte arrasto batzuk gorputzean. Gizakiengatik nago hara eta hona hegan eta eguzkia begietan sentitzen, beraiei esker!



Hegan hasi eta bapatean ohartu nintzen ezagutzen ez nuen hiri bat zela Gernika-Lumo, gizakiak ere oso aldatuta, itxura xelebreekin baina kolore gehiagorekin jantzita, kaleetan zehar ke handia botatzen zuten trasto ugari ikusi nituen, txorabiatuta amaitu nuen haien artean ibiltzen eta kea arnasten.

Gau batean, kaleko argiaren inguruan nenbilela bueltak ematen, epeletan eta gainera oso gustora aspaldiko partez, bururatu zitzaidan iraganeko lekuak bisitatu behar nituela Horrela pentsatuta abiatu ginen bidean aurkitutako lagun bi ta ni gaztetaz asko gustatzen zitzaidan betebeharra egitea, gizakiak lo zeuden bitartean euren odola xurgatu gu elikatzeko. Denbora azkar doa aurrera edo ez dakit zergaitik behintzat, baina konplikatua egin zitzaidan nire denboretan erraz egiten zen misioa ondo bukatzea, pilo bat oztopo aurkitu bainituen, batez ere bertan logelan zegoen usain toxiko arraroa, eskerrak arnasa apurtxo bat utsita elikagaia lortu eta alde egin nuela! Bestela ez dakit zer gerta zitekeen nire bizitzarekin!. Lehengo denboretan, gure betebeharezko misioak ez ziren horrelako zailtasunez gauzatzen, gauzak ezberdinak ziren, leiho tarte txiki bat zabalik ikusten genuen bakoitzean erreparo barik sartzen ginen, inongo beldurrik gabe. Gauza bati bakarrik genion beldurra, gizakiaren eskuari.

Gaur egun ordea, gau hartako esperientzi txarraren ondorioz ikasi dut gauzak aldatu direla, hiltzeko arrisku handiagoak daudela, logela hartan gelditu baitzen nirekin zetorren lagun bat, sikatuta.

Gutxi gorabehera astebete igaro zenean ni zulotik irten nintzenean, antzinako bestelako lagun batzuk topatu nituen hegan, betiko moduan hegaldi zaratsatu eta harroputza zeramaten, aire zabaleko erregeak balira bezala ibiltzen ziren erleak. Nik badaezpada kamuflatu egin nintzen, nire bezelako kolorea duen objektu baten gainean etzanda ipiniz, ixil-ixilean. Haiek ni ikusi ezker ez zegoen gauza onik, bidean topo egiten zuten intsektu txikiekin “jolastea” oso gogoko zuten eta.

Egunak aurrera joan ahala, gutxitan ikusten nituen lehen oso ospetsu ziren marasmak eta haien sareak. Haiek ere bestelako lagunak ziren, etsaiak. Sarekadez biltzen zituzten ertz guztiak janaria bereganatzeko, hau da, gu ehizatzeke. Orain, bidean hegan noala halako gutxi saihesten ditut, leku ilun eta zaharretatik pasatzen naitzenez soilik.



Herriko kaleetan barna, hegaldaka, gora behera, ezker eta eskuin, gizakien aurpegi albotik pasatzean, aspalditik ezagutzen nuen eurek komunikatzeko ibiltzen zuten hizkuntza, nahiz eta ulertu ez, baina lehengoan ere txundituta geratu nintzen beraiei entzuten. Kanpotik zetorren hizkuntza bat bezalakoa entzun nuelako askoren ahotan, eta nik ez nuen ezagutzen.

Orain hemen aurkitzen naiz, Gernikako herritik urrun, mendi magal etorri naiz bake apur bat topatu nahian.

Buruari bueltak ematen egon naiz denbora guztian, harritua, ea gizakiek nola demontre aurreratu duten horrenbeste gauza materialetan, pentsatzen ibilita ez direla urte asko igaro zulo ilun hartan preso gelditu nintzenetik.

Hemen dabilta orain ere! Kakarraldo itxurazko kamioiak ikusten ditut, eta mendia zulatzen ari dira. Erori naiz lur gaineko ur-putzu batera eta ezin altxatuta nabil! Zama guxi dut, ez naiz itoko behintzat. Oi, ez!! Goma beltz erraldoi bat biraka dator nire gainera! Plaaasssst!





Iratxe Álvarez Azueta - HHI

“Bizitza honetan, batzutan, azaldu ezinezko sentrazioak nabaritzen dira, maitasunaren magia da hori”

IRATXEREN LEGATUA

Haizerik ez zebilen eta itsasoa bare zegoen egun batean, ilargiak txoko guztiak bustitzen zituen argi disdiratsua isurtzen zuen. Han aurkitzen zen bera, hildako amaren semea, ortozik eta gorputza dardarez, uretan oinak murgildurik eta malko artean, eskuetan zeukan egurrezko pitxarretik amaren erraultzak jaurtiz.

Eguzkiaren lehen printzez dantzatzen, amaren aztarnek zilarrezko



bidea eraiki zuten, itsaso barrenerantz. Korrontea lagun zuelarik, ikusmugarantz abiatu zen, dama ederraren arima. Aurrerantz begiratuz, kaioen maitasun hegaldiek, bakea sentiarazi zioten mutil bakartiari. Agian, bere ama kaio horietariko baten begietatik begira egon litekeela pentsatu zuen.

Dagoeneko eguna argituta zegoen eta goseak biziki astintzen zizkion tripak, beraz, oinak lehortu, oinetakoak jantzi eta bizikletan jesarrita, zitzu bizian, etxerantz abiatu zen. Gosari gozo baten ostean, antzinako argazkiei begira eman zituen ondorengo hiru orduak. Argazki guzti horiek, askotan ikusiak bazituen ere, oroi-tzapena zen gelditzen zitzaion gauza bakarra.

Andoni, Bilbon bizi zen, baina ama hiltzean, herrira bueltatzeko beharrezana sentitu zuen. Langabezian zegoenez eta neskalagun gabe, pisua alokairuan itxi, maletak egin eta bizitza berri bateri hasiera emateko asmoz herrirantz abiatu zen.

Bere amak, azkenen hamar urteak herrian bertan pasatu zituen eta etxe hori, berari utzi zion herentzi bezala, Andoni seme bakarra baitzen.

Herrira heldu eta udaletxera zuzendu zen bete behar zituen paperak egunean jartzera, jarraian lana aurkitzeari ekin zion bertan geratzeko itzaropena zuen eta.

Andonik, arte ederrak ikasi zituen bere amaren pausuei jarraituz, eta hiriko merkatarien artean, ospea irabazita zeukan dagoeneko. Bilboko Arte Ederretako Museoak urtero antolatzen duen margolari gazteen lehiaketa hirutan irabazi ondoren, ate asko ireki zitzaion baina dena bertan behera utzi eta zerotik hastear zegoen, nondik hasi ere ez zekiela, bigarren eta hirugarren sektorea jaun zen, seiehun biztanleko herri txikian. Goseak jota, aurkitu zuen lehenengo tabernan sartu zen:

–Egun on! –esan zuen Andonik. Baina ez zuen inoren erantzunik jaso, taberna hutsik baitzegoen.

–Egun on! Ba al dago inor?

Eta orduan, neskatxa polit eta lirain bat agertu zen, barra azpitik.

–Barkatu baina ez zaitut entzun, zerbait nahi duzu edateko?

–A a akeita bat mesedez. –Ahotsak dardarka egin zion, neskatxaren edertasunak liluraturik.

–Ez zaitut ezagutzen, baina zure aurpegia ezaguna egiten zait, nongoa zara?

–Bilbokoa naiz baina nire amak herri honetan igaro ditu azkenen hamar urteak eta bere antz handia daukat, horregatik izango da. Andoni Azueta Aizpuru, urte askotarako.

–Nor da zure ama ba?

–Iratxe Aizpuru zeukan izena, pasa den astean hil zen bat batean. Ezagutzen zenuen? Arte eskola bat zeukan herrian. –Atoan neskatxaren begiak malkoz bete eta negarrez hasi zen.

–Noski ezagutzen nuela, bere ikaslea nintzen. Miresteaz gain asko maite nuen. Bihotzez sentitzen dut.

–Eskerrik asko –neskaren malkoek bihotza xamurtu zioten– joan beharra daukat. Ah! Zelan duzu izena?

–Maialen, zu ezagutzeaz pozten naiz. Gero arte.

Hurrengo hilabetea etxea konpontzen eta lana aurkitzen ihardun zuen.

Goizean goiz, bizikleta hartu eta ibilaldi luzeak egiten zituen kostaldean zehar, benetan gozagarriak ziren eta bere amagandik gertu sentiarazten zioten ur horietan bere amaren erraultzak zeudelako.

Egun batean, bere amak klaseak ematen zituen eraikuntzarekin gertatutakoa aztertzea erabaki zuen eta bertatik irteten zegoen gizon zahar batekin topo egin, eta zera galdetu zion:

–Kaixo gizona, zer moduz?

–Ondo seme. Baina zu! Zu Iratxeren semea zara, ezta? –Gizonak lilura aurpegiz, erantzun zion– Bai, hileta egunetik, ezin izan dut zure aurpegia ahaztu. Zu zara! Zer moduz moldatzen zara herrian? Lanik baduzu? Zu laguntzea nahi nuke, Iratxe eta biok lagun handiak ginen, leku honen garbiketaz arduratzen naiz eta.

–Ba... egia esan, pixkat galduta nabil eta langabezian, esperantzak agortzen dagoeneko, baina gauza bat esango didazu, zer gertatu da nire amak ematen zituen klaseekin? Eta ikasleekin?

–Iratxek utzi gintuenetik, inor ez da aurkeztu klaseak emateko eta ikasleak etsiturik eta esperantza gabe, ez etortzea erabaki dute. Udaletxeak hau ikusirik, eraikin hau errentan jartzea erabaki du. Zelako lastima, zure amak bihotz osoa jarrita zeukan proiektu honetan eta herriko jendearentzako oso lagungarria zen. –Tristura somatzen zen gizonaren aurpegian.

Momentu horretan, mundu osoa zabaldu zitzaion Andoniri eta denbora galdu gabe udaletxerako bidea hartu zuen, kulturako zinegotziarekin hitz egin eta bere amak utzitako diruarekin, eraikuntza erosi zuen.

Sei hilabete iraun zuten birmoldaketa lanek. Herriko jendea irrikitan zegoen bukaeraren zain, inork ez bai zekien zertarako erabiliko zuten. Azkenik, inaugurazio eguna heldu zen.

Eraikuntza, oihal erraldoi batek estaltzen zuen. Jendea, pilatzen hasia zegoen eta eskeinutako amaiketakoa amaitzear zegoenean, suziri batek, jaialdiari hasiera eman zion. Andoni, alkate jauna eta zinegotzia eskenatokira igo eta txalo algara baten ostean, Andoni mikrofonora urreratu eta hitz egiten hasi zen:

–Egun on jaun andreak, barkatu gure lanek sortu dituzten eragozpenak eta eskerrik asko etortzeagaitik. –Ondoan zeukan soka batetik tira egin zuen eta kolozez beteriko eraikuntza moderno agertarazi zuen, bertakoen harridura sustatuz. Alkate jaunak hitza hartu zuen:

–Hona hemen Andoni Azueta Aizpuru, Iratxe Aizpuren semea eta bere amaren pausuak jarraitu eta hobetuko dituena. Entzun itzazue honen proposamenak.

–Nire ama joan da, baina bere arimak zuengan dihardu eta horregatik, bere proiektuarekin jarraitzea pentsatu dut. –Hitz egin zuen Andonik zerura begiratu. –Nik klaseak emango ditut eta mundu guztiaren ideiak onartuko ditut, denak parte hartu dezazuen. Espero dut laster elkar ikustea. Astelehenean zerrenda irekiko da, taldeak antolatzeke eta gauza berria bezala, jakin ezazue antzerki talde bat sortzeko asmoa dudala.

Jendeak orduan poztasunez, algaraka erantzun zien honek emandako proposamenei eta gau guztian zehar ospatu zuten. Gau horretan Andonik Maialenen maitasuna bereganatu zuen eta handik gutxira ezkondu egin ziren. Hain maitasun handiak fruitua ekarri zuen, Andere izena ipini zioten.

Denbora aurrera zihoan eta Andereren urtebetetzerako egun bi falta ziren. Andonik, koro bat egiteko lore batzuen bila joatea pentsatu eta mendirako bidea hartu zuen.

–Agur maitea, loreak batu eta atzo Peiok esandako sasi-medikuarengana hurbilduko naiz ia garets itsusi hauek, behingoz desagertaraztuko dizkidan.

Inguruetako lore eder piloa batu ondoren, sasi-medikuaren etxera ailegatu zen. Lorategi eder batek ongi etorria ematen zuen egurrezko etxe txiki eta polit bat aurkitu zuen.

Atea jo eta emakume heldu bat agertu zitzaion mamua baillitza. Bere hildako amaren aurpegi berbera zuen. Andoni zorabiatu eta lurrera jausi zen. Itxartu eta ametsa ez zela konturatzean, galdezka hazi zen.

–Nor zara ? Nire amaren berdina zara, ez dut ezer ulertzen!

Emakumeak erantzun zion, Andoniren eskuak bere esku bitartean harturik.

–Zure amaren bikia naiz laztana. Iratxe hil baino hilabete arinago jakin genuen. Bera loreak batzen zebilen mendian eta elkar topo egitean txundituta gelditu ginen. Ikerketa askoren ostean, ospitalean banandu gintuztela jakin genuen. Urte horietan askotan gertatzen ziren horrelako ankerkeriak. Zelako lastima arinago ezagutu ez izana! Gure bizitzako momenturik zoriontsuena bizi ondoren, minbiziak jota zegoela aitortu zidan. Zuri esateko adorea pilatzen zebilen eta azkenean karramarro zikin horrek eraman zuen. Hil baino lehen zuregana joko nuela eta jaio zinenetik bere bizi poza zinela esatea zin egin nion. Etorri nire besoetara, ilobatxo maitea. –Malko tartean sentimenduz beteriko besarkada baten urtu ziren.

Familia handituz joan zen. Izeko Olatzen ostean beste ume bi gehiago etorri ziren, Jon eta Ane. Andonik ez zuen gehiago bakardatea sentituko eta izekok antzerki lanetan laguntzen hazi zitzaionean, amaren arimak lagunduta zeudela sentitu zuen. Eskolara zihoaztenek giro erakargarri eta magiko bat sentitzen zuten. Bizitza honetan batzutan, azaldu ezinezko sentsazioak nabaritzen dira, hori maitasunaren magia da, herriarentzako Iratxek utzi zuen legatu preziatua.

Urteak igaro dira eta oraindik eskualde osoko pertsonak, arte eskolara urrera-zen dira hango ikasketak jasotzera eta urtaro bakoitzean aurkezten diren antzerki saioetan parte hartzera, esaten dutenez herri zoriontsuagorik ez dagoela Euskal

Herri osoan eta Iratxeren barre algarak, mendiko terralak lagunduta entzuten direla, ilargi beteko gauetan.

“Eta hala zan eta ez ba zan, sar dadila kalabazan eta urten dadila zure herriko plazan.”



